goiena
DEBAGOIENDARROK DIOGUNA
2015-05-15
EGUBAKOITZA
639. ZENBAKIA
15. URTEA
DOAKOA
GOIENA.EUS
TOKIKOM

Ehun kantaritik gora Debagoieneko Kantu eta Dantza Egunean | 28

Jaialdi solidarioa Oñatin Aspanogiren alde | 2

PAZKOAK 2015
Bergarako jaien gaineko gehigarria | 31

Magia Mostraren 11. edizioa gertu dute Elgetan | 29

Altzaga: politikari polemiko aramaioarra, Argentinan | 10

Euskeriaren Eguna musikaz eta dantzaz gainezka dator

Aretxabaletan egingo dute, bihar, Loramendi Elkarteak antolatuta | 20

Rezustak Irujo txapeldunaren kontra jokatuko du domekan

Eibarko Astelenan neurtuko dituzte indarrak | 26

TXIRRINDULARI ONENAK ZIZTU BIZIAN

Gaur (egubakoitza) erlojuz kontrakoa jokatuko dute Bergaran Gipuzkoako Emakumeen 2. Itzuliko lehen etapan | 26

Iaz ere Bergaran hasi zen Gipuzkoako Itzulia, erlojupekoarekin, argazkiek erakusten duten moduan. | ARGAZKIAK: IMANOL SORIANO

ASTE HONETAN 'PUNTUA'-N:

Jardun Euskara Elkarteak 25 urte

Paco Etxeberria auzitegi medikuarekin elkarrizketa

JASO 'PUNTUA' ETXEAN: 943 25 05 05

Arrasateko Udalari esker
'Altxorraren uhartea' musikala ikusteko sarrerak ditugu.
Amaia Udal Antzokia. Arrasate
Maiatzaren 23an, 18:00etan.

PARTE HARTZEKO (MAIATZAREN 19A BAINO LEHENAGO):
SMS: KLUBA [altxorraren uhartea] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira
Telefonoz: 943 25 05 05 **E-postaz:** kluba@goiena.eus **WhatsApp:** KLUBA altxorraren uhartea [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea.
Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eus

goienakluba

Oñatiko Udalari esker
Zea Mays taldearen kontzerturako sarrerak ditugu.
Oñatiko Gaztelekua. Oñati.
Maiatzaren 22an, 22:30ean.

PARTE HARTZEKO (MAIATZAREN 18A BAINO LEHENAGO):
SMS: KLUBA [zea mays] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira
Telefonoz: 943 25 05 05 **E-postaz:** kluba@goiena.eus **WhatsApp:** KLUBA zea mays [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea.
Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eus

goienakluba

SINADURAK

Amantalez eta katedraz | 7
AMETS BELTRAN DE GEBARA

Ez dago adinik ikasteko | 7
LARRAITZ ZEBERIO

Hauteskundiak | 12
GAIZKA ERAÑA

Industriaren garrantzia | 16
MIGUEL LAZPIUR

Gurkhen herrixa | 20
MIKEL ARROIABE

Ondo errotuta | 56
ANDER ETXEBERRIA

DEBAGOIENA 2 | IRITZIA 7 | HERRIAK 10 | KIROLA 26 | KULTURA 28 | ZURE IRAGARKIAK 30 | ZORION AGURRAK 51 | TELEBISTA-IRRATIA 52 | EZKONTZAK 53 | ESKELAK 53 | NON-ZER 54

Minbizia duten umeei eta haien gurasoei begira, jaialdi solidarioa

Oñatiko Zubikoa kiroldegian egingo dute, datorren maiatzaren 23an

A.T. / U.M. | OÑATI

Oñatin jaialdi solidarioa egingo dute hilaren 23an (zapatua), Aspanogi elkarteari laguntzeko, minbizia duten haurren gurasoen elkarteari laguntzeko, hain zuzen ere.

Oñatiko Jose de Azpiazu musika eskolak antolatu du ekimena, baina parte-hartze zabala izango dela iragarri dute: Oñatz dantza taldeko dantzariek dantza-saioa egingo dute, Oñatiko txistulariak ere izango dira, bertako bertsolariak ere bai, herriko hiru ikastetxetako ikasleek abestu egingo dute eta, besteak beste, Jose de Azpiazu musika eskolako irakasleek ere parte hartuko dute jaialdi solidarioan.

Gainera, jaialdia gidatzen aurpegi aski ezagunek parte hartuko dute: Irrien Lagunak elkarteko Ane Pirata, batetik, eta Markel Irizar txirrindulari oñatiarra, bestetik. Atzo goizean (eguena) egin zuten ekimenaren aurkezpena, Oñatin bertan.

"Alaitasuna, botikarik onena"

"Musikaren bidez, oraingoan ere bai alaitasunaren bidez, botikarik onena alaitasuna baita, nahi duguna da alaitasun hori Donostiako ospitalean dauden piratatxo guzti horiengana iristea eta ongi pasatuaz, elkartasunaren sentsibilizazioa gizarteratzea", adierazi zuen Ane Piratak ekimenaren helburuetako bati aipamena eginda.

Eta mezu horri jaialdi solidariora joateko gonbitea gehitu zion, besteak beste, Jaione Intxaustik, Jose de Azpiazu musika eskolako zuzendaritzako kideak atzoko prentsaurrekoan: "Kontuan izan behar dugu ekarpen hau helburu batengatik izango dela, helburu horrek merezi duela eta guztiak animatzen zaituztegu bertara etortzen".

Ikastetxez ikastetxe

Datorren zapatuko jaialdian pisu handia hartuko dute Oñatiko hiru ikastetxeetako ikasleek, bertan egoteaz gainera, abestu ere egingo dutelako. Hori horrela, atzo, Ane Piratak Urgain Herri Eskola, Txantxiku Ikastola eta Elkar Hezi ikastetxeak bisitatu zituen goizez, jaialdi solidarioaren berri eman eta gaixotasunaren gaineko pedagogia lantzeko ikasleekin eurekin.

Aspanogi

Eskarmentu luzea duen elkartea da Aspanogi: 1996an sortu zen, irabazi asmorik gabe, eta giza ekimenean hasi zen 1998an lau familiari esker. Helburu nagusia haur minbizidunaren eta bere familiaren bizi kalitatea hobetzea da, gaixotasunaren berri izaten den unetik bertatik duten beharrei erantzunda. Familien, langileen, boluntarioen eta erakunde laguntzaileen lanari esker, Aspanogik haur minbizidunaren arretan hobekuntza nabarmenak lortu ditu. Besteak beste, gaixorik dauden haurren eskubideak defendatzen erreferente bilakatu gura du Aspanogik, "euren arazo nagusienei erantzun bat emanaz, gaixoaren bizi kalitatea hobeagoa izan dadin lagunduaz, tristura eta zailtasunak egon arren , haur - familia osasuntsu eta zoriontsuak izan daitezela", diote elkartetik.

Ane Pirata ikastetxeko umeekin dantzan. | AMAIA TXINTXURRETA

Antolatzaileak eta bultzatzaileak prentsaurrekoan, atzo, eguena. | A. T.

Ordainduk Mondragon Taldea auzitara eramango du

Atzo, eguena, hartu zuen erabaki hori Arrasateko Amaia Udal Antzokian egindako batzar orokorrean

MIREN ARREGI | ARRASATE

Ordainduko ordezkari Mikel Olabek adierazitakoaren arabera, "badira nahiko arrazoi" epaileek Ordainduko kideen alde egingo dutela pentsatzeko. Eta gaineratu zuen: "Uste dugu Mondragon Taldeak duela guk egindako diru ekarpenak ez bueltatzearen ardura". Hori abiapuntu, Olabek iragarri zuen atzo bertan jarri behar zituztela martxan "Mondragon Taldearen kontrako demanda ipintzeko erremintak (...) euren aurrezkiak erreklamatzeko". On Jose Maria Arizmendiarrietaren filosofiaz ere jardun zuen: "Arizmendiarrietarren pentsaera kontuan hartuta, elkartasuna eta lankidetza guganaino ere iritsi behar direla uste dugu, gu izan baikinen Mondragon Taldearen sorreran parte hartu genuenak". Eta gaineratu zuen: Sotilek, Gartziak eta Markaidek etxera eroaten dituzte etekinak. Gurea dena, aldiz, ez dute itzultzen". Esan zuen "jendeak oso haserre" jarraitzen duela.

Ordaindu plataformako kideak atzo Amaia antzokian. | MIREN ARREGI

Gasteizko Martxa Laranjara joateko dei egin dute Bergaratik, "elkartasuna adierazteko"

"Bergarar guztiei dei egiten diegu mobilizazio honetan parte har dezaten. *Aski da* esateko ordua delako, behingoz epaiketa politikoak bukatzeko garaia delako"; besteak beste, berba horiekin gonbidatu dituzte bergararrak domekan Gasteizera autoz joateko, Martxa Laranjara. Hitzordua 09:30ean egin dute, Agorrosingo parkingean.

EH Bildu, eskubide sozialen bermerako "aukera bakar"

"Kalitatezko zerbitzu publikoak" ziurtatzeko hautu "bakar" dela ere badio

A.L. / U.M. | ARRASATE

"Krisiak kaltetutako herritarrak bereziki babesteaz gain, herritar guztiei estaldura soziala bermatzea. Hori da instituzio publiko guztien egin behar nagusietakoa (...) Eta hau izan da lau urteotan gobernuan izan garen udaletan eta Gipuzkoako Foru Aldundiak egin duguna. Kalitatezko zerbitzu publikoei eutsi eta herritarren babesa bermatu". Horixe azpimarratu zuen martitzenean Agurne Barrusok, EH Bilduren Bergarako alkategaiak, Debagoieneko Ospitalearen aurreko agerraldian. Eneko Barberena Arrasateko alkategaiak berretsi zuen bide horretatik segitu ahal izateko "aukera bakarra" dela hilaren 24an EH Bilduri ematea botoa, "Debagoieneko herri guztietan eta Gipuzkoako Foru Aldundian".

EH Bilduren Debagoieneko alkategaiak ospitalearen aurrean. | ANDER LARRAÑAGA

Gipuzkoa, erreferente

Debagoieneko alkategaien babesarekin, Barrusok aditzera eman zuen Gipuzkoa dela Euskal Herrian aberastasuna "hobekien" banatuta duen lurraldea, zerga bilketan aberatsei "ahalegin" bat eskatu eta okerren daudenak "babestu" dituztelako; babes sozialaren eremuan Gipuzkoa "erreferente" bilakatu dutela esan eta, besteak beste, nabarmendu zuen Gipuzkoak duela estatuko langabezia tasarik txikiena.

Horren kontrara, PPren eta EAJren "eredu atzerakoi eta eskumakoa" eta haien "murrizketa sozialen" ondorioak salatu zituzten: Osakidetzaren eta hezkuntza publikoaren "egoera kaxkarra", etxebizitzarako eskubide beharra eta Jaurlaritzaren laguntzak urtea amaitu aurretik bukatzea.

Bestalde, EH Bilduk "egindako bidean sakontzeko" neurriak "praktikara eramateko konpromisoa" hartu zuten, Barberenaren hitzetan: "Murrizketa sozialak zero; etxeko zaintza indartu; osasun zerbitzu unibertsala; emergientziazko laguntzei eutsi; LOMCE ez; etxebizitza eskubidea; eta besteak beste, lan baldintza duinak".

Deskargako lanak amaitzeko "konpromisoa"

Markel Olano lurralde osoaren "oreka" lortzeko Deskargan bidesaria jartzearen alde agertu da

T.M. / U.M. | BERGARA

"Konpromiso hori badirudi erraza dela hartzen, baina, azken lau urteetan eduki dugun ibilbidea ikusita, badirudi ez dela hain erraza. Bilduk azpiegitura hori erabat blokatu du, eta, tamalez, hilabete eta urte luzeetan ezingo da behar den bezala ireki. Berriro ere, Bilduren porrota", adierazi zuen astelehenean Markel Olanok, Gipuzkoako diputatugai nagusiak Bergaran.

Ildo horretan, EAJk garraio publikoa sustatzearen alde agertu zen, baina esan zuen horretarako "ezinbestekoa" dela errepide sare egokia izatea.

Bidesariak, orekatzeko

Hala, gaitasun handiko errepideetan bidesariak jartzearen alde agertu zen jeltzalea, Deskargan ere bai. Olanoren ustez, "ez da egokia" bidesariak bakarrik bailara batzuetan ordaintzea, eta Debagoiena eta Debabarrena jarri zituen horren adibide: "Goierrin, esaterako, ez dute bidesaririk", esan du. Era berean, N-1ean, Etxegarate eta Irun artean, atzerriko kamioilariei kobratzeko sistema ezartzearen alde azaldu zen, neurri horiekin, egun dagoen 25-30 euro arteko tarifa malgua mantentzeko konpromisoa azaleratuz: "Horretarako, dirua jaso egin behar da (...) bidesariak jarri behar dira, eta kamioiek ordaindu egin behar dute. (...) Konpromisoa da 25-30 euroko muga mantentzea, baina hartu beharreko erabakiak hartuta eta demagogoak izan gabe".

Bergaran, Eider Mendoza eta Xabier Ezeizabarrena hautagaiak izan zituen bidelagun Olanok, baita Bergarako alkategai jeltzale Juanje Alberdi eta hainbat boluntario ere.

Markel Olano, Juanje Alberdi eta Eider Mendoza ondoan dituela. | T.M.

LEIRE KORTABARRIA

Irabazi: "Jardun politikoan etikaz"

Irabazi koalizioak Arrasaten partekatu zituen bere asmoak eta proposamenak, herenegun, eguaztena, Debagoieneko alkategaiak bertan zirela. Juan Luis Merino Arrasateko alkategaiak koalizioaren lehentasunak zeintzuk diren azaldu zuen; bestelakoen artean: langabezia, etxe-kaleratzeak, udaletan gardentasun handiagoa izatea eta jardun politikoan etikaz jokatzea.

Denis Itxaso hautagaia Arrasaten

U. M. | ARRASATE

Alderdi Sozialistak gaurko, egubakoitza, egin du hitzordua Arrasaten. Denis Itxaso diputatugai nagusia ibiliko da bertako azoka txikian arrosak banatzen. Harekin batera izango dira Blanca Roncal legebiltzarkidea eta Arrasateko zinegotzi ohia, Rafaela Romero Gipuzkoako Batzar Nagusietako bozeramailea, Carlos Gartzia Horrillos Arrasateko alkategaia eta gaur egun Arrasaten zinegotzi diren sozialistak. Goizez jardungo dute sozialistek azoka txikira gerturatzen diren herritarrekin euren egitasmoak partekatzen.

Arrasateko, Oñatiko eta Bergarako alkategaiekin mahai-inguruak, Goienan

U.M. | ARRASATE

Eskualdeko hiru herri nagusienetan alkategaiekin mahai-inguruak landuko ditu Goiena Telebistak maiatzaren 19an, 20an eta 21ean. Arrasaten, EH Bildu, EAJ, PSE-EE eta Irabazi-Ganar alderdien artekoa; Bergaran, EH Bilduren, EAJren eta Irabaziren artekoa, eta bukatzeko, Oñatin, EH Bilduko eta EAJko ordezkarien artekoa.

Hautagaiei galderak bidaltzeko aukera izango da (astelehena aurretik), honako bideak erabilita: Whatsapp: 688 69 00 17; Twitter: *@goiena* (mezu zuzena); Facebook: *Goiena Albisteak* (mezua) edo e-posta: *berriak@goiena.com*.

El Gallineroko 32 umeren bisita izan dute Bergaran

Mariaren Lagundia ikastolak gonbidatuta izan dira herrian, ia egunero eskolara joaten direla saritzeko

A.T./L.K. | BERGARA

Madrilgo El Gallinero txabola-auzoko 32 ume ijito Bergarako Mariaren Lagundia ikastolako umeekin izan dira egun batzuk pasatzen. Aurten laugarren urtez elkar ezagutzen eta elkarrengandik ikasten egon dira domekatik eguenera bitartean.

Mariaren Lagundiko Gizarte Integrazioko irakasle Susana Apariciok honela dio: "Eguen goizean Bergaratik ilusioz eta pozez betetako autobus bat abiatu da El Gallinerorantz. Hemen gelditu garenok irribarre eta malkoen artean konturatu gara hemengo bizipenek indarra eta heziketa behar sentimenduak sorrarazi dizkietela eta guk konturatzeke jaso dugu hainbeste". Gaineratu duenez "denok hezkuntza eskubide berdinak" izan beharko lituzkete.

Apariciok honela azaltzen du ekimena: "El Gallineroko umeen %80 eta %90 artean eskolara joaten dira ia egunero, eta joaten dira eurek nahi dutelako eta inolako laguntza barik. Hori saritzeko gonbidatzen ditugu Bergarara". Aurten etorri diren umeetako batzuk izan dira aurretik Bergaran; beste batzuendako lehenengo aldia izan da.

Hondartzara joateko zain

Ohiko ekintzak egin dituzte: elkarrekin eskolara joan, jolas berriak elkarrengandik ikasi eta irteerak egin. Gauza berezienetariko bat hondartzara joatea da, izan ere, El Gallineroko ume gehienek ez dute inoiz itsasoa ikusi. Horren zain etorri zen aurten Bianca izeneko neskatoa: "Pozik nago, ondo pasatzera etorri gara, hondartzara joateko eta batera jolasteko".

Eguenean agur esan zieten El Gallineroko umeei. | MARIAREN LAGUNDIA IKASTOLA

ULMA ULMA Manutención, S. Coop. Oñati

OHIKO BATZAR NAGUSIA
D E I ALDIA

Eguna: 2015eko maiatzaren 21a
Ordua: 08:30ean lehen deialdia eta 09:00etan bigarrena
Tokia: MU-Enpresagintzako areto nagusia – Oñati (Gipuzkoa)

GAI ZERRENDA

1. Aurreko aktaren onarpenari buruzko informazioa eta bazkideak izendatzea Batzar honetako akta onartzeko
2. 2014ko ekitaldiko gestio soziala aztertzea eta, badagokio, onartzea, eta 2015eko gestio plana berrestea
3. ULMA Taldeari buruzko txostena
4. 2014ko ekitaldiko urteko kontuak aztertzea eta, badagokio, onartzea
5. 2014ko ekitaldiko emaitzak banatzea
6. Heziketa eta Kooperatiba Sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako kontribuzioa aplikatzea (IPDK)
7. Supraegiturako entitateei buruzko gaiak
8. Ekonomia araubideko estatutu-xedapenak
9. Menpeko Ekarpen Finantzarioen jaulkipena
10. Zaintza Batzordeko kideak berritzea
11. Kontseilu Sozialeko kideak berritzea
12. Ahalmenak eskuordetzea
13. Galde-eskeak

OHARRAK: Bazkideei gogorarazten zaie sozietatearen egoitzan eskuragarri dituztela urteko kontuak, emaitzak aplikatzeko proposamena eta kontuen kanpo ikuskaritzak egindako gestio txostena, Batzar Nagusiaren deialdiaren epean zehar aztertu ahal izan ditzaten.

KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA
Oñati, 2015eko maiatzaren 7a

33,9 milioi irabazi ditu Laboral Kutxak martxora arte

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Laboral Kutxak 33,9 milioi euro irabazi ditu aurtengo lehen hiruhilekoan, iazko epe berean baino %5,2 gehiago.

Interes-tasek minimoetan jarraitzen dute, baina iazko bigarren seihilekoan kreditu-eskaerak ugaritu egin ziren eta joera horrek bere horretan jarraitzen du, bai etxeetan, bai enpresetan. Hain zuzen, kontsumorako krediduak %29 hazi dira iazko lehenengo hiruhilekotik hona; enpresendako krediduak, %54; eta hipoteketarako krediduak, %66, nahiz eta azken horiek, batik bat, bigarren eskuko etxebizitzetarako izan ziren.

Oso solbentzia maila ona

Aurrez lasaia zuen likidezia finkatzen jarraitzen du entitateak. Hala, bezeroen gordailuen gaineko krediduen ratioa %94,5ekoa da (emandako maileguen eta dauzkan gordailuen arteko zatiketa), eta txikizkako merkatuan diharduten sektoreko entitateen batez bestekoa %126,4koa, azken informazio erabilgarriaren arabera. Zifra horrek adierazten du banketxe batek mailegatuta daukan dirua zenbateraino duen estalita gordailutan duen diruarekin.

Kreditu-kooperatibak %13,69ko solbentzia-ratioa du, Common Equitiy Tier 1 (CET1) ratioaren arabera; sektorean nabarmentzeko moduko ratioa.

Marjinak lortzea, zailagoa

Interes-tasa txikiekin jarraitzen du merkatuak. Horrek esan nahi du ohiko banku-negozioak hortik marjina ateratzeko zailtasun handiagoa duela. Halere, Laboral Kutxak errentagarritasun-maila egokiari eutsi dio eta 77,7 milioi euroko interesen marjina eskuratu du. Horri komisioek, dibidenduek eta beste finantza-eragiketa batzuek ekarritako sarrerak gehitu behar zaizkio, eta, guztiak bilduta, 112,8 milioi euroko marjina gordina lortu du.

Aurtengo langabezia tasarik onena izan da apirilean: %12,30,

ENEKO AZKARATE | DEBAGOIENA

Langabeziak behera egin du apirilean Debagoienean, gutxi bada ere, eta aurtengo hilerik onena izan da enpleguari dagokionean. 3.665 lagun zeuden langabezian apirilean Debagoienean (%12,30); martxoan, 3.707 ziren, %12,44ko tasa.

Iazko apirilarekiko ere behera egin du zertxobait langabeziak; orduan, %12,69koa zen langabezia tasa eskualdean. Joan den abenduan, %12,41ekoa zen langabezia tasa. Gainera, langabeziak ez du behera egin herri guztietan, apirilean; Bergaran, Antzuolan, Elgetan eta Leintz Gatzagan gora egin du.

APIRILA

HERRIA	LANGABEAK	LANG. TASA
Arrasate	1.616	%15,60
Bergara	877	%12,51
Oñati	448	%8,54
Aretxabaleta	316	%9,25
Eskoriatza	247	%12,13
Antzuola	88	%8,07
Elgeta	62	%11,44
Leintz Gatzaga	11	%8,15
GUZTIRA	**3.665**	**%12,30**

Josu Urrutia | Mundukide GGKEko zuzendaria

"Kooperatibetatik kooperatibistengana joateko unea heldu da"

Batu Taupadara bazkidetza programa abiatu du Mundukidek bere 15. urteurren honetan

L.K. | ARRASATE

Garapenerako gobernuz kanpoko Mundukide erakundearen 15 urteak jendearengandik gertu ospatu nahi dituztela dio Josu Urrutia zuzendariak.

Ze ospakizun antolatu duzue?

Jendearekin konpartitu gura dugu 15 urteon ospakizuna. Erakusketa antolatu dugu, kooperatiba askotara eramango duguna, 15 urte hauetan Mundukidek egin duena, bere balioak eta printzipioak partekatzeko. Horrekin lotuta, Batu Taupadara kanpaina martxan ipini dugu, jendearen gertutasuna eta laguntza jasotzeko eta Mundukideren proiektua laguntzen jarraitzeko. 2014-2017ko Plan Estrategikoan identifikatu genuen momentua heldu zela kooperatibetatik kooperatibistengana joateko, hemengo pertsonekin lan egitea hango pertsonei laguntzeko.

Zein da 15 urteotako balantzea?

Pertsonak gara. Arizmendiarrietak esana da: *lehenengo kooperatibistak eta gero kooperatiba*. Mundukideren ideia hori da; Mondragon esperientzia munduan zehar eramatea, eta horregatik, pertsonetan zentratu gara. 100.000 pertsonarekin lan egin dugu, zuzenean edo zeharka, eta haien bizi baldintzak hobetzen lagundu dugu, haien gaitasunak sustatu ditugu eta horrek eragina izan du euren erakundeetan eta herrietan edo komunitateetan.

Josu Urrutia. | L.K.

Zer egin nahi duzue hurrengo?

Epe laburrean, Hego Ameriketan beste programa bat zabaltzeko intentzioa dugu, eta horren identifikazio prozesuan gaude, 2016an martxan egon dadin; eta Mozanbikeko programaz aparte, 2017an Afrikan beste programa bat zabaldu nahi dugu, Tanzanian.

"Hemengo pertsonekin, hangoei lagundu nahi diegu"

Pabiloia saltzen da Oñatin

- Zatigarria den 300 m2-ko beheko solairua, malgukiak dituen bi aterekin. Erdigunean.
- 80 m2-ko bulegoa goiko solairuan, sarrera independentearekin. Klimatizatua.
- 40 m2-ko tarteko solairua.

618 47 14 82

Olaia Jimenez eta Nagore Ipiña, Mondragon Unibertsitateko ikasketa erdi-presentzialen koordinatzaileak.

"Hezkuntza ikasketa erdi-presentzialek '*on line*' ikasteko aukera ematen dute"

Hezkuntza ikasketa erdi-presentzialak eskaini dituzue. Zer esan gura du horrek?

Gure ikasleek aukera dute ikaste prozesua on line egiteko, bizitzako beste kontu batzuk tarteko ezin dutelako eskoletara etorri. Horri, baina, gehitzen dizkiogu saio presentzialak edo aurrez aurrekoak. Hamabostean behin izaten dira saio horiek, eta *on line* zailtasunak dituzten kontuetan aurreratzeko eta sortutako zalantzak argitzeko dira. Izan ere, hainbat gai errazago ulertzen dira aurrez aurre. Aretxabaletako fakultatean izaten dira saio presentzial horiek, 18:00etatik 21:00etara.

Hiru ikasketa mota eskaintzen dituzue.

Bai, euskaraz guztiak. Graduak daude, batetik, eta ikasketak irauten duen lau urteak *on line* egin daitezke. Bestetik, bigarren gradua edo bigarren aipamena dago. Kasu horretan, Haur Hezkuntzako gradua ikasita duenak Lehen Hezkuntzako bigarren gradu bat heziketa fisikoko aipamenarekin egiteko aukera izango luke, adibidez, edo Hezkuntza Berezia ikasi duenak Lehen Hezkuntza atzerriko hizkuntzako aipamena egiteko aukera. Eta hirugarren modalitatea da egokitze kurtsoak. Horien helburua da garai baten Irakasle ikasketak, diplomaturak egin zituzten haiei aukera ematea orain gradu bat lortzeko.

Hortaz, aurretik titulu bat dutenentzat dira?

Hori da, gradu bat edo lizentziatura bat dutenentzat. Baina badago aukera ziklo bat egin dutenentzat ere; adibidez, Haur Hezkuntzan ziklo bat egin eta ondoren eskarmentua izanez gero, *on line* ikasketetarako ezarritako sarrera baldintzak beteko lituzke. Uste dugu 18 urterekin hobe dela presentzialetara etortzea, baina ondoren, behin heldutasuna eskuratuta, ikasketak beste kontu batzuekin bateratzeko aukera ematen dugu.

Ez da derrigorra aurretik hezkuntza ikasketak eginda izatea, ala?

Ez. Graduak on line modalitateak aukera ematen die aurretik beste ikasketa batzuk eginda dituztenei, ingeniaritza, pedagogia edo soin hezkuntza, esaterako. Aurretik egindako ikasketa horren arabera ezberdina izango da bete beharreko kreditu kopurua edo ikasturte kopurua. Izan ere, pedagogia eginda datorren batek baditu hezkuntzaren gaineko oinarri batzuk; horregatik, materia batzuk baliozkotu eta hiru urtean bukatzeko aukera dago.

> "Titulu bat dutenentzat dira eta hiru modalitate daude"

Beti norberaren erritmoa errespetatuta.

Hori da. Argi izan behar da ikasteko beste eredu bat dela *w*; denbora behar da egokitzeko, denbora behar da lan egiteko eta diziplina behar da aurrera egiteko. Era berean, abantailak ditu, hain zuzen, norberak ezartzen duelako lan erritmoa. Ikasketa erdi-presentzialak bereziki profesionalei bideratuta daude, lanean dabilen batek egin ahal izateko, nahiz eta zabalik egon ikasketak bukatu orduko beste gradu bat edo aipamen bat ikasi gura dutenei ere.

Zelako harrera izan ohi dute ikasketa erdi-presentzialek?

Oso ona. Lehenengo, hasi ginen egokitze kurtsoekin eta jende asko gerturatu zitzaigun orduan. Ondoren, eskaini genuen bigarren gradua, eta horrek ere harrera ezin hobea izan zuen; eta berriena da graduak on line. Horrek lan handia eskatzen digu guri; izan ere, kreditu asko dira, denbora luzea da eta ikasleak ondo zaintzea eskatzen du. Baina benetan merezi du ahaleginak, eta oso pozik gaude.

Honen guztiaren berri emateko ate irekiak egingo dituzue.

Maiatzaren 23an izango dira, zapatua, 11:00etan, Aretxabaletako fakultatean. Interesa duten guztiak daude gonbidatuta eta edozein argibidetarako ere bertan gaude, MUra deituta gu beti laguntzeko gertu.

Eguazteneko saioan, adituak eta San Juan de Dios ospitalekoak. | J. DOMINGO

Psikiatria, goren mailako doktoreekin

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

Bigarrengoz psikiatria jardunaldiak antolatu dituzte Arrasateko San Juan de Dios ospitalean. Bi egunez, osasun arloko 60 bat profesionalek, goizez eta arratsaldez, Henri Ey psikoanalista eta psikiatra frantsesaren modelo organo-dinamikoa aztertzen jardun dute, arlo horretan goren mailakoak diren doktoreekin, Humberto Cassarotti uruguaiarrarekin eta San Juan de Dios ospitalean lanean diharduen Ricardo Testa argentinarrarekin.

Kasu klinikoetan oinarritu dira doktoreak, eta horiek aztertu dituzte, ikuspuntu teorikotik eta praktikotik. Hain justu, praktikotasunari garrantzi handia eman diote.

Ilunpeetatik ateratzen

Esandakoen artean, besteak beste, azpimarratu dute urteetan psikiatria ilunpean egon den arren pixkanaka hobeto ezagutuz joan dela arlo hori, eta tabu izan diren hainbat gaitz gizarteratu egin direla. Zentzu horretan, Cassarotti doktorearen arabera, egun ez daude lehen baino buruko gaitz gehiago, baina, ezagututa eta sailkatuta daudenez, gaixo kopuruak gora egin duela dirudi, beti hor egon diren arren.

Nepalen alde laguntza biltzen dabiltza Eroskin

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Nepalgo lurrikarek kaltetutako biktimei laguntzeko dirua biltzen dabil Eroski kooperatiba asteotan. Hain justu ere, Unicef fondora bideratuko dute dirua; beraz, Nepalgo ume biktimei laguntzeko erabiliko dute batutakoa.

"Erosketa ordaintzerakoan, kutxetan bertan ematen da laguntzara bideratu gura den diru-kopurua. Hain justu, kutxako langileari adierazi behar zaio zenbateko hori erosketa ordaindu aurretik, eta kutxako langileak erosketaren kopuruari gehitu egingo dio laguntza", esplikatu du Ana Calvok, Arrasateko Eroski Hipermerkatuko gerenteak.

Orain arte 450 euro

Asteotan ibili dira diru laguntzak batzen eta aurrerantzean ere hala segituko dutela aditzera eman du Calvok. Eta baita ere kopururik handiena joan den zapatuan batu zutela. Hain justu, Arrasaten dagoen Nepalgo komunitateak, emakume musulmanen integraziorako IMME elkartearen babesarekin, bertako jakiak prestatzen ibili zen eta horrek laguntza handiagoak batzen lagundu egin zuen.

Eraikinek osasunean duten eragina aztergai, eraikuntza jardunaldietan

KOMUNITATEA GOIENA
ARIZMENDI IKASTOLA | ARRASATE

Maiatzaren 22an egingo dira, Arizmendi Ikastolaren Lanbide Heziketak antolatuta, XXI. Mendeko Etxebizitzen jardunaldiak Kulturaten (Arrasate) 09:00etatik 14:00etara. Berrikuntzarik egongo da: karezko mortairuei buruzko ikastaro batekin osatuko dituzte jardunaldiak. Aurreko urteetan bezala, eraikuntzaren sektorean aritzen direnei ez ezik, gainerako interesatuei ere zuzenduta daude.

Eraikuntza eta osasuna

Bioeraikuntzari buruz jardungo dute, aurten, zortzi hizlarik. Bioeraikuntzaren baitan, eraikuntzen kalitateak osasunean nola eragiten duen izango dute hizpidegai horretan aditu diren profesionalek, hain zuzen. Baina horretaz gain, aurten, ikastaro praktiko bat ere egingo da. Aurreko egunean, ikastolaren Umezaintzako gunean lastozko etxola bat eraikiko dute Ekokaleak lehiaketan parte hartu duten estatu mailako eraikuntzako ikasleek, eta jardunaldien osteko egunean, larunbatean, etxolari akabera emango zaio, karezko mortairuak erabiliz. Ostiraleko jardunaldietan hizpide izango dute jarduera praktiko hori.

Zortzi hizlari, bi alemaniar

Zortzi aditu bost hitzalditan hizlari, eta honako hauek gaiak: *Etxebizitzaren eragina osasunean* (Amaia Iriarte, medikua); *Bioeraikuntzako balore osasungarriak eta neurketa metodologia* (Mikel Martinez eta Aitor Axpe, arkitektoak eta neurtzaileak); *Eraikuntza ez jasangarriaren kostea* (Ana Belen de Isla, LKSko arkitektoa); *Akabera naturalaren abantailak pertsonaren osasunean* (Paloma Folache eta Alfonso Zabala, bioeraikuntzan adituak) eta *Autoeraikuntza jasangarria. Nola eraiki etxe jasangarria legea betez* (Petra Jebens eta Alfred Zirkel, bioeraikuntzan adituak). Azken biok Alemaniatik etorriko diren adituak dira bioeraikuntzan. Jardunaldietako atseden aurretik Ekokaleak lehiaketaren sari banaketa egingo da. Estatu mailako ikastexteetatik etorritako gazteak bertan egongo dira.

Bestalde, Arizmendi Ikastolaren Umezaintzako guneak negutegia eta ortua dituela aprobetxatuta, etxola eraikiko da bertan. Maiatzaren 21ean, egingo da lehenengo zatia eraikuntzako ikasleen eskutik, haurrek beraiek buztinarekin paretak osatuz, eta zapatuan, Umezaintzan bertan azken lanak egingo dituzte, etxolaren amaiera emanez karezko mortairuak erabilita.

ZABALIK

AMETS BELTRAN DE GEBARA AREXOLALEIBA
goiena.eus/komunitatea/

Amantalez eta katedraz

Jakina da botere harremanez josita dagoela gure jendartea. Esparru guzti-guztietan daude/gaude garaile eta garaituak, "bertakoak" gailentzen dira bestelako jatorria dutenen gainetik; helduak gazteagoen gainetik, eta gizonak emakumeen gainetik, nola ez. Logika horiek zenbaitetan naturalak dirudite, berezkoak, sakratuak, aldatu edota eraldatu ezinekoak.

Baina sinetsita nago badagoela bestelako moldeetan antolatzerik; harreman horizontalak eta parekideak zentzurik eta zabalenean sustatzetik abia daitezkeenak. Interesgarria suerta daiteke, nork bere eremuan, nor zapaltzen edo mendean hartzen duenaz gogoetatzea.

Logika horiek naturalak dirudite, berezkoak, sakratuak...

Bestalde, askotan pentsatu izan dut emakumeok, botere harreman hauek hausteko saiakeran, balio/jarrera maskulinoetara gerturatzeko tentazioa izan dugula maiz; "maskulinotzetik" eraiki nahirik bezala berdintasuna. Zentzu batean ulertzekoa da horrela izatearena. Izan ere, inkontzienteki bada ere, "behekoak" dauka "goikoaren" parean jarri guran menpeko hartzen dituen horien jarrerak imitatzearen beharra. Goikoak, aldiz, behera jaisteko premiarik ez. Eta orekatze saiakera horretan agian emetasunarekin lotzen diren balioak ez dira behar bezainbeste baloratu; zainketa, autonomia, goxotasuna edota emozioekin lotutakoak, besteak beste. Nire asmoa ez da jarrera hauek hartzearen ardura emakumeei leporatzea. Horixe besterik ez genuen behar. Sistema patriarkalak emakumeak kokatu gaituen lekuan dago gakoa, eta zergatik ez errua ere.

Botereari buruz gabiltzalarik, ez gara engainatuko. Ez dago berdintasuna lortzeko modurik, gizonezkoek gizon izate hutsagatik dituzten pribilegioei uko egingo ez badiete.

Eta gai honen bueltan, oso interesgarria iruditzen zait Jokin Azpiazuk gizonei luzatzen dien galdera: amantalak jantzi eta katedrak kentzera animatzen?

USTEAK USTE

LARRAITZ ZEBERIO | lzeberio@goiena.eus

Ez dago adinik ikasteko

Polita izan da irudia; erretiratuak eskolako ikasmahaietan eserita eta ikasleak haiei azalpenak ematen. Bergaran, Antzuolan eta Elgetan egin dute *Elkarrekin ikasi* ekimena, eta, belaunaldi ezberdinak elkartzeaz gain, ezagutza elkar trukatu dute. Eta argi dago badagoela zer trukatu, norabide batean zein bestean. "Nola komunikatzen zineten lagunekin txikitan?", galdetu du sarrera moduan Elgetako ikasle batek mugikorraren erabileraren inguruko tailerrari hasiera eman aurretik. Imajinatzen duzue erantzuna: "Guk? Etxera joan, deiadar egin eta hala... kalera irteten ginen danok!". Eta pentsatzen dut nire 8 urteko ilobak lagunen Whatsapp taldea duela.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE | goiena.eus/komunitatea/

HANDIK ETA HEMENDIK

Euskal hedabideak, zenbaki bat baino gehiago

Alberto Barandiaran
Hekimeneko zuzendaria

Iristea eskatzen zaie euskal hedabideei.

Zabaltzen dituzten edukiek izan ditzatela kontsumitzaileak.

Normala: hedabideek komunikatu egin behar dute, eta bestaldean hartzailerik ez badago, bozgorailu mutuak dira.

Baina iristea ez da norabide bakarreko bidea.

Iristea eztabaida eragitea da, mezuei oihartzuna ematea, hiztun komunitatea elikatzea, sareak ehuntzea.

Horregatik, bai, zalantzarik gabe: euskal hedabideak iristen dira.

Balio soziala hor dute.

Eta Hekimen osatzen duten euskal hedabideetan sinetsita gaudenez administrazioen ahalegina ezinbestekoa dela sendoagoak eta hobeak izateko eta, ondorioz, gehiago eragin eta jende gehiagorengana iristeko, bilera dinamika bultzatu dugu Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin, politika eraginkorragoei buruz eztabaidatzeko.

Gure dimentsioen eta gure ekarpenaren diagnostikoa egin nahi dugu.

Irakurketa adostua egitera iritsiko bagina, diru laguntzez hitz egiteari utzi eta inbertsioez hitz egiten has gintezke.

Zenbakiez ez ezik, balioez ere mintza gintezke.

Ezin baitugu kezka ezkutatu.

Lan baldintza prekarioetan ari dira euskal kazetariak, eta sektoreak lanak ditu urtea gainditzen duten inbertsio edo sustapen egitasmoetan sartzeko.

Politika iraunkorragoak behar ditugu administrazioetan, begirada luzekoak. Horretarako modu bat izan daiteke helburuak eta bideak partekatzea. Lehen urratsa egin dugu.

Desberdintasunak markatzeko, non gauden adierazteko, identitatea sendotzeko.

Zu hor eta ni hemen: elkarren ondoan dauden bi errealitate bereizten dituen irudizko marra bat da muga.

Gure irudimenak eta gure interesak trazatua.

Mugek ez dute prentsa onik.

Baina egon, badaude.

Injustiziak markatutakoak dira nabarmenenak.

Alderdi tradizionalen ezkerraren eta eskuinaren arteko muga lausoegia zaie nonbait, eta Podemos-ek goiaren eta behearen artean trazatu du bere muga; Riverak, gazteen eta zaharren artean.

Edozer egingo lukete alderdi tradizionalengandik bereizteagatik.

Baina asmatu dutena ez da ezkerra eta eskuina baino praktikoagoa.

Ezta zorrotz argiagoa ere.

Izatekotan ere, oportunista da. Ezkerra-eskuinak jarrera soziala du muga, egintza politikoaren funtsa: ezkerrak uko egin dionean injustiziaren muga markatzeari, bere politika lausotu da eta ezabatu; ez, ordea, traizionatutako marra.

Mugak

Anjel Lertxundi
http://goo.gl/IN6Emk

Izaki mugatuak gara eta mugak jartzen ditugu.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Lehendakaria Aitor Izagirre
Zuzendari nagusia Iban Arantzabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailetako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
Argazkilaria Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia.
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berriak@goiena.com

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09
publi@goiena.com

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale
Difusioa: 19.951 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia · Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala · Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

GUTUNAK

Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak dira: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa.
Gutuna helarazteko bideak dira: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

Itsasora, herren baino

Iñaki Idigoras Igartua
Oñati

Udaberriko igandez Donostian, Urumea parean, sufrimenduzko aurpegi irribarretsu bat dakusat. Ez oinez, ezta korrika ere, tinko itsasorantz. Irribarrea negu ilun osteko eguzkiak eta brisak ematen diola irudikatu dut. Tinkotasuna, berriz, bide onean doan sentsazioak. Parean pasatzean, baina, irribarrean sufrimendua antzeman diot. Orduan konturatu naiz: herren dator, esfortzuan, hanka biek ez baitiote berdin laguntzen.

Hauteskundeak gainean ditugu. Lau urte badira Oñatin inflexio puntua izan genuenetik. Iparra finkatu, eta borondate haizea ekarri digu gobernu talde berriak. Egiteko erak eraldatuz. Eraginez. Tinko, bide onean doan sentsazioz. Herren, oposizioak lagundu ez diolako.

Lau urteko aro berri honetan haziak erne dira. Oñatiarrok biziberritu gaitu, eta oposizioa ere bai. Poztu nau partaidetza keinuak eta aurpegi berriak ikusteak.

Bejondeizuela 2011-2015 tartean testigua eraman duzuenoi. Herrena sufritu arren, lau kilometro latz bete dituzue, kemena lagun. Leku berean bueltaka baino, nahiago bide onean aurrera herren egitea, sufrimenduzko irribarrez.

Nire desioa da datorren agintaldia, herren baino, ezker-eskuin sinkroniaz egitea. Elkar zangotrabatu gabe, arin, aurrera.

Hanka biekin egitekoa baita duintasunerako bidea. Itsasorakoa.

Aintzane Oiarbideri erantzunez: Txina ez, Bergara bai

Txus Markez
Bergara

Jaurlaritza "enpresarekin aritu zen lantegia ez ixteko lanean, hori zen helburua", esaten duzu, Aintzane. Lotsagarria iruditzen zait horrelako zerbait publikatzea, Candyn lanean egon garenon egoera zein den ikusita. Lan horren berri zergatik ez diguzue eman? Fruiturik eman al du lan horrek? Guk dakigun bakarra da enpresako kontuak auditatzeko eskaera egin geniola Jaurlaritzari, uste baikenuen kontuak manipulatu zituztela, eta oraindik ez dugu erantzunik jaso. Erantzun ere ez, aizu.

Gure egoeraren erantzule bakarra Candy multinazionala eta multinazionalei edozer egiteko aukera ematen dien legedia da. Dirua eman inolako bermerik eskatu gabe. Eta langileok egindako borrokari esker berrindustrializazio prozesu baterako aukerak lortu genituen. Diputazioak eskaini zuen alternatiba bat, bide posible bat, azkenean gauzatu ez dena. Horrelako planteamenduak deslokalizazio prozesuetarako egokiak direla pentsatzen jarraitzen dugu. Eta horretan guztiorretan, langileok genuen azken hitza; hau da, langileok genuen azken erabakia edozein proiektu onartu-baztertzeko.

Langileok gure auziaren erabilpena salatu genuenetik, zuek izan zarete medioetan agertu zareten bakarrak, eta zure idatzia bera da Candyko auziaren erabilpen politikoaren adibide garbiena.

Hala ere, oraindik Bergaran lanpostuak lortzeko itxaropena mantentzen dugu. Horretarako, beti esan duguna berresten dugu: guztion elkarlana, guztion konpromisoa beharrezkoa da. Zuena ere bai.

Agintaldiaren balorazioa

Inazio Azkarragaurizar Larrea
(Arrasateko alkatea)
Arrasate

Gaurkoa azken osoko bilkura denez, bukatu aurretik agintaldi honen balorazio txiki bat eta aipamen batzuk egin nahi ditut.

Momentu hau aprobetxatu nahi dut, lehenengo eta behin, eskerrak emateko herritarrei, udal langileei, parte hartu duzuen oposizioko eta Gobernu kideei. Neurri batean, denon artean lortu dugu gauzak aurrera ateratzea eta, azken finean Arrasate, hobetzea.

Tokatu zaigun agintaldia ekonomiaren ikuspegitik bereziki gogorra izan da. Lau urteok gertakari ekonomikoz josita koak izan dira; loteriarena salbu, beste guztiak denontzako notizia gordinak izan dira. Egoera zaila izanda ere, baina, pertsonen arazoei erantzuteko ardurari lehentasuna emanez Udalean indarrak atera ditugu.

Gainera, 2011n Udalean geneukan zorra nabarmen jaitsi dugu.

Hori ere ganoraz egindako kudeaketari esker izan da.

Halaber, ezberdinen arteko akordioa lortzen ere saiatu gara, horixe izan da gure beste erronketako bat. Eta hari horri helduta, arian-arian, agintaldi honetan ekimen garrantzitsuak aurrera atera ditugu: proiektuak, Enplegu Plana, Plan Orokorra, TAO, hondakinen akordioa, Euskaran Elkarlan Hitzarmena, eta abar, eta abar.

Eta ezberdinen arteko hariari tiraka, beste ur sakonago batzuetan ere murgiltzera atrebitu gara: bizikidetzan eta gatazkaren konponbidean Arrasaten ere pausotxoren bat ematen hasteko, saiatu gara planteamendu bat egiten oinarrizkoak diren puntuok lantzeko:

-Gatazkaren konponbiderako guztien arteko elkarrizketa.

-Herritarren parte hartzea.

-Egia osoa eta kontakizun bermea.

-Akordio politikoak eta sozialak bultzatzea.

Pertsona guztien giza eskubideak, bake eta bizikidetza egoera egonkorra defendatu ditugu, eta, beraz, espetxe politikaren salbuespen egoera amaitzea eskatu dugu, herri honetan gehiengoak aldarrikatzen duen bezala.

Baina, beste arlo batzuetan aurrerapauso garrantzitsuak eman ditugun arren, gai honetan ez dugu lortu eta garbi dago Arrasaten berriz ahalegindu beharko dugula bizikidetzaren tresna horri heltzen hasteko.

Beste proiektu eta asmo batzuk mahai gainean gelditu dira, baina, bueno, bizitza ez da gaur bukatzen, eta aurrerantzean jarraitzen dutenek izango dute aukera aurrera egin eta adostasunak lortzeko.

Azkenik, hemen jarraitzen duzuenei, baita jarraitzen ez duzuenei ere, gure lankide izan zen Raquel Diaz ahaztu gabe, denei, bihotz-bihotzez, zorionak eman nahi dizkizuet eta zorte on ibilbide berrirako.

Mila esker guztioi!

Aintzane Oiarbideri

Agurne Barruso
Bergara

Dudatan egon naiz pasa den asteko zutabeari erantzun edo ez. Baina egia azaltze aldera...

Makurra iruditu zait Aintzanek bere zutabean nire izena jarri izana. Zer behar zuen horretarako?

Ni udal-hauteskundeetan EH Bilduren hautagai izatea eta zutabearekin nire hautagaitza kaltetu nahi izatea da izan dezakeen arrazoi bakarra. Candyren afera hauteskunde-interesen mesedetan erabili nahi izatea, arerioari kalte egiteko. Horrelako zitalkeriarik ez nuen espero.

Hautagai izateaz gain, diputatu nagusiaren kabineteburua ere banaiz, eta ez diot muzin egingo honek dakarren erantzukizunari kargua utzi artean. Ez Candyren proiektuan, ez esku artean ditugun besteetan ere.

Jaurlaritzarekin ez dugula elkarlanik nahi izan diozu. Gezurra. Frogatzeko azken elkarrizketa ekarriko dut: apirilaren 23an neuk Jaurlaritzako Industria zuzendariari egindako bilera eskaerari maiatzaren 4an erantzun zion: "Helburu nagusia Scootel proiektuaren informazioa jakitea zen… Egoera hau konponduta gelditu zen… informazioa ematen hasi zenean. Beraz, maiatzaren 8rako proposatzen duzun bilera beste data baterako uztea egoki deritzogu…". Hau da, Jaurlaritzak duen helburu bakarra informazioa jasotzea da; hori eman diegu, eta, beraz, elkartzeko beste arrazoirik ez du. Nork nahi du elkarlana eta nork ez?

Langileek ez dutela inolako informaziorik izan diozu. Gezurra. Zelan ez dute izango, erabakiak eurek hartu behar badituzte?

Urriaren 31n elkartu ginen lehen aldiz komitearekin. Urritik, gutxienez, hamaika bilera egin ditugu eurekin, sei enpresarekin, hiru guztiekin eta beste hirutan joan gara langileen batzarrera. Eta jarraitzen dugu. Inoiz instituzio batek langileen ordezkariekin izandako harremanik estuena izango genuen Candyko langileen ordezkariek eta GFAk.

Jaurlaritzaren gestioetan GFA erdian sartu zela diozu. Trabarako balitz bezala. Zergatik interes hori proiektu honek porrot egiteko?

Ez erabili Candy hauteskundeetarako.

Utzi lanean horretan ari garenoi eta jarri zuek ere horretara ari garenak kritikatu beharrean. Zuen kanpainaren leloa kopiatuz, "ekinez egina"; ekin, ba!

Zorionez, oraindik bada egiteko bidea eta aukera. Nahi duzuenean landu dezakegu bide hau elkarrekin gauzatzeko modua.

Agurrak eta eskerrak

Joxe Etxeberria
Arrasate

Datozen udal hauteskundeak direla eta, batek baino gehiagok galdetu dit ea zergatik ez dudan nire burua berriro ere aurkezten zinegotzi izateko, argitaratu edo eta jakin diren zerrendetan ez naiz agertzen eta.

Dena dela, eskerrak emanaz hasi behar dut eskutitz hau. Eskerrak, niregan itxaropena jarri zenuten guztioi, zuen botoa emanez. Eskerrak, Aralarren hiru zerrendatan –hiru aldiz aurkeztu baikara– nirekin batera agertu zaretenoi, zuen izen eta izana ezinbestekoa baitzen zinegotzi bakarra ateratzeko ere; eskerrak, zuen iradokizun eta kritikak, zuzenean eta modu eraikitzailez, luzatu dizkidazuen hainbesteri.

Diodan moduan, hiru aldiz aukeratu nauzue zinegotzi –12 urtez izan naiz Udalean– baina, nire uste eta gogoan, azken lau hauek izan dira aberatsenak: ez bakarrik Udal Gobernuko partaide izan naizelako, 2011-2015 tartean izan den Gobernu Taldearen jarrera eta lorpen anitzengatik ere. Inoiz ez da jende guztien gustua egiten, dudarik ez, baina benetan aberasgarriak izan dira azken lau urte hauetan erabilitako moduak: uneoro jendearen parte hartzea egiaztatzen egin den ahalegina hor dago, eta orok parte har dezan ahalegin hori benetakoa izan da: ez bakarrik gu bezala pentsatu edo "gure bidean" zegoen jendea kontuan hartuta. Egia da batzuek ez dutela parte hartu nahi izan, baina gure aldetik ahalegin berezia egin da horretarako.

Hanka-sartzeak? Seguruena, baina egiten duenak izaten ditu erruak, ez ezer gabe gelditzen denak.

Bukatzeko, kontu pare bat: Iñazio alkateari eta Gobernu Ekipoari eskerrik beroenak ematen dizkiet. Alderatzea ezinbestekoa iruditzen zait oraingoan, eta orain bukatzen den agintaldi hau aurreko Udal Gobernuekin alderatuz, ezohiko jarrera positiboa hartu eta eman dute Iñazio alkateak eta Gobernu Ekipo osoak. Ados ez ginenean ere, errespetatua sentitu naiz. Azkenik, beste herri batzuetan Aralar EH Bildurekin doa oraingoan, eta hemen ez joatearen arrazoiak niregana hurbildu den orori eman dizkiot, eta emateko prest jarraitzen dut. Betiere, zuzenean, aurrez aurre, eta ez polemika antzurik sor dezakeen modu publikoan.

MAIATZAK 15, ostirala (Erretiratuen Eguna)

10:00 **Kanpai errepika** eta **kohete jaurtiketa**, jaiak hasi direla iragartzeko.
10:15 **Haurrentzako kirol-jokoak** auzoko eskoletan.
11:30 **Danborrada** Arizmendi ikastolako umeekin.
Meza nagusia San Isidro elizan. Ondoren, abesbatza eta herritarrentzat luntxa.
14:00 **Baserritarren bazkaria**.
17:00 **SPINNING MASTERKLASA**, Musakolako kiroldegian, kanpoko patinaje aterpean.
Monitore adituak. Izen ematea kiroldegian.
17:30 **Txokolate eta bollikao** banaketa 12-17 urteko gazteentzat.
Haurrentzako tailerrak 3-12 urte bitarteko haurrentzat, gazte txokoan.
18:30 Gazteentzako **jokoak**, gazte txoko kanpoko patioan.
19:00 **Ikurrina igotzea**. Buruhandiak gaitariekin batera. Alkatetzatik gozokien jaurtiketa.
Txapela eta zapia ikurrina igotzean jantziko ditugu.
19:30 Auzoko **erretiratuentzako jai-afaria** Al–Andalus kultura elkartean.
22:00 **Bolo txapelketa** bolatokian, San Isidro elkartearen ondoan. Izen ematea, bolatokian.
23:00 **Rock kontzertua**: Kadena Perpetua eta Screamers et Sinners. San Antolin plazan.
24:00 **+ beranduago BER-TA-RA**

Egun osoan kohete jaurtiketa

MAIATZAK 16, larunbata (Koadrilen Eguna)

10:00 Eguzkia eta eguraldi ona.
10:00-14.00 **Gimnasia erritmiko** erakustaldia Musakolako kiroldegian.
11:00-12:00 **Kalejira** Arrasate Musikaleko **Gaiteroekin**.
11:00-13:00 **Gazteendako jolasak**. Gaztetxoko kanpoko patioan.
11:30-13:30 **Puzgarriak** San Antolin ikastolan.
12:00 Umeendako **asto jaia**, auzoko herri eskolaren inguruan.
Herri txikiteoa, gaitariek alaituta.
Erretiratuen etxeko tabernatik irtengo da astoa. Mesedez, ordurako azaldu.
12:00 Auzoko **tenis txapelketaren finala**. Musakolako kiroldegian.
13:30 Mundu osoko kategorian, **Urrezko Astokiloak** eman eta jartzea.
14:00 Aurten ere ez da egingo manifestazio ofizialik, edo bai.
15:00 **Herri bazkaria** San Isidro eliza ondoan (eguraldi txarra eginez gero, aterpean).
Musakolako txarangak alaituta. Bazkari-txartelak erosteko: Ziorla, Meneta eta Txinato tabernetan.
Zozketak eta jai zoroa izango dira.
16:00 **Gazteendako jolasak**. Gaztetxoko kanpoko patioan.
17:00 **Herri kalejira**.
17:00-20:00 **Puzgarriak** San Antolin ikastolan.
18:00 San Isidro **sokatira** sari nagusia
1. Bildotsa.
2. Urdaiazpikoa eta xanpain sorta.
3. Urdaiazpikoa.
4. Xanpain sorta.

19:00 Arrasate Musikaleko haize-egur taldearen, banda eta orkestra gaztearen kontzertua
Santa Teresa elizan.
19:30 **Buruhandiak** gaitariekin batera.
23:00 Euskal Herriko DJ hoberena: **DJ Amaia** San Antolin plazan.
Berbena San isidro eliza ondoan, KAIXO taldeak alaituta.
Gauerdian Hainbat **moda-ikuskizun auzoko pertsonaia xelebreenekin**.

MAIATZAK 17, igandea

10:00 Eguzkia eta eguraldi ona.
11:00 -13:00 **Puzgarriak** San Antolin ikastolan.
12:30 **Txikiteoa**, Arrasate trikitixa eskolak alaituta.
17:30 **Zezentxoak** San Antolin ikastolako patioan.
18:30 **Kalejira** Arrasate trikitixa eskolak alaituta.
22:30 **Azken traka** Paseo Maritimoan: suzko erruberak, sorpresa ikusgarria, agurra eta amaiera.

Datorren urtera arte.

AUZOKO ARTISTEN ESKULANEN ERAKUSKETA
Ostiralean, larunbatean eta igandean, Musakolako erretiratuen egoitzako lehen solairuan, auzoko artisten eskulanen erakusketa izango da.

VIRGINIA ile apaindegia • **ARIGARA** iturgintza • **GOI SOLUTIONS** • **ATSEGIN** okindegia kafetegia
EGUREN arraindegia • **UDALAITZ** • **ILUNA** taberna
IMANOL BIETEK iturgintza eta energia berriztagarriak • **IOSU** taberna • **JEY JULIWER** taberna
ESTRELLA taberna • **MENETA** taberna • **TXINATO** taberna
ZIORLA taberna • **GAINDEGI** jatetxea • **BEBERLY** taberna • **MUSAKOLA** estankoa
ZIORLA frutadenda • **LIRAIN** ile-apaindegia

Ondo pasa jaiak!

HERRIAK

ARAMAIO

Martin Altzaga Olabarria, aramaioar semea. | GOIENA

Politikari aramaioar polemikoa Argentinan

- Aramaioko Ibargoia kalean jaio zen Martin Altzaga Olabarria
- Buenos Airesko Plaza Nagusian urkatu zuten 1812ko uztailean

MIREN ARREGI | ARAMAIO

Aramaioko familia xume baten jaioa, Buenos Airesko alkate izana eta hango Plaza Nagusian urkatua. Merkatari ezaguna eta politikari esanguratsua, Martin Altzaga Olabarria Ameriketara egin zuten euskaldun horietako bat da. Ez edozein, boterea eta aberastasuna bizi izan baitzituen: "Aramaioko Ibargoiatik Buenos Airesko Plaza Nagusian urkatua izateraino; ibilbide luze eta ertzez beterikoa, aramaioar peto bati egokiturikoa, beti aurrera begira eta unean uneko interesei zeharo lotua". Modu horretan hasten du Josemari Velez de Mendizabal herrikideak Martin Altzagaren gainean idatzitako artikulua. Enrique Williams Altzaga historialariak honela deskribatzen du: "Altzaga ez zen demokrata izan, absolutista baizik; agintari bakar eta gorena bilakatu gura izan zuen bere burua".

Merkatari aberats

1755eko azaroaren 11n jaio zen Martin Altzaga Olabarria, Juan Francisco Altzaga Munarbe eta Manuela Olabarria Madina aramaioarren semea. Antza, Juan Franciscoren anaia Ameriketara joana zen, eta, sendiaren ekonomia larriak behartuta, Martinek, 12 urte betetzeke, Argentinako bidaiari ekin zion: "Platara iritsi zen espainieraz tutik ere jakin gabe, eta Gaspar de Santa Coloma merkatariaren aginduetara aritu zen, bere lehen enpresa –Alzaga y Requena– sortu baino hamar urte lehenago", dio Velez de Mendizabalek. Buenos Airestik kanpo ere aritu zen merkataritzan, eta jardun etengabeak Rio de la Platako erregeordetzako gizonik aberatsena bilakatu zuen.

Familia eta sarea

Euskal jatorriko beste merkatari baten alabarekin ezkondu zen, Maria Magdalena Karrera Indarekin, eta hamalau seme-alaba izan zituzten: "Alaba zaharrena, esaterako, Martinen bazkide zen Jose Requena Larraondorekin ezkondu zen. Ikus daitekeenez, sare komertzial boteretsua ehundu zuen bere inguruan eta horrek guztiak sekulako ospea eman zion Buenos Airesko hiritarren artean".

Politikari polemikoa

1795ean Buenos Airesko Lehen Bozako alkate izendatu zuten; urte batzuetara, Frantziako Iraultzaren ideiak mundu osoan indarra hartzen hasi ziren, eta, zer esanik ez Argentinan, espainiar inperioaren lurretan. Bestetik, ingelesek Rio de la Platako erregeordetzako agintea eskuratu zuten 1806an. Martin Altzagaren eta beste batzuen lanari esker, bi hilabete geroago espainiarrek berreskuratu zuten boterea, eta, Altzagaren buruzagitzapean, ingelesen errendizioa lortu zuten: "Aramaioarra heroien mailara igoaraziz".

Buenos Airesen, baina, Fernando VII.a Espainiako erregearen kontrako bozak geroz eta ozenagoak ziren. Martin Altzagak espainiar aginduarekiko atxikimendua erakutsi zuen, eta, pixkanaka, Altzagaren ibilbide politikoaren gainbehera hasi zen. 1812an Buenos Airesen hasi ziren esaten Altzaga konspirazio bat prestatzen ari zela agintean zegoen triunbiratu haren kontra; hori zela eta, uztailaren 5ean atxilotu eta biharamun goizean fusilatu egin zuten aramaioarra, bere gorpua Maiatzeko Plazan zintzilikatu aurretik. Ustezko konspirazioan, baina, ezin izan zen Altzagaren esku hartzerik frogatu. Historialari gehienen ustez, triunbiratuak puztu egin zuen konspirazioaren neurria, Altzaga eta haren taldea erditik kentzeko.

Enrique Williamsen liburua. | GOIENA

Altzagaren etxea. | GOIENA

Altzagaren panteoia. | GOIENA



Erreferentzia aramaioarrari. | GOIENA

Plan Orokorra aho batez, agurraren osoko bilkuran

- Udal talde guztien arabera, "ona" izan da harremana
- Alkateak uste du adostasunaren agintaldia izan dela

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Agintaldia agurtzeko balio izan zuen martitzeneko osoko bilkurak eta Bilduk eta Aralarrek osatutako Udal Gobernuak, EAJk zein Alderdi Sozialistak azken lau urteen balorazio positiboa egin zuten orokorrean. Hartutako erabakien artean garrantzitsuena izan zen Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren (HAPO) behin-behineko agiria onartu zela, aho batez. Agiri berriaren behin-behineko onesperako egindako aldaketen alde bozkatu zuten talde guztiek.

Alkatearen esker on hitzak

Erabakiak erabaki, bilkuraren amaieran agintaldiaren balorazioa egin zuen Inazio Azkarragaurizar alkateak. Eskerrak emateaz gain, adostasunaren agintaldia izan dela uste du: "Eskerrik asko herritarrei, udal langileei, Udal Gobernuari eta parte hartu duten oposizioko kideei. Gai garrantzitsuak adostasunarekin atera dira aurrera eta hori garrantzitsua da. Elkarrizketaren bidez adostasuna lortu izana denon meritua da". Gainera, azken lau urteotako akordio garrantzitsuenak zeintzuk izan diren ere aipatu zuen, besteak beste: "Hondakinen Mahaiaren akordioa oso inportantea izan da, urte eta erdi luze daramagu hor lan sendo egiten. Gaur [martitzena] onartu dugun Plan Orokorra ere garrantzi handiko proiektua da, herri osoa ukitzen du. Plan Orokorrarekin ere adostasuna lortu dugu, aho batez onartu da".

EAJ: "Elkarlana ona izan da"

EAJko bozeramaile Maria Ubarretxena ere pozik dago azken agintaldiarekin: "Udal taldeen arteko elkarlana ona izan da eta azpimarratuko nuke azken agintaldietako baketsuenetakoa izan dela". Horrez gain, azken lau urteotan Udalak hartu dituen neurrien artean bi nabarmendu ditu Ubarretxenak bereziki: "Bat izan da enplegu plana martxan jartzea. Aurrekontuetan guk proposatutako emendakinak onartu ziren eta enplegu plana martxan jarri zen. Uste dugu nahiko ondo funtzionatu duela, horren ispilu da hurrengo agintaldian ere planarekin jarraituko dela. Bestetik, Hondakinen Mahaiaren sorrera eta bosgarren edukiontziarekiko apustua daude. Hor dugu erronka, %70eko birziklatze-tasara heltzea, eta ez dut zalantzarik lortuko dela".

PSE-EE: "Asko hobe zitekeen"

Azkenik, 28 urtez jarraian zinegotzi izan den PSE-EEko Paco Gartziak ere esan zuen agur; agintaldian argiak eta itzalak ikusi ditu: "Indarkeriarik gabeko agintaldia izan da, errespetuarena. Horregatik borrokatu izan dugu askok, eta lortu dugu azkenean. Era berean, positiboa izan da taldeen arteko harremana. Hori bai, kudeaketari dagokionez asko hobe zitezkeen gauzak; ea hurrengo udalbatzak heltzen dizkien Arrasatek dituen askotariko arazoei".

M-24

EH Bildu: "Herritarrak egongo dira erdigunean"

J.B. | ARRASATE

Arrasateko EH Bilduk maiatzaren 9an egin zuen, Herriko Plazan, hauteskunde kanpainako ekitaldi politiko nagusia. Eneko Barberena alkategaiak, zerrendakideez inguratuta, programako oinarri nagusiak azaldu zituen. Barberenak programa osatzen lagundu duten 80 herritarrei, zerrendara gehitu direnei eta Udaleko zinegotziei eskerrak eman zizkien eta gogoratu zuen programa "parte-hartzailea" egin dutela eta dagoeneko herriko 60 bat eragile eta talderekin elkartu direla: "Herritarrak egongo dira erdigunean", gaineratu zuen.

Ekitaldian egon zen Gipuzkoarako ahaldungai nagusi Xabier Olano. EAJren kontra egin zuen: "Bilduk aurreko lau urteetan egindako proiektua zapuztera datoz, PSE-EEren eta PPren laguntzarekin eta eliteen eta *lobby*-en babesarekin. Edozer gauza adosteko prest dago EAJ, EH Bildu gobernutik kentzeko", esan zuen.

Ekitaldiaren osteko argazkia, Xabier Olano ahaldungai nagusiarekin. | I. SORIANO

M-24

MAIDER ARREGI

Arrasaterako "proposamen asko"

Arrasateko PSE-EEko alkategai Oscar Gartzia arrosak banatzen ibili zen hilaren 8an Laubideko azokan: "Gauzak egiteko beste era bat gura dugu, beharrak dituzten pertsonei ahotsa eman. Proposamen asko ditugu Arrasaterako", azaldu zuen, besteak beste.

M-24

JULEN IRIONDO

Etxegabetzeak gelditzea helburu

Irabazi-Ganar Arrasate koalizioko alkategai Juan Luis Merinoren arabera, etxegabetzeak izango dira euren lehentasuna. Debagoieneko Kaleratzeak Stop plataformak hogei kasu ditu esku artean, gehienak Arrasaten: "Arrasate izendatuko dugu etxegabetze gabeko udalerri".

Udaixen izena emateko azken eguna: maiatzak 29

J.B. | ARRASATE

Udal gazte txokoek gertu dute Udaixe ekimena, 12 eta 17 urte arteko gaztetxoendako "egitarau berezia". Uztailean ere aisialdiaz gozatzeko aukera izan dezaten, ekainaren 29an hasi eta uztailaren 17ra arte hainbat ekintza prestatu ditu Txatxilipurdik, eta, azken urteetako ohiturari eutsiz, ekintza horietako asko gaztetxoek proposatuko dituzte. Izena emateko edo argibide gehiagorako: gazte txokoetan zein erdiguneko gaztegunean, Txatxilipurdi elkartean (943 79 54 46) edota Gazte Bulegoan (943 25 20 65).

Festetan murgildu da Musakola, alaitasunak 'agintzen' duen auzoa

Sanisidroak ospatuko dituzte gaurtik domekara arte, askotariko ekintzekin

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Musakola ez da herria izango, baina ez da Arrasateko beste edozein auzo. Baieztapen hori ulertzeko aukera paregabea dago gaurtik hasi eta domekara arte, heldu dira-eta San Isidro jaiak: "Jaiak osasuntsu daude, izan ere, Arrasate herri alaia da eta musakolarrok bihotz onekoak gara. Iaz erabat harrituta geratu ginen etorri zen jende guztiarekin. Ea aurten ere hala gertatzen den, arrasatear guztiak gonbidatuta daude-eta gure herrira etortzeko", adierazi du asteon Musakolako auzo alkate Iban Goñik.

Petreñasi Urrezko Astokiloa eman osteko talde argazkia, asto eta guzti. | J.B.

Harreman ona arrasatearrekin

Giro alaia bermatuta dago, auzoko ereserkiaren gaztelerazko bertsioak ere badioenez: *Es en Ziorla donde reina la alegria, es en Ziorla donde reina el buen humor*... Eta noski, astoari gorazarre egingo diote beste behin –arrasatearren dragoiaren kalterako–, ereserkiaren euskarazko bertsioak jasotzen duenez: *Udalatx sortu baino askoz lehenagotik entzuten die arrantza eta orruak, "Dragoia, ez gero gure Ziorlan sartu" esaten dio astuak*. Abestiak abesti, arrasatearren eta musakolarren arteko harremana "ona" da gaur egun: "Ez dugu arazorik mondragoetarrekin. Pentsa, sanjuanetako danborradan hemengo konpainia batek ere hartzen du parte...", dio Goñik.

"Tsunami berdea"

Jai Batzordeak dena du gertu jaiek eztanda egin dezaten; gaur, 10:00etan, botako dituzte suziriak: "Urtarrilean hasten gara festak prestatzen. Gogorra izan da, baina gustura ibili gara. Ez da erraza adin guztiendako ekitaldiak antolatzea, eta lortu dugu". Duela hilabete batzuk jarri zituzten salgai jaietarako kamisetak –berdeak dira aurten– eta di-da saldu zituzten gehienak, auzotarrak festa gosez daudenaren adierazle: "Zerbait antolatzen dugunean jendea asko inplikatzen da, hori ez dut beste auzoetan ikusi. Sanisidrotan Musakola tsunami berde bihurtzea espero dugu. Kamiseta berriak atera ditugu eta 2016rako Musakola *Green Capital* izendatzea espero dugu", gaineratu du Goñik umoretsu.

Jaietako egitaraua osorik ikusteko: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.

Baserriko produktuen eskaintza zabala bihar Seber Altube plazan

J.B. | ARRASATE

Maiatzeko baserritarren azoka egingo da bihar Seber Altube plazan (09:00-14:00). Hil honetakoan ez da antolatu azokaren osagarri izateko ekitaldirik eta beraz, bertako zein kanpoko baserritarren produktuek hartuko dute protagonismoa. Hamabost postu egongo dira: Arrasateko bost, Debagoienetik zein beste eskualdeetatik etorritako zazpi eta beste hiru postu berezi.

Ezohiko produktuak

Postu berezien artean antolatzaileek azpimarratu dituzte Nafarroako Erriberatik etorriko diren ekoizleak: "Gurean aurkitzen ez diren produktuak erosteko aukera egongo da: berakatza, askotariko arrozak, zainzuriak, orburuak... Produktu interesgarriak dira", adierazi du Udaleko Enplegu eta Garapen Saileko teknikari Marga Garmendiak.

Otsaileko azoka; orduan zuhaitz mintegiak ere izan ziren. | IMANOL SORIANO

Datozen asteetarako hiru ikastaro Gazte Bulegoaren eskutik: txalaparta, hip-hop dantzak eta joskintza

Hiru tailer antolatu ditu Gazte Bulegoak: Ttakun taldearen txalaparta ikastaroa maiatzaren 18an hasi eta ekainaren 15ean amaituko da; *Urban dantza, hip hop* ikastaroa uztailaren 2tik 23ra; eta Dunixe Royok emango duen *Josiz, sortu eta apaindu* tailerra, azkenik, ekainaren 30etik uztailaren 21era. Ikastaro horietan izena emateko Gazte Bulegora deitu: 943 25 20 65.

Abaroak irteera antolatu du Amurriora maiatzaren 21erako; ekainean Alpe suitzarretara joango dira

Abaroa erretiratu elkarteak irteera antolatu du Amurriora (Araba) maiatzaren 21erako, eta oraindik lekua dago izena emateko; argibide gehiagorako deitu 943 79 81 57 telefono zenbakira. Amurriorako izena eman dutenek hilaren 19an jaso beharko dituzte txartelak, 11:00etan. Bestalde, ekainaren 14tik 20ra Alpe suitzarretara joango dira; lekua dutenek maiatzaren 18an, 11:00etan, pasa beharko dira Etxaluzeko bulegotik txartelak jasotzera.

San Juan jaiak girotzeko esaldi lehiaketa abiatu dugu hainbat eragilek hirugarren urtez jarraian

Arrasateko AEK-k, EHEk eta AEDk San Juan jaietako esaldi laburren hirugarren lehiaketa antolatu dugu, Udalarekin elkarlanean. Antolatzaileon helburua da, esaldi horren bitartez, arrasatearrak sanjuanak (ere) euskaraz bizitzera animatzea. Lanak aurkezteko epea maiatzaren 26an bukatuko da. Saria 100 euroko izango da. Argibide gehiago: 943 77 12 28.

NIRE USTEZ

GAIZKA ERAÑA

Hauteskundiak

Gure herriko hauteskundiak gaiñian dauzkagu eta hurrengo lau urterako botua eskatuko douskue. Alderdi bakotxak bere mezuak eta asmuak agertuko dau eta aukera euki ezkero beste hautagaiekin alderatuko dittu irrati, egunkari zein telebistatan. Oraingo honetan geurien ezker usaiñe daukien Baleike (Podemosen marka Arrasaten) eta Irabazi koalizioa (Ezker Anitza-IU, Equo, Alternativa Republicana, Independientes) aurkezten die lehenengoz. Alderdixetako zerrendatan herrixen bizi dien hautagai asko dau eta kanpuan bizi danik be topau leike. Denetan arrotzena PP alderdiak aurkeztutakue da: hautagaixen artien ez dau antza arrasatearrik. Bestalde esan geinke Irabaziko Merino izan ezik hautagaien adina bataz beste hogeita hamar urteren bueltan dauela.

"Adostasun zabalak lortu daixiela alderdikerixak alde batera utzitte"

Gauzak hola, ikustiar dau EH-Bilduk aurreko legegintzaldian lortutako gehiengo absolutua lortzeko gai dan edo beste alderdi baten edo batzuen botuen laguntza izan biharko dauen. Lerro honeitatik eskaketia gurako neuskie herritarren kezkei erantzuteko eta oiñarrizko kontuetan adostasun zabalak lortu daixiela alderdikerixak alde batera utzitte. Nire ustetan akabatziar dauen legegintzaldian zaborra erreziklatzeko lortu zan akordixua eredugarrixa izan da aldameneko herrixetan ikusitakue ikusitte.

Zorte on eta ia Arrasaterako onena danak irabazten dauen.

ARETO FUTBOLA

Amaiera perfektua eman nahi dio Mondratek ligari

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

Pasa den asteburuan lortu zuen Mondratek Gipuzkoako lehen mailarako txartela, Ataunen aurka 5-2 irabazi ostean. Hala ere, horrekin pozik ez, eta asteburuan jokatuko den finala irabazteko grinarekin daude Jon Zabaletaren mutilak.

Tolosarrak lehen postuan daude 53 punturekin eta arrasatearrak bigarren 52 punturekin. Esan bezala, datorren urterako txartela esku artean duten arren, ligako irabazle izateko gogotsu joango dira bihar, zapatua, Donostiara Arrasateko jokalariak. Denboraldian, birritan neurtu dituzte indarrak eta talde bakoitzak garaipen bana lortu du. Oraingoan, ostera, ligako azken jardunaldian denboraldi ezin hobeari amaiera perfektua ematen saiatuko dira Mondratekoak. Zabaletaren arabera, "irabazteko grinez bai, baina disfrutatzeko partidua" izango dela dio. Izan ere, azken partiduetan jokalari batzuek nahi baino minutu gutxiago jokatu dituzte eta Tolosarren aurka "guztiok disfrutatzea" da asmoa.

Gol gutxien jaso dituen taldea

Denboraldiaren arrakasta defentsan egon da, hein handi batean, gol gutxien jaso dituen taldea izan da-eta Mondrate; eta partidu bakoitza "azkena balitz bezala" jokatu dutela esan du Zabaletak.

Pasa den egubakoitzean Ataunen kontrako partidua. | IMANOL SORIANO

J.PEREZ

ATLETISMOA

Hirukoa, bikain Galizian

Ohorezko Mailan Reala ordezkatzen lan ona egin zuten asteburuan erretratuko hiru lagunek, Vigon. Pertika-saltoan, Jonathan Perezek sasoiko jarraitzen duela erakutsi zuen, eta hark irabazi zuen (4,80). Atzetik izan zuen ikaslea, geroago eta gertuago duena, Istar Dapenak ere 4,80 metroko marka egin zuen-eta –hirugarren–. Eta Iñigo Uribarrenek ere lan aparta egin zuen, salto hirukoitzean urrea jantzita.

MENDIA

Mendi martxa eta sagardotegia antolatu dute Besaide Mendi Elkartekoek beteranoentzat

Ekainaren 13an egingo dute Besaide Mendi Elkartekoek beteranoen XIV. martxa. Ibilbideak lau orduko iraupena izango du: Besabin hasi (302 metro), Etenetara igo (693 m), Onddora jarraitu (781 m) eta Adarran gaina (807 m); eta gero, Besabira bueltan joango dira. Martxa ondo amaitzeko, Gaztañaga sagardotegian egingo dute bazkaria mendizaleek. Izena emateko azken eguna ekainaren 5a izango da, 19:00ak eta 20:00ak bitartean. Elkarteko kide eta federatuentzat prezioa 46 euro da; bazkide ez federatuentzat 48 euro eta ez bazkide ez federatuentzat, 51 euro.

ZALDIBAR

SAILKAPENA

	A MULTZOA	P
1	Dribling 2.0	19
2	Abokajarro	14
3	Haizea's Weah	9
4	Betrayer	8
5	Jibaros F.C.	7
6	Arrasate taberna	1

	B MULTZOA	P
1	Sonografos	17
2	Aldatz	14
3	Lasagabaster	10
4	Alytis F.K 2.0	10
5	Ostantz	5
6	Drink Team	1

PARTIDUAK

MAIATZAK 16, ZAPATUA

10:00 Alytis FK 2.0 - Drink Team / **Betray.**
11:00 Haizea's Weah - Betrayer / **Alytis.**
12:00 Lasagabaster - Ostantz / **Haizea's.**
13:00 Dribling 2.0 - Abokajarro / **Ostantz.**

MAIATZAK 17, DOMEKA

11:00 Jibaros F.C. - Arrasate Tab. / **Sonog.**
12:00 Aldatz - Sonografos. / **Arrasate Tab.**

EMAITZAK

0-2	Aldatz - Alytis FK 2.0
8-1	Dribling 2.0 - Jibaros
3-6	Lasagabaster - Sonografos
7-3	Betrayer - Arrasate Tab.
10-6	Ostantz - Drink Team
2-6	Haizea's Weah - Aboka.

Los Galerna boskotea *Central Once* saioan. | CENTRAL ONCE

'Reverb'-aren indarrak hartuko du Taupa zapatuan

The Cavernariosekin batera kaleratutako lana da 'Sangre en el Atlántico'

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

Ordua heldu zaie Arrasateko maskaradunei euren azken lana etxean aurkezteko. Pasa den astean Valladoliden eta duela hilabete Mexikon *Sangre en el Atlántico* diskoa jendaurrean erakutsi ostean, Taupa tabernako terrazan izango da boskotea bihar, zapatua, 19:00etan.

Rock-and-roll instrumentala ikurtzat daraman taldearen laugarren erreferentzia da eta "gogo handia" dute Gaztelupeko Hotsak diskoetxearekin kaleratutako erreferentzia lagunen artean aurkezteko.

Instrumentalaren onarpena

"Kostata", baina, azkenik, surf instrumentalak "inguruan onarpena" lortu duela diote taldekideek. Duela zazpi urte jaio zen Los Galerna eta orduan entzule askok euren musika ez zutela "guztiz ulertzen" diote; askotan "abeslaria non dagoen" edo zergatik ez duten abesten galdetu dietela. Hala ere, ia hamarkada bat eta estudioko lau lanen ostean, "egoera aldatu" dela aitortu dute.

Taupako kontzertuan, gainera, diskoan kaleratutako kantuez gain, Mexikon grabatu zituzten *El Chafal* eta *Tacos de ojo* eta Silver Sounds estudioan grabaturiko *Pipeloma* kantuek ere argia ikusiko dute lehenengoz hemen.

'Sangre en el Atlántico'

Urtarrilean Bilboko Silver Sounds estudioan grabaturiko lana da *Sangre en el Atlántico*. Capsula taldeko Martin Gebara teknikariarekin egin dute lan eta "benetan pozik" daude emaitzarekin. "Soinu gordinagoa eta zuzenagoa" lortu dutela diote. The Cavernarios mexikarrekin partekatutako diskoa da; bakoitzak hiru kantu, "bi propio eta bestearen bertsio bat". Binilo formatuan kaleratu behar duten arren, aurkezpenerako ez dela helduko dio, penaz, boskoteak; CD formatuan izango dute, ordea.

ESANAK

"Soinu gordinagoa lortu dugu azken lan honetan; zuzeneko sentimendua hobeto transmititzen du"

JOKIN VITORIA | BATERIA-JOTZAILEA

Goikobalu Abesbatza Segoviara kantuan

J.B. | ARRASATE

Segoviako San Jose Obrero parrokian abestuko du, zapatuan, Arrasateko Goikobalu abesbatzak: "Abesbatzarendako pizgarri interesgarria izango da Segovian abestu ahal izatea. Astero birritan entseatzen dugu eta halako irteerek indarra ematen diote taldeari", adierazi du Juan Antonio Barriocanal abesbatzako presidenteak.

Koruko 40 abeslari –eta beste hamabi– joango dira asteburu osorako planaz gozatzera; lehen aldiz abestuko dute Segovian.

Abesti elizkoiak eta laikoak

Zapatuan irtengo dira Arrasatetik eta Segoviako ondoko herri baten hartuko dute ostatu, Torrecaballerosen: "Segovian asteburu horretan txotxongiloen jaialdi bat dago, eta, horregatik, ezin izan dugu ostaturik hartu bertan", dio abesbatzako diruzain Rosa Zubillagak.

Emanaldi nagusirako errepertorioak abesti elizkoiak izango ditu oinarri: "Segoviako bikario jeneralak baldintza moduan jarri zuen eliza musika izan behar dela. Hala ere, harekin adostu genuen bi edo hiru abesti laiko ere abestea", dio Barriocanalek. Abesti horiek izango dira *Kitolis*, *Oi ama Euskal Herria* eta *Penaz*. Abesti elizkoiei dagokienez, honako hauek abestuko dituzte, besteak beste: *Aita Gurea*, *Birjina Maite*, *Ave Verum* eta *Agnus Dei*.

Zubillaga diruzaina eta Barriocanal presidentea. | JOKIN BEREZIARTUA

Arrasate Musikalek 22 kontzertu antolatu ditu maiatza eta uztaila artean

'Udaberriko ziklo musikala'-ren bueltan Musakolako jaietan egongo dira zapatuan

J.D. | ARRASATE

Maiatzean hasi eta uztailera arte, hamaika kontzertu antolatu dituzte Arrasate Musikalekoek *Udaberri ziklo musikala*-ren bueltan. Asteburu honetan, Musakolako jaiekin bat egingo dute eta kontzertua eskainiko dute zapatuan, Santa Teresa elizan, 19:00etan.

Big Band-a uztailean

Udaberriko ziklo musikala antolatzen duten hirugarren aldia da aurtengoa eta guztira 22 kontzertu egingo dituzte.

Txistu, gitarra, klarinete eta piano kontzertuak eskainiko dituzte ikasleek, eta, zikloa borobiltzeko, uztailaren 3an Big Band-ak joko du Monterronen.

ANDER LARRAÑAGA

Etorkizuneko idazleek sariak jaso dituzte

Pako Aristiren umoreak eman zion hasiera AEDko Literatura Lehiaketako sari banaketari. Aristik idazle berriaren dekalogoa errezitatu zien arretaz entzun zuten gazteei. 22 sari banatu zituzten, eta antolatzaileak, beste urte batez, aurkeztutako lanen kalitate eta kopuruarekin pozik agertu ziren.

Ane Zuatzubizkar Gipuzkoa Bertsolari Txapelketan

Pasa den asteburuan hasi zen Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako sailkapen fasean arituko da domekan Ane Zuatzubizkar. Hernaniko Sandiusterri aretoan arituko da Zuatzubizkar, 17:30ean, Gabilondo, Iturbe, Iurramendi, Labaka eta Oiartzabalekin batera, hurrengo faserako txartelaren bila.

Lore
LURRINDEGIA
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

Irudian, Lanbide Heziketako institutu berriak izango duen itxura. | GOIENA

Hamabost egunean lanen lizitazioa aterako dute

Miguel Altuna Institutua lekuz aldatzeko aurrekontua onartu du Jaurlaritzaren gobernu batzordeak

MARIJO DEOGRACIAS | BERGARA

Lanbide Heziketa institutu berria eraikitzeko 12,5 milioi euroko gastua baimendu du dagoeneko Bergarako Udalak. Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren proposamenez izan da, eta Miguel Altuna Institutua lekuz aldatzeko egitasmoari bide eman zaio era horretan.

27 tailer

Bergarako San Martin auzora eramango dute Ibargarai kalean dagoen Lanbide Heziketa Zentroa (Candy parera, Artabilla gunean). Gune berrian bi eraikin egingo dituzte, tailerrak eta ikasgela bereizita, eta ia 10.000 metro koadroko azalera hartuko dute. Hezkuntza Sailak aurreratu duenez, hamabost egunean argitaratuko du eraikin berriaren lanak egiteko lizitazioa.

Egitasmoak aurreikusten ditu Elektrizitate ziklorako zazpi tailer-ikasgela, Mekanika ziklorako hamabi tailer, Administrazio ziklorako zortzi tailer-ikasgela eta erabilera askotariko hamabi ikasgela eta liburutegia.

Jardunen gonbidapena bergararrei

M.D. | BERGARA

Orain dela mende laurden euskara elkartea aurkeztu zen leku berean hitzartu ditu Jardunek bergararrak, biharko: UNEDeko aretoan, 13:00etan. Atzera begirako labur bat eginez, bideo bidezko 25 urteotako errepasoa egin eta datozen urteetarako egitasmoen berri emango dute. Iaz urrian eta azaroan ia ehunetik gora bergararrekin egindako gogoeta prozesuak eman dizkie pistak hurrengo urteetarako egitekoa zehazteko. Eraberritu egin nahi dute funtzionamendua, eta baita elkartearen beraren egitekoa, egungo beharrizanei egokitzeko. Elkartearen irudia bera ere eraberritu dute. Zinema-klaketa birekin adierazi nahi izan dute euskarak bihotzean, barru-barruan, eragiten duen zer hori. Aurretik, 09:30erako, Agorrosindik irtenda, Gerriko Berdea ezagutzeko irteera deitu dute, Aitor Narbaitzak gidatuta.

Goienak, Jardunen urteurrena gogora ekartzeko, erreportaje berezia landu du *Puntua* aldizkarian. Ez da ahaztu behar *Berrigara* aldizkariaren sortzaile izan zela Jardun 1990ean, eta *Goienkaria*-ren sorreran ere esku hartu zuela.

Balkoi eta leiho lehiaketarako loreak salgai bihar Oxirondon

M.D. | BERGARA

Lore eta landareen azoka egingo dute bihar, zapatua, Oxirondo plazan. Asmoa da, gainera, leiho eta balkoiak apaintzeko lehiaketarako lehengaiak eskura jartzea. Ekainean zehar egingo den leiho eta balkoien lehiaketan parte hartzeko izen-ematea ekainaren 1etik 19ra bitartean izango da. Horretarako, liburutegira jo, telefonoz deitu (943 77 91 58) edo *Bergara.eus* webgunera sartu beharko dute lorezaleek, eta loreek ekainaren 19tik uztailaren 1era egon beharko dute ikusgai.

Antonenak, Bolubarrik, Ninikak eta Udalatx mintegiak izango dituzte salgai euren landare eta loreak Oxirondon, bihar, 09:30etik 14:00etara bitartean. Gogoratu beharra dago sariak 400 eta 200 euro direla, hurrenez hurren, Bergarako dendetan trukatzeko.

Debagoiendar bakarra Gipuzkoa Bertsotan saioan, bihar, Bergaran

M.D. | BERGARA

Gipuzkoa Bertsotan saioetako bi jokatuko dira Bergaran asteburuan. Seina bertsolari arituko dira goizeko zein arratsaldeko txandetan.

Gipuzkoako bertso txapelketarako klasifikazioa lortzeko antolatu dute Gipuzkoa Bertsotan fasea eta Debagoieneko bost lagun ari dira lehia horretan. Horietako bakarra arituko da Bergarako saioan: Andoni Goitia oñatiarra. Arratsaldeko saioan lehiatuko da, 17:30ean, Zabalotegin. Harekin batera arituko dira Andoni Agirre azpeitiarra, Haritz Garmendia azkoitiarra, Aratz Igartzabal *Potto* gabiriarra, Unai Muñoa berrobiarra eta Beñat Torres urretxuarra.

Goizeko saioan, berriz, beste sei lagun arituko dira hitza jolas: Eneko Araiztegi *Korta* segurarra, Mikel Artola alegiarra, Gorka Azkarate urretxuarra, Urko Egaña azpeitiarra, Aitor Irastortza zaldibiarra eta Ander Lizarralde oiartzuarra. Goizeko saioa 11:30ean, Zabalotegin.

Seina euro kostatzen da sarrera; egun osokoa, aldiz, 9 euro; leihatilan, eskuragai, 10:00etan eta 16:00etan.



M-24

Aurrekontuaren %3 enplegurako izatea gura du EH Bilduk

Udalean hautetsiak izandako hainbatek babesa adierazi diote koalizioari

TXOMIN MADINA | BERGARA

Bergarako Udalean hainbat agintalditan hautetsi izandakoak elkartu ziren eguaztenean EH Bilduri babesa emateko. Garaian garaiko erronkei aurre egitea egokitu zitzaiela azaldu zuten bertaratutakoek, eta adierazi zuten EH Bildu dela, egun, bergararrentzat etorkizunerako "berme bakarra".

Ezker abertzaleen fronte zabala osatzeko EH Bilduk "ahalegin berezia" egin duela azpimarratu zuten. EH Bilduri bozkatuko diotela ere gaineratu zuten, azaldu zutenez, koalizio abertzaleak jasotzen duelako urtetan landu duten eta lantzen ari diren Bergara.

Hautetsi izandakoak, eguaztenean egin zuten agerraldian. | JAGOBA DOMINGO

Hamabi konpromiso

Joan den zapatuan, bestalde, udal hauteskundeetarako programa azaltzeko ekitaldia egin zuen EH Bilduk. Aurkezpen ibiltaria izan zen, eta, herriko hainbat gune bisitatuz, lekuan bertan azaldu zituzten bakoitzerako asmoak. Horrez gain, hamabi konpromiso zehatz ere hartu zituzten.

Konpromisoen artean daude Espoloiko kioskoa eta parkea berrituz Arrizuriagarekin integratzea; Fraiskozurin haurrentzat jolasleku estalia egitea; eta aurrekontuaren %3 enplegura bideratzea. Alde zaharra biziberritzeko plan integrala egiteko eta Herritarren Arretarako Zerbitzua sortzeko asmoa ere adierazi du EH Bilduk; baita San Joxepe baserriaren ondoan autokontsumorako 87 partzelako ortu-eremua jartzekoa ere.

Osintxuko birgaitze soziourbanisitikoa; kultur taldeak batuko dituen sormen-gunea egitea; eta Masterreka-Zubieta-Mugertza tartea eraberritzea dira koalizioaren beste konpromisoetako batzuk. Arruriagan aparkaleku berria egin gura du EH Bilduk, baita Labegaraietako kiroldegian hobekuntzak burutu eta etorkizunerako plana egin ere. Antzuola-Bergara-Azoka-Boni Laskurain-Ernai-Mekolalde artean bidegorriak egitea da beste asmo bat.

Gaur, egubakoitza, ekitaldia

Koalizioak ekitaldia egingo du gaur, 19:00etan, Seminarioko karpan. Hasier Arraizek, Agurne Barrusok eta Xabier Olanok egingo dute berba bertan.

M-24

TXOMIN MADINA

Markel Olano Bergaran izan da

EAJren Gipuzkoako diputatugai nagusi Markel Olano bi aldiz izan da asteon herrian. Atzoko ekitaldi nazionalean izan zen, eta astelehenean, Juanje Alberdi alkategai jeltzalearen eskutik, alderdiak herrirako dituen hainbat proiektu ezagutu zituen. Bihar, ingurumenaz arituko da Juanje Alberdi, 13:00etan, Poligonoan, Ogi Berri pareko plazan.

M-24

Irabazi, Irala kalean eta Osintxun

IMANOL SORIANO

Joan zen asteburuan luntxarekin egin zuen Irabazik egoitzaren inaugurazio ofiziala. Kanpainarekin lotuta, zapaturako, Irala kalean kartelak eskegitzeko kalejira deitu dute; domekan Osintxun izango dira.

Pentekosteetarako hainbat ekitaldi herriko taldeen eskutik

Jaietara begira, Martxanterak kolektiboko kideek auzolanean "herria feminismoz atontzeko" dei egin dute asteburu honetarako, eta maiatzaren 22ko Guateke Morea ere prestatuko dute. Oxirondo aisialdi taldeak, bestalde, parrillada egingo du hilaren 22an, Bitorianatxo jaitsi ostean, eta Sardina Freskue taldearen erromeria egongo da, 21:30ean.

Aritzetak Stoltz-Freres organoaren alde abestuko du bihar

Imanol Urzelairen zuzendaritzapean, San Pedro parrokian dagoen Stoltz-Freres organoaren aldeko kontzertua eskainiko du bihar Aritzeta abesbatzak. 20:00etan hasiko da emanaldia, San Pedro parrokian bertan, eta Aritzetakoek hamabi abestiz osatutako errepertorioa kantatuko dute. Sarrera 5 euro izango da.

OHARRAK

UDALEKU IREKIAK

Hilaren 22ra bitartean dago zabalik udaleku irekietako izen-ematea: *Bergara.eus*-en edo liburutegian (09:00-21:00).

ONDASUN HIGIEZINAK

Ondasun Higiezinen Gaineko Zerga ordaintzeko epea gaurtik ekainaren 30era izango da; eta, epe horretan ordaindu ezean, errekarguz kobratuko dute.

NIRE USTEZ

MIGUEL LAZPIUR

Industriaren garrantzia

Ez dut uste inork herrialde honen industria sektorearen garrantziari buruz dudarik duenik: ondo joan denean, Euskadi ondo joan da, eta alderantziz. Menpekotasun itzela dugu; gizartearentzat ongizate handien sortzen duen sektorea da, eta hala izan da duela urte askotatik. Baina krisiak gogor jo du euskal industria, enpresa txiki eta ertainak eta besteak; multinazionalak ere bai.

Enpresok egoerara egokitzen saiatzen ari gara, baina oso lan zaila da: barne kulturak aldatu behar dira, pertsonen konpromisoa lortu, produktua berritu, lehiakortasuna hobetu, formatu, teknologia berriak sartu, saltzera irten, nazioartekotu, inbertitu, posizionamendu eta pentsaera berriak, geure burua berrasmatu, berritu. Hor ikusiko da nork duen herrialdearekiko benetako konpromisoa; ez dut dudarik gure enpresek badutela, eta ahal duten guztia egingo dutela hemen mantentzeko, lanpostuak eta aberastasuna sortuz.

Gizarte honek ere baditu bere zorrak ekintzaileak izan direnekiko; sakrifikatu, lan egin eta guztion ongizaterako aberastasuna sortu dutenekiko. Ez dut uste nahikoa aitorpen publiko egon denik horiekiko.

Orain, guztiz beharrezkoa da gure administrazioengandik lehentasunezko industria politika bat, publikoaren eta pribatuaren arteko elkarlana bilatuko duena; fiskalki eta sozialki enpresen aldeko politikak; inbertsiorako, formaziorako, nazioartekotzeko benetako laguntzak. Enpresen garapenerako inguru onuragarri bat sortuz; industria sektore propioak zainduz eta berriak sustatuz.

Herrialdearen ongizaterako, gure agintariek argi izan behar dute hori dela gastu sozial onena: gastu hutsa desagertu egiten da; hau, aldiz, itzuli egiten da.

Freya FANTASIE

Zein da zure neurri ideala?
Nola aukeratu zure bularretakoa?

Aprobetxa itzazu gure adituaren aholkuak!

Etor zaitez maiatzaren 18an (astelehena) eta 21ean (osteguna) Igarzara!
(10.00 - 13.00/16.30 - 20.00)

IGARZA

Irala pasealekua 5, behea BERGARA
Tel.: 943 76 24 88

Erositako lentzeria joko bakoitzeko, oparia emango dizugu!*

Freyaswimwear.com

Fantasieswimwear.com

* Ditugun izakinak amaitu arte.

MARIAREN LAGUNDIA IKASTOLA

margotu ataa
ere bidea...

ATE IREKIAK: maiatzaren 20an 17:30ean
AURREMATRIKULA: maiatzaren 25etik ekainaren 5era

Espaloia 1 Tel. 943 76 25 40 / 41 ikastola@mlagundia.net www.mlagundia.net

HAUR HEZKUNTZAKO TEKNIKARIA
GIZARTERATZE TEKNIKARIA

Eskubaloiko taldea Usurbilen aurkako partidua irabazi ostean zaleei eskerrak ematen. | RAFA ZULUETA

Lauko finalerako sailkatzea du jokoan Aloña Mendik

Barakaldoren kontra jokatuko du eskubaloiko taldeak bihar, Zubikoa kiroldegian, 18:00etan

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Barakaldoren kontra jokatuko du Izarraitz-Aloña Mendi eskubaloi taldeak zapatuan, 18:00etan, Zubikoan, eta, irabaziz gero, Euskadiko Txapelketara igotzeko azken fasera pasako da. Badute irabazteko esperantza. "Etxean jokatuko dugu. Jende asko etortzen da partidua ikustera eta gu animatzera, eta horrek sekulako indarra ematen digu. Orain arte jokatu ditugun hiru partiduetatik bi irabazi ditugu, biak etxean jokatutakoak, eta zaleen animoekin batera irabazi gura dugu biharkoa ere", dio taldeko entrenatzaileak, Rafa Zuluetak.

Partidua galduta ere, azken txanpara heltzeko aukerak izango ditu oraindik talde oñatiarrak, igoerako lehen fase honen azken partidua datorren astean izango da-eta.

Lauko finala

Biharkoa irabaziz, beraz, lauko finala jokatzeko txartela lortuko du, zuzenean, Izarraitz-Aloña Mendi eskubaloi taldeak. Eta datorren asteko partidua ere irabazten badu, lehen postuan bukatuko du igoerako fasea, eta finala non jokatu aukeratzeko eskubidea izango du. "Momentu honetan hirugarren gaude. Gure aurretik daude Usurbil eta Tolosa, eta atzetik Barakaldo. Gelditzen diren biak irabazten baditugu, lehen postuan jarriko ginateke eta horrek aukera emango liguke finala Oñatin jokatu dadin eskatzeko. Bi erronka ditugu, beraz: bata, biharkoa irabazi eta lauko finalean sartzea, eta bestea, datorren astean Tolosaren kontrakoa ere irabaztea eta lehen postuan bukatzea", dio Zuluetak.

Lauko finaleko partiduak maiatzaren azken asteburuan jokatuko dituzte. Zapatuan, lehenak laugarrenaren kontra eta bigarrenak hirugarrenaren kontra jokatuko dute. Bi talde igoko dira Euskadiko Txapelketara. "Ederra litzateke partidu horiek Oñatin jokatzea", dio Rafa Zuluetak.

M-24

Bertsoekin girotu zuten San Lorentzo auzoa EH Bildukoek

MIRARI ALTUBE | OÑATI

San Lorentzo auzoan elkartu ziren Oñatiko EH Bilduko kideak eguazten iluntzean. Txalaparta doinuak eta bertsoak izan zituzten lagun, eta mokadutxoek eta sagardoak goxatu zieten barrua. Mikel Biain alkategaiak datozen egunetan dituzten hitzorduak gogorarazi zizkien elkartutakoei. Batetik, datorren domekan, maiatzak 17, Donostian egingo duten Gipuzkoako ekitaldi nagusira gonbidatu zituen. Autobusa bete gura dute Oñatitik, eta izena eman daiteke Arrano eta Ona tabernetan.

Bestetik, maiatzaren 22an egingo dutela hauteskunde kanpainako ekitaldi nagusia Oñatin jakinarazi zien; Foruen plazan izango da, 19:00etan, eta hori betetzea garrantzitsua dela gogorarazi zien EH Bilduko zerrendaburuak ekitaldira gerturatu zirenei.

Hitzordu garrantzitsuena, baina, datorren maiatzaren 24koa dela azpimarratu zien. "Aurrera egiten" joateko hautatu beharreko hitzordua delako hori, eta, era berean, azken lau urteotan "emandako konfiantza" berresteko eguna.

Andoni Goitia eta Urko Egaña bertsolari oñatiarrek girotu zuten ekitaldia, eta haiek ere hauteskunde kontuak izan zituzten kanturako gai.

EH Bilduk kanpainarako prestatu duen bideoa ere erakutsi zuten telebista baten.

EH Bilduko zerrendako kideak izan ziren ekitaldian. | M.A.

Eltzian zer egiten duten azaldu diete erabiltzaileek herritarrei

'Eltzetik' aldizkari monografikoa aurkeztu zuten eguazteneko ekitaldian

ARANTZAZU EZKIBEL | OÑATI

Eltzia proiektuaren nondik norakoak erabiltzaileen ahotik azaltzea zen, besteak beste, Eltzia Herrira ekitaldiaren helburua. Eguazten iluntzean egin zuten egitasmo horren aurkezpen jaialdia, gaztelekuan.

Hainbat zati izan zituen ekitaldiak. Ongietorriaren ostean, proiektuari buruz Kepa Aranburuk egindako bideoak erakutsi zituzten, herritarren eta erabiltzaileen iritziak jaso dituzten bideoak. Horrek solasaldiari eman zio paso. Eltziako erabiltzaile diren Txantxiki, Bertso eskola, Acesma, Oñatz, Andraitz eta musikarien elkarteko ordezkari banak zuzenean egindako galderei erantzun zieten. Bestetik, proiektuari buruzko *Eltzetik* aldizkari monografikoa aurkeztu zuten, eta ekainaren 20an egingo duten Herria Eltziara ekitaldirako gonbidapena egin ere bai.

Patxi Hipolito gogoan

Ekitaldiaren bukaeran, Iñigo Biainek Patxi Hipolitoren poema bat irakurri zuen, Xabier Ugarte eta *Pototo* musikariak ondoan zituela.

Gaztelekuan izan zen aurkezpen ekitaldia, eguaztenean. | A.E.

Patxi Hipolitori omenalditxoa egin zioten. | A.E.

Bi auzotan dira jaiak asteburuan: Kasablankan sanisidroak eta Murgian Asentzioak

Gaur, egubakoitza, hasi eta domekara arte, auzoko jaiak ospatuko dituzte Kasablankan eta Murgian. Auzo horretan, esaterako, urtero egin ohi duten auzoko produktuen dastatzea egingo dute, 12:00etan. Kasablankan, berriz, rock-metal-punk jaialdia egongo da gaur, 22:00etan, eta bihar, 16:00etatik aurrera, kamioi-proba eta olagarro eta sagardo dastatzea egingo dituzte, besteak beste.

Txirrinkak eta Natur Eskolak irteera antolatu dute domekarako, bizikletan, hegaztiak behatzeko

Foruen plazatik abiatuta, Urkulura joango dira, bizikletan, domekan, Txirrinkak eta Natur Eskolak antolatu duten irteeran. Larreetako, harkaitzetako zein uretako hegaztiak ezagutuko dituzte prismatiko eta teleskopioen laguntzarekin. Egun osoko 30 kilometro inguruko irteera izango denez, bazkaria eramatea gomendatzen dute antolatzaileek.

Haitirako izango da Ikusi Makusi antzerki taldeak domekan egingo duen saioan lortzen den dirua

Pake Leku erretiratuen elkarteko Ikusi Makusi antzerki taldeak *Novedades en villa Titiritaina* antzezlana egingo du domekan, 19:00etan, Santa Anan. Elkartasun helburuarekin antolatutako emankizuna izango da, hor batutako dirua Oñatiko parrokiak Haitiko Marbial herrian eskola eraikitzeko duen proiektuari laguntzeko izango baita.

Udako kirol kanpainan tokia dago oraindik hainbat eskaintzatan, eta izen-ematea zabalik dago

Dagoeneko herritar askok eman dute izena aurtengo udako kirol kanpainaren barruan antolatu dituzten zerbitzuetan, baina hainbat eskaintzatan tokia dago oraindik. Informazio gehiago izateko eta izena emateko, hauxe da Zubikoako bulegoetako ordutegia: astelehenetik egubakoitzera 11:00etatik 13:15era eta martitzenetan eta eguenetan 15:00etatik 19:00etara ere bai.

Berdintasuna irudikatzeko beste aukera bat gaur

OIHANA ELORTZA GOROSTIZA | OÑATI

Kirola ere berdintasunean egin daitekeela irudikatzeko, bosgarren aldiz antolatu du MUk Oñatin duen Enpresagintza fakultateak Berdintxiketan herri lasterketa. "Bikoteka egingo da aurtengo lasterketa ere, bikote mistoak izango dira parte-hartzaileak. Hala ere, bakarka parte hartu gura dutenak ere gonbidatzen ditugu eta euren artean egin ditzakegu bikoteak", dio antolaketa lanetan ari den Eunate Eliok.

Bost kilometro

Lasterketako laguntzaile izango da Goiena, Oñatiko Udalarekin eta Eroskirekin batera. Bost kilometro izango ditu ibilbideak: fakultate aurrean hasiko da, 19:30ean, eta Atzeko kalean gora Etxaluzeraino iritsiko dira. Handik, Euskadiko etorbidean barrena Errekalderantz joango dira eta Errekalde erditik behera, Patrue kaletik Kale Zaharrera eta handik berriz Foruen plazara joango dira, postetxe paretik pasata. Bi bira emango dizkiote ibilbide horri.

Korrikan ez ezik, patinetan ere har daiteke parte aurtengo Berdintxiketan lasterketan. Oraindik izenik eman ez duten bikoteek lasterketa hasi aurretik ere eman dezakete; 17:30ean zabalduko dute inskripzio-epea fakultateko harreran. 50 bikotek izena ematea da aurtengo erronka.

Korrikalariak Foruen plazara heltzen. | GOIENA

M-24

OÑATIKO EAJ

Pegatinak jartzea salatu du EAJk

Oñatiko EAJren kartelen gainean *El Diario Fatxo* dioten pegatinak agertu dira, hautagaitzaren aurpegia eta alderdiaren leloa tapatuz, eta hori salatu du EAJk. Era berean, ezker abertzaleari "ohartarazi" dio "azaltzen duten ankerkeria" ez dela "ez demokratikoa eta ezta aurkari politikoaren errespetuzkoa". Pegatinok beste alderdien kartel batzuetan ere azaldu dira.

'Berria'-ren aldeko kanpaina abiarazi dute herriko 67 denda eta tabernatan

O.E.G. | OÑATI

Berrialagun gehiago egiteko eta herriko merkataritza sustatzeko helburuarekin, *Berria* egunkariaren aldeko kanpaina abiarazi dute herriko hainbat merkatarik. Komunikabide horretako, Udaleko eta Ulmako ordezkariak izan ziren kanpaina horren aurkezpenean, egubakoitzean, babesle eta laguntzaile diren neurrian.

Zozketa

Egun, herriko 67 denda eta taberna dira Berrilagun, eta horiekin egingo dute kanpaina. Erosketak egitean, bezeroek txartel bat eskuratuko dute, eta mila euro –edo txantxi– zozkatuko dituzte kanpainan parte hartzen duten komertzioetan erabiltzeko. Saltokien artean ere egingo dute zozketa: *Berria*-n publizitatea jartzeko mila euro.

Aimar Erostarbe, Gipuzkoako txapeldun

KOMUNITATEA GOIENA | ALOÑA MENDI TXIRRINDULARITZA SAILA | OÑATI

Infantilen eta alebinen Gipuzkoako Txapelketa jokatu zen joan den zapatuan Zarautzen eta Oñatiko Lizarralde Kirolak-Aloña Mendi txirrindularitza taldeko Aimar Erostarbek Gipuzkoako txapela irabazi zuen alebinen mailan. Hirugarren postuan, talde bereko beste oñatiar bat: Aitor Altube. Denboraldia hasi denetik lasterketa guztietan igo dira podiumera txirrindulari gaztetxo oñatiarrak, eta Zarauztik ere pozik etorri ziren. Beste behin, podiuma zapaltzeaz gain, txirrindularitzaz disfrutatu zuten Lizarralde Kirolak-Aloña Mendi taldeko gaztetxoek, eta poza bikoitza izan zen guztiendako.

Podiumean. | RUPER ARKAUZ

Bertsoak, boloak, musika eta dantza mordoa bihar

Euskeriaren Eguna ospatuko du Loramendi Elkarteak eta herritar guztiak gonbidatu ditu ekitaldiotara

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Musikaz eta dantzaz gainezka dator, beste behin, Loramendi Elkarteak antolatutako Euskeriaren Eguna, eta gaur, hain zuzen, erakustaldia egingo dute herriko dantzariek, 18:30ean, plazan. Jai nagusia, baina, bihar da, eta herritar guztiak gonbidatu dituzte ekitaldiotan parte hartzera.

Neska-mutikoak plazan jolasten iaz. | GOIENA

Dantza gidatuak

Txistu doinuek kale bazterrak iratzarri ostean, umeek jolasak izango dituzte plazan. Jai giroa, ostera, Lekaixoka bertso eskolako kideek eta eskualdeko bertsolariek ekarriko dute eguerdian, trikitilariak lagun dituztela.

Bazkaltzeko Herriko Plazara joko dute eta ostean Zurrumurru antzerki taldeak *Pantxika eta Txinparta* ikuskizuna eskainiko die umeei. "Sasoi baten legez, bolo txapelketa egongo da aurten, eta ea herritarrak animatzen diren", jakinarazi du Irati Urkiak, Loramendiko dinamizatzaileak.

Larrin-dantza izango da iluntzean Durana kalean, ohitura den legez, eta dantzan jarraitu gura dutenek Zango taldeak gidatutakoak izango dituzte gero Mitarte kalean. Eta jaia bukatuko dute herriko gazteek girotuta. Theskarga, Txerrikumiak eta Baztertuak taldeak igoko dira Mitarte kaleko oholtza gainera.

Okila eta Hiruatx

Okila taldeko kideek egurrean egindako lanak jarriko dituzte ikusteko aurten ere Euskeriaren Eguneko ekitaldiekin bat eginez. Eta Hiruatx elkartekoek bidezko merkataritzako produktuak salduko dituzte plazan.

EGITARAUA

10:00 Diana txistulariekin.

11:30 Jolasak umeendako, Herriko Plazan.

13:00 Bertso triki poteoa.

14:30 Herri bazkaria.

17:00 *Pantxika eta Txinparta* ikuskizuna umeendako, plazan.

18:00 Bolo txapelketa.

19:00 Larrain dantza, Durana kalean.

19:00 Dantza gidatua Zangorekin, Mitarte kalean.

21:00 Gazteen kontzertuak, Mitarte kalean: Theskarga, Txerrikumiak eta Baztertuak.

Erromeria giroa izango da, beste behin, Otala Zelaiko bazterretan

Lasterketak, jolasak, bazkaria, musika eta dantza saioak egongo dira

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Urteroko hitzordua dute aretxabaletarrek domekan Aozaratza auzoko zelai ezagunean. Eta, urtero legez, erromeria giroa izango da, eguraldiak lagunduz gero –eguraldi txarra bada, ekitaldiak Iturrigorri pilotalekuan egingo dituzte–. Umeen lasterketekin hasiko dute goiza, 10:00etan, eta ondoren, 11:00etan, helduen txanda izango da. Urkulu urtegiari buelta emango diote haiek, eta gero, sariak banatuko dituzte.

Leizarra musika eskolako dantzariak iaz Otala Zelain. | M.A.

Dantza saioak arratsaldean

Animaliekin jolas egingo dute neska-mutikoek, urtero legez, 13:00etan. Orduantxe hasiko dira paella egiten lehiaketan izena emandakoak –interesatuek Arkupen eman behar dute izena, eta bost euro ordaindu–. Eta bien bitartean, Leizarra musika eskolako trikitilariek girotuko dituzte zelai bazterrak. Sagardo kupela ere egongo da.

Bazkaria norberak eroango du eta 14:30 inguruan aulkiak eta mahaiak banatuko dituzte antolatzaileek. Paella lehiaketako irabazleei ere orduantxe banatuko dizkiete sariak: lehenengoari, 100 euro; bigarrenari, 70 euro; eta hirugarrenari, 50 euro.

Arratsaldeko kontuak euskal disko festarekin hasiko dituzte, 16:00 inguruan. Eta 18:00etan, musika eskolako neska-mutikoen dantza erakustaldia izango da. Disko jartzaileak lanean jarraituko du gero, jaia bukatu arte.

NIRE USTEZ

MIKEL ARROIABE

Gurkhen herrixa

Bakoitzak bere biziuak dauzka. Neria bidaiak egittia da. Esan neike leku batzuk ezauketan dittudala, baina askoz gehixau diela ezautzeke dauzkatenak. Baina leku danek ez dotzue marka bera uzten, batzuk betirako gelditzen jatzu buru-bihotzetan gordeta. Horreittako bat Nepal da.

Bi aste eskas egin genittun bertan eta hasiera baten Indiarako biajian osagarri izetekua zana India bera baino askoz erakargarrixagua pentsau jakun. Ez ginen mendixak igotzera fan, ez eta GKE baten bidez behartsuak laguntzera be, turista hutsak baino ez ginen izan. Hala eta be, herri hartaz maitemindduta itzuli ginen.

Jentia pobria bazan be, euren aurpegixetan gurkhen harrotasuna igarten zan. Kalian be protesta, greba eta istiluak bizi izan genittun, injustiziei aurre egitteko nortasun bizixa. Eta aldi berian erlijiño desberdinetako tenpluak alkarren onduan ikustiak herri oso tolerantia dala erakutsi euskun. Eta umiak, umien aurpegi alaixak, umien jostailu gabeko jolasak...

Bapatian lurrikara itzela izan da bertan, milaka hildako egon die eta eraikin ederrak jausi die. Baina Nepal gurkhen herrixa da. Aurrez be euki dittue halakuak eta orainguan be aurrera egingo daue. Besarkada haundi bat! Namaste!

"Herri hartaz maitemindduta itzuli ginen"

M-24

M.A.

Arrosak banatzen PSE-EEkoak

Arrosak banatu eta herritarrekin kontu-kontari jardun zuten astelehenean Alderdi Sozialistako kideek. Ohitura duten legez, azokan izan ziren eta Miren Lorea Lana alkategaia proposamenez beteta agertu zen: "Atez atekoa kendu eta bosgarren edukiontziaren alde egingo dut. Enplegua sustatuko dut. Eta kuartelean egoten diren gazteekin zer egin pentsatu behar da, eraikina ez dagoelako ondo. Hirigintza lantxo batzuk ere egingo nituzke herrian; Kurtzebarri eskolatik plazara jaisteko arrapalak jarriko nituzke, esaterako".

Odol ateratzeak izango dira datozen hiru astelehenetan

Arabako odol bankuko kideak odola ateratzera etorriko dira maiatzaren 18an eta 25ean eta ekainaren 1ean. Osasun zentroan izango dira (16:30-20:00).

Bestetik, Aretxabaletako odol emaileen ordezkariak beste norbaiti pasatu gurako lioke ardura. Interesaturik egonez gero, deitu zenbaki honetara: 636 68 56 06 (Ramon).

Mobiliario ARENAZA
ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Segurtasunaren gaineko berbaldia dute Basotxon

Kontsumobidekoek emango dute maiatzaren 20an

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Herriko nagusiak informatuta egon daitezen gura dute Basotxo erretiratuen elkarteko kideek eta adineko pertsonen segurtasunaren gaineko berbaldia antolatu dute datorren eguaztenerako, maiatzak 20. Basotxoren egoitzan izango da, 17:30ean, eta Jaurlaritzako Kontsumobide erakundeko teknikari den Begoña Olabarrieta egongo da argibideak ematen eta kezkak argitzen.

Joan den astean, ostera, botiken eta automedikazioaren gaineko argibideak eman zizkien Marian Ugalde psikologoak, eta zalantza ugari argitu zituzten erretiratuek.

Maiatzaren 22an Burgosera

Hitzaldiak irteerekin osatuko dituzte Basotxoko kideek. Hala, datorren egubakoitzean, maiatzak 22, Burgos aldera joango dira. Ikusiko dituzte Santo Domingo de Silos monasterioa eta Lerma eta Covarrubias herriak, eta azken horretan bazkalduko dute. Izena emateko epea zabalik dago eta prezioa da 38 euro bazkideendako eta 48 gainerakoendako. Argibideak gura dituena Basotxotik pasa dadila (11:00-12:00).

JULEN IRIONDO

Modubat, ikusteko eta erosteko

Modubat marka –arropak eta magazina– aurkeztu zuen eguaztenean Katalin Antxiak, lagunek eta senideek inguratuta. Eta orain, ikusgai daude horiek Arkupeko erakusketa aretoan hilaren 24a bitartean. Ondoren, maiatzaren 25etik 31ra, moda laborategi ikastaroan, Antxiak ikasleekin batera egindako lanak izango dira.

869 erosketa egin dituzte apirilean tuperrarekin

M.A. | ARETXABALETA

Ontziratu zaitez! kanpainak bigarren saria banatu du astean, eta Leire Langaranendako izan dira 50 euroak. Guztira, 869 erosketa egin dituzte aretxabaletarrek ontzia edo tuperra erabilita apirilean, horietatik arrandegietan 490 eta harategietan 379. Leibar arrandegian erabili zuelako ontzia jaso du saria Langaranek. Lore Martinez Axpe zinegotzia "oso pozik" azaldu da, kanpainarekin herritar "askok" egin dutelako bat.

Leire Langaran erdian. | M.A.

Izazpi eta Nuarbe aldean mendi buelta

Mandubiatik Izazpira egin zuten mendi buelta Murrukixo elkarteko kideek, eta Nuarben bukatu. Han bazkaldu zuten bertako lagunekin: "Bazkari bikaina gertatu ziguten eta ederto egon ginen lagun giroan. Eskerrik asko, Nuarbeko lagunak!".

MURRUKIXO

OHARRAK

EH BILDUREN EKITALDIA

Gaur, egubakoitza, hauteskunde kanpainako ekitaldi nagusia egingo du EH Bilduk. Mitarte kalean (Iosu harategi aurrean) izango da, 19:00etan.

EAJ-REN EKITALDIA

Hauteskunde kanpainako ekitaldia egingo du EAJk gaur, egubakoitza, 19:00etan, batzoki aurrean.

TXIRULA-JOTZAILEAK

Leizarra musika eskolako txirula-jotzaileek emanaldia eskainiko dute martitzenean, hilak 19, 18:00etan, Arkupen.

'OLIGOPOLYOFF' DOKUMENTALA

Goiener kooperatibaren eskutik *Oligopolyoff* (90 minutu) dokumentala emango dute eguenean, maiatzak 21, 19:00etan, Arkupen.

LANBIDE HEZIKETA DEBAGOIENEAN
ikasLAN Gipuzkoa
"etorkizuna zure esku"

ARETXABALETAN
Ate irekiak:
Maiatzak 21
18:00etan

ALE – Aretxabaleta Lanbide Eskola
Etxebarri auzoa, z/g - 22Pk.
20550 ARETXABALETA
✆ 943 79 79 00 / 943 79 79 43
ia@iaretxabaleta.com
www.iaretxabaleta.com
ALE ARETXABALETA Lanbide Eskola

BERGARAN

IEFPS Miguel Altuna GLHBI Bergara
Ibargarai, 1
20570 BERGARA
✆ 943 76 24 91 / 943 76 38 40
imaltuna@saremail.com
www.imaltuna.com
MIGUEL ALTUNA INSTITUTUA Bergara

OÑATIN
Ate irekiak:
Maiatzak 27, 18:00etan
(Larraña egoitzan)

IES RM Zuazola - Larraña BHI
San Lorentzo, z/g
20560 OÑATI
✆ 943 78 21 50
013015aa@hezkuntza.net
www.onati.net
ZUAZOLA-LARRAÑA BHI

AURREMATRIKULA: Maiatzaren 25etik Ekainaren 5era. MATRIKULA: Uztailaren 16tik 21era.

Ganadu feria eta barazki azoka baserritarren eguna ospatzeko

Argazki lehiaketako sari banaketa egingo dute bihar Olaranen, 13:30ean

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Gaur, maiatzak 15, egubakoitza, San Isidro eguna da. Hala, aurten ere antzuolarrek baserritarren egun handia ospatzeko, San Isidro azoka egingo dute bihar, zapatua.

Goizeko bederatzietan hasita, herriko kaleetan ganadu erakustaldia izango da. Euskal arrazako ganadua izango da, hain justu, protagonista: behiak, ardiak, astoak, behorrak... Baina herriko artisauen salmenta-guneak eta herriko barazkiez osatutako postuak ere ez dira falta izango, antzuolarren gozamenerako.

Hamaiketan salda banatuko dute Trekutz elkartean.

Eguerdiko hamabietan, aldiz, txistularien eta trikitilarien kalejira izango da, herriko giroa berotzeko eta alaitzeko.

San Isidro egunean herriko kaleak postuz jantziko dira. | GOIENA

Kukumarro lehiaketa

Goizeko hamaiketan, ikasleek egindako kukumarro erakusketa izango da Herriko Plazako iturri inguruan. Hala, herritarrek eta epaimahaiak eguerdira arte ikusteko aukera izango dute gaztetxoek aurkeztutako lanak. Sari banaketa 13:00etan egingo dute Olaran etxean.

Argazki erakusketa zabalik

Aurtengo argazki lehiaketako sariak ere San Isidroko azoka egunean banatuko dituzte. Olaranen 13:30ean hasiko da ekitaldia. Bertan izango dira 2015ean parte hartu dutenen erretratuak ikusteko aukera.

Argazki erakusketa bisitatzeko aukera bihar, zapatua, eta etzi, domeka, izango da: 18:30etik 20:30era bitartean, Olaranen.

Pintxoak eta kamisetak

Ez dot moztuko bizarra! taldeak, azken urteotako ohitura mantenduz, postua jarriko du San Isidroko feria eguna aprobetxatuz. "Pintxoak eta sagardoa izango ditugu; baita kamisetak eta euskal presoen aldeko izarak ere. Gogorarazi nahi dugu otsailaren 18an udaletxeko balkoitik presoen aldeko izara kendu behar izan zela Urkixok beraiekiko elkartasunaren aurka abiatutako kanpainaren baitan. Hori dela eta, oraindik etxeko balkoietan izarak jartzera animatu ez diren herritarrak animatu nahi ditugu presoekiko elkartasuna agerikoa izan dadin", azaldu dute.

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako kanporaketa jokatuko da Torresoroan bihar

M.A. | ANTZUOLA

Bertsolari txapelketako bi saio jokatuko dira bihar, 11:30ean eta 17:30ean. Goizean, bertsolari hauek ariko dira: Julen Agirre, Iñaki Gurrutxaga, Arkaitz Oiartzabal, Aitor Salegi, Mikel Tapia eta Iñaki Zelaia. Arratsaldean, hauek: Txomin Azpirotz, Egoitz Eizagirre, Adur Gorostidi, Unai Mendizabal, Eli Pagola eta Asier Sasieta.

Antzuolar bat txapelketan

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan Aitzol Iturbe antzuolar gazteak hartuko du parte. Baina Iturbek ez du etxeko bi saioetan parte hartuko. Domekan, Hernaniko arratsaldeko saioan jokatuko du lehenengo sailkapen fasea.

Plazatik gaztetxera

Bestetik, abian da Plazatik Gaztetxera bertsolari gazteen XIV. txapelketa. Kanporaketak hasiak dira eta asteburuan Eibarren eta Elgoibarren jokatuko dira. Antzuolako gaztetxean, aldiz, finalerdia jokatuko da maiatzaren 22an, barikua, 22:30ean.

Bertsolari gazteen txapelketako finala Markina-Xemeinen jokatuko da, festa giroan, ekainaren 13an.

Aitzol Iturbe bertso saio batean. | GOIENA

Kalegoi eta Antigua auzoetara joateko bidea itxita

Asteon hasi dituzte Kalegoi eta Antigua auzoetara joateko errepideko lanak. Galtzada-harri berriak jarriko dituzte, eta solte eta hautsita daudenak kendu. Errepide osoa berdindu egingo dute. Ondorioz, bidea ibilgailuendako itxita egongo da eta autobusa Antiguako geltokian geratuko da.

MAIDER ARREGI

Antzuolako gudariek Arabako frontean bizitakoa berbagai

M.A. | ANTZUOLA

Arrola Mendi taldeak antolatuta, Antzuolako eta bailarako gudarien bizipenak gertutik ezagutzeko aukera izango dute herritarrek. Mikel Aizpuru EHUko irakasleak *Hire askatasunaren alde jiarduen* izeneko hitzaldia egingo du maiatzaren 28an Olaranen, 18:30ean. Bertan, 1937an Arabako frontean gudari antzuolarren bizipenak izango dira protagonista.

Legutioko bataila

Espainiako gerrak bailaran gertakari eta oroitzapen latzak utzi ditu. Tartean, Legutioko batailan jazotakoa (Araba). 1937an zortzi debagoiendar hil zituzten Larragorrin; Bergarako, Elgetako eta Antzuolako gudariak ziren.

78 urte pasatu dira, baina memoria historikoan bizirik irauten dute orduko gertakariek.

Larragorrira irteera

Maiatzaren 31n, domeka, egun osoko mendi irteera egingo dute, bailarako historia gertutik ezagutzeko. "Debagoieneko gudariak izan ziren fronteko leku batera egingo dugu irteera: Larragorrira", azaldu dute Arrolako kideek.

MENDIOLA Erretegia

Kuadrillan okela eta arraina parrillan dastatzeko leku paregabea.

Menu zabala
Ordutegi berria
Bertako janaria

Etor zaitez!

Mendiola auzoa, Eskoriatza

Biomasa proiektua aurkeztuko du Aramaioko alkateak

Aramaioko alkate Ramon Ajuriak biomasaren onuraz jardungo du hilaren 20an, eguaztena, Olaran etxean, 18:30ean hasita. Energiaren subiranotasuna, energia berriztagarriak, basogintzak ematen dituen aukerak eta enplegu berdea izango dira hizpide, besteak beste. Herritar ororendako batzar irekia da.

OHARRAK

ARGAZKI JENDETSUA

Herritxik herrixantzat lelopean argazki jendetsua ateratzeko dei egin du EH Bilduk. Bihar, zapatua, Zurrategin aterako du, 19:00etan. Ondoren, mokadutxoa bertaratzen direnendako.

ODOL ATERATZEA

Maiatzaren 21ean, eguena, Olaran etxean, odola emateko aukera izango dute herritarrek, 17:30ean hasita. Elkartetik, herritarrak animatu gura dituzte odola ematera joan daitezen.

JAIETAN POSTUA JARTZEKO

Antzuolako jaiak uztailean ospatzen diren arren, dagoeneko buru-belarri dabiltza lanean Udala eta herritarrak. Hala, postua jarri gura dutenek udal webgunean dagoen eskaera orria bete beharko dute.

Literatur Topaketak izan dira euskal idazle handiekin

Huhezi fakultateak 'Sutondoko ipuinak' lelopean antolatu ditu aurten

IMANOL BELOKI | ESKORIATZA

Sutondoko ipuinak lelopean, 2015eko Literatur Topaketak antolatu ditu Huhezi fakultateak Eskoriatzan. Jesus Mari Olaizola *Txiliku*, Koldo Izagirre, Anuntxi Arana eta Edorta Jimenez euskal literaturako idazle ospetsuak izan ziren eguaztenean; batzuk hitzaldiak egiten eta beste batzuk, aldiz, ipuinak kontatzen.

Goizean Zaldibar antzokian elkartu ziren, antolatzaileen esanetan, "ekimena herrira zabaltzeko asmoz". Hori horrela, Huheziko ikasle, irakasle eta herritarrak batu ziren literaturaz disfrutatzeko. Arratsaldean, berriz, Eskoriatzako Huhezi fakultatean jarraitu zuen topaketak, eta, euskal idazleez gain, Erasmuseko ikasleek ere ipuin kontaketa egin zuten.

Herri ipuinak eta mitologia izan dira aurten aukeratutako gaiak, eta Idurre Alonso antolatzailearen esanetan: " Ekimenaren helburua da ikasleak eta herritarrak literaturara hurbiltzea. Izan ere, aurrera begiratzen dugu etengabe, eta gure arbasoei garrantzia eman nahi izan diegu, literatura lehen ulertzen zen moduan ulertzeko".

Literatur Topeketako idazle eta antolatzaileak Zaldibarren. | IMANOL BELOKI

'Txiliku', amama gogoraraziz

Literatur Topaketei hasiera ematen Jesus Mari Olaizola *Txiliku* izan zen, eta hark egindako hitzaldia *Kontaketaren plazera* izan zen. Honela laburbildu zuen bere hitzaldia: "Bidaia bat egin dut, nire amona Mikelaren nolabaiteko irudia hartu eta hark ekarri dizkidan garai bateko oroimenak oinarritzat hartuta, kontakizunetik abiatu eta kontakizun horren historiatxo labur bat egin dut".

Ikastetxeetakoek bertso jaialdia egingo dute

Eguenean Zaldibar antzokian izango dira neska-mutikoak taula gainean, 17:00etan

I.B | ESKORIATZA

Debagoienean Gipuzkoako Bertsozale Elkarteak urtero egiten duen ekimena da bertso jaialdia, eta aurten Eskoriatzan ospatuko dute. Arizmendiko Almen guneko eta Luis Ezeizako ikastetxeetako laugarren, bosgarren eta seigarren mailetako haurrak Zaldibar antzokian batuko dira bertsotan egiteko.

Astero ordubeteko ikasgaia izan dute kurtsoan zehar, eta hamabostean behin Eneritz Artetxe eta Nerea Urra irakasleak izan dira gaztetxoekin. Asko ikasi ondoren, kurtsoan zehar ikasi dutena praktikan jarriko dute jendaurrean. Luis Ezeizatik 76 ikasle izango dira eta Almenetik, berriz, 125.

Bertsoak modu askotara

Oholtza gainera gelaka irtengo dira haurrak, baina modu askotara egingo dituzte bertso saioak: batzuek talde handian, beste batzuek hirunaka, bertso txapelketa erara, doinu ezagun eta ezezagunekin...

MARIJE FERNANDEZ DE ARROYABE

Auzo-lokal berria Zarimutzen

Domekan Zarimutzeko lokal berriaren inaugurazio ekitaldia egingo dute. 12:30ean meza izango da, Santa Agedako koruak lagunduta, eta ondoren, Gatzagako bi trikitilarik alaituko dute luntxa. Zarimutzeko eskola zaharra zegoen tokian dago lokala, eta Eskoriatzako Udalak finantzatu du obra. Batez ere, bilerak egiteko erabiliko dute.

San Pedro jaietarako taldekako Esaldi Lehiaketa martxan da

I.B | ESKORIATZA

Hasi da urtero egiten den San Pedro jaietarako Esaldi Lehiaketa. Maiatzaren 24 arte egongo da epea esaldiak entregatzeko; irudimen handikoak, errimadunak, euskarazkoak... buruari bueltak emateko lehiaketa, duda barik.

13 urtetik gorako edozeinek hartu ahal izango du parte, baina hiru pertsona baino gehiagoko taldea izan beharko da. Talde bakoitzak gutxienez esaldi bat aurkeztu beharko du eta gehienez, gura beste. Bestalde, ez dira onartuko neurriz kanpoko kontsumoa edo jarrera sexistak bultzatzen dituzten esaldiak. Talde bakoitzak gaitzizen bat bakarrik erabil dezake eta pertsona batek talde baten bakarrik har dezake parte.

Udaleko Kultura batzordea izango da lehiaketa horren epaimahaia, eta jasotako esaldi guztien artean aukeraketa egingo du; bada, epaimahaiari onenak iruditzen zaizkionak maiatzaren 28tik ekainaren 6ra bitartean erakusgai jarriko dituzte Facebooken, herritarren botoa jasotzeko. Irabazlea aukeratzeko boto zenbaketan, herritarren iritziak heren bat balioko du eta epaimahaiaren iritziak, bi heren. Ekainaren 10ean iragarriko dute irabazlearen izena, *www.eskoriatza.eus* webgunean, eta irabazi duen esaldiarekin kartel bat jarriko dute herriko plazan San Pedro jaietan. Beste esaldi batzuekin, aldiz, pegatinak aterako dituzte, herrian zehar banatzeko.

Sariak axtrokitan

Lehiaketa irabazten duen taldeari 150 axtrokiko saria emango diote. Pegatinak egiteko erabiliko diren esaldiak asmatu dituen talde bakoitzari, aldiz, 50 axtrokiko saria emango diote.

Kultura etxean, bibliotekan eta kiroldegian gutunontziak jarriko dituzte, esaldiak entregatzeko, eta *euskara@eskoriatza.eus* kontura ere bidal daitezke. Gutun-azalean taldearen izena ipini behar da eta barruan, beste gutun-azal itxi batean, datuen txartela sartu behar da.

Kirol jarduera osasuntsua eta elikadura hizpide

Astelehenean, hilak 18, Edurne Fernandez de Arroiabe nutrizionista Eskoriatzako kultura etxean izango da kirol jarduera osasuntsua egiteko elikadurak nolakoa izan behar duen azaltzen. 18:00etan izango da hitzaldia, eta elikadura eta kirola bat doazela argi utziko du.

Roberto Bolañoren 'Putas asesinas' lana izango dute berbetagai

Roberto Bolaño idazlearen *Putas asesinas* liburuaren gaineko solasaldia izango da datorren eguenean, hilak 21, kultura etxean, 18:00etan. Ruben Angel Ariasek gidatuko du berbaldia, gazteleraz, eta bertaratu nahi duenak izena eman beharko du Udal Liburutegian.

Aitor Escobarren flamenkoaz gozatzeko aukera gaur Sastiñan

Arrasatearrak 'Origen' ikuskizuna eskainiko du, gitarraz eta kaxaz lagunduta

ARANTZAZU EZKIBEL | ARAMAIO

"Oso pozik" dago Larraitz Arriolabengoa Musika Asteak izan duen jarraipenarekin. Eguaztenean, esaterako, Iban Nikolaik jende asko batu zuen Sastiñan. "Umeek galdera pila bat egin zizkioten Ibani, eta amaieran, bai umeak eta baita helduak ere animatu ziren didjeridu instrumentua probatzera".

Atzo, musika eskolako umeen emanaldian, 5 urtetik gorako 40 bat ume elkartu ziren.

Aitor Escobarrek Bergarako gaztetxean egindako saioa. | TXAPA IRRATIA

Flamenkoaren doinuak

Gaur, egubakoitza, Txorbela otxoteak poteoa girotuko du. 18:30ean hasita, herriko lau tabernatan ibiliko dira. Ondoren, Aitor Escobar arrasatearrak *Origen* flamenko ikuskizuna eskainiko du Sastiñan; 20:30ean izango da. Gitarra eta kaxa soinuak herritarrei eskaintzea da asmoa: "Gauza ezberdinak eskaini nahi izan ditugu; ohituta gauden soinu horietatik urrundu eta beste musika mota batzuk erakustea izan da asmoa", azaldu du Arriolabengoak. Iaz, esaterako, jazz doinuak eskaini zituzten.

Kantu afaria

Bihar, zapatua, kantu afaria izango dute. 50 lagun inguru elkartuko dira eskolako jangelan. Domekan, musika asteari agur esateko, Bixente Goikoetxea eta Elai abesbatzen emanaldia.

'Viva Vitoria, Gora Araba!' liburua argitaratu du Velez de Mendizabalek

A.E. | ARAMAIO

Josemari Velez de Mendizabal eta Javier Cameno Urrezko Zeledoiek Jose Mari Sedanoren omenez *Viva Vitora, Gora Araba!* liburua idatzi dute. Arabako Diputazioak argitaratu du liburua; 10 eurotan dago salgai.

Jose Mari Sedano gasteiztarrak Radio Vitorian egin zuen lan 37 urtez, hiriko kronikak kontatzen. Horrez gain, Arabako historiaren eta folklorearen gaineko hainbat lan idatzi zituen. Horregatik guztiagatik, bi aldiz izan zen Urrezko Zeledoi.

M-24

EAJ: "Gogoz lan egingo dugu Aramaio egun bizi duen geldialditik ateratzeko"

A.E. | ARAMAIO

EAJk "ilusioz" hartu du hauteskundeetako erronka. Aramaioko errealitatea "ondo" ezagutzen dutela azaldu dute, eta hautagaitza "berritua baina esperientziaduna" direla gaineratu dute. "Zintzotasunez, gardentasunez eta erantzukizunez" kudeatzen dakitela azaldu dute. "Garapen ekonomikoarekin, hezkuntzarekin, euskararekin, kulturarekin, kirolarekin eta, batez ere, pertsonekin konprometitutako pertsonak gara", diote.

EAJko kideek "ilusioz eta gogoz" lan egingo dutela azaldu dute, "Aramaio egun bizi duen geldialditik ateratzeko".

M-24

Lasartek "elkarbizitza pluralagoa egingo duen ahotsa" izan nahi du

A.E. | ARAMAIO

Javier Lasarte PSE-EEren alkategaia da. Arabako Diputazioan dihardu lanean, eta baita unibertsitatean ere.

Ezkertiar eta aurrerakoi

"Pertsona aurrerakoi eta ezkertiarrei aukera eman nahi diegu", azaldu du. Diputazioan lan egiteak Aramaio ezagutzeko aukera eman dio: "Aramaioren edertasuna eta idiosinkrasia berezia ezagutzen ditut". Aramaion "ahots berri bat" izan nahi dutela gaineratu du Lasartek, "elkarbizitza samurragoa eta pluralagoa egingo duen ahotsa".

Javier Lasarte. | PSE-EE

M-24

EH Bilduk programa aurkeztuko du gaur, 19:30ean, plazan

Herriko plazan elkartuko dira gaur, egubakoitza, EH Bilduko hautagaiak, gaur egun zinegotziak direnak eta programa lantzen ibili diren herritarrak. Programa aurkeztu ondoren, herritarren ideiak, dudak, kritikak eta ekarpenak jasoko dituzte; parte-hartze saio izango da.

OHARRAK

ARGI MOZKETA

Maiatzaren 20an, eguaztena, argia moztuko dute 10:00etatik 13:00etara.

EMAKUMEEN EGUNA

Zuiako Kuadrillako emakumeen topaketa Aramaioko Kultura etxean ospatuko dute ekainaren 5ean. Parte hartu nahi duenak izena eman beharko du maiatzaren 22a baino lehen emakume elkartean edo Zuiako Kuadrillan.

LEINTZ GATZAGA

Bertso afari jendetsua egingo dute bihar, zapatua, Soran etxean

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

21:00etarako egin dute hitzordua Korrika batzordeko kideek biharko bertso afaria hasteko. Oraingoz [eguena], 60-70 bat lagunek eman dute izena bertan parte hartzeko, baina antolatzaileek ez dute baztertzen gehiago ere elkartzea Soran jauregiko mahaiaren bueltan.

Eguneko gonbidatu bereziak eta afariko protagonistak izango dira 20013an eta 2009an Bertsolari Txapelketa Nagusiko txapeldun izandako Maialen Lujanbio (Hernani, 1976) eta 2010ean eta 2012an Bizkaiko Bertsolari Txapelketan finalista izan zen Miren Amuritza (Berriz, 1990) bertsolariak.

Menu gozo-gozoa

Bestalde, biharko ekitaldia bertso afaria izanda, ekimeneko beste elementu ezinbesteko bat afaria bera izango da. Eta hori ere erakargarri askoa izango dute parte-hartzaileek, Soran etxekoek prestatu dieten menua ikusita: frijituak, perretxiko eta ganba nahaskia, saiheskia entsaladarekin, flana izozkiarekin, edaria eta kafea.

Hortik aurrerakoa bertso-afarira doazen partaideen esku geratuko da.

LEINTZ GATZAGA

Maiatzaren 28an aurkeztuko dute gatzagarren erretratu liburua

U.M. | LEINTZ GATZAGA

128 orrialde, formatu etzan samarra, pasta ia gogorra eta gatzagarren erretratuak koloretan, Ezaugarri horiek ditu Jose Felix Diaz de Tuesta arrasatear argazkilariak landutako liburuak, Leintz Gatzagako bizilagunei ateratako argazkiekin landutakoak, alegia. Bukatuta dago, eta datorren maiatzaren 28an, eguena, aurkeztuko dute Leintz Gatzagako kultura etxean, 19:00etan. 200 ale argitaratuko dituzte.

Xehetasun gehiago ere eman ditu egileak: "Familia argazkiek alderik aldeko espazioa hartzen dute; eta beste orri batzuetan, berriz, erretratu bat baino gehiago daude, kide gutxiagoko familien argazkiak, hain zuzen ere".

Zeregin handia dago, oraindik ere, euskal sinismen zaharrak jasotzen

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Astelehenean euskal mitologiari buruzko tailerra egin zuen Gurutz Garmendia azkoitiarrak liburutegian. Euskal sinismen zaharren gaineko informazio ugari eman zuen. Gaur, barikua, ipuin kontaketa egingo du, 18:00etan, adin guztietako entzuleendako.

'Ezetz igarri!' lehiaketa

Kepa de Vegak irabazi du liburutegitik antolatutako *Ezetz igarri!* lehiaketako saria. Eskatutako bi liburuen izenburuak asmatu ditu De Vegak eta liburu elektroniko bat irabazi du.

Gurutz Garmendia lauburuaren gaineko azalpenak ematen, liburutegian. | L.Z.

IMANOL SORIANO

Ekitaldi parte-hartzailea

Herriko plazan egin zuen EH Bilduk hautagaiak eta hauteskunde programa aurkezteko ekitaldia, barikuan. Ekitaldi parte-hartzailea egin zuten. Amaieran, talde argazkia atera zuten.

Metal kontzertuak, kantuak eta dantza saioa aste bukaeran

L.Z. | ELGETA

Metalmania taldeak egingo du kontzertua gaur, barikua, Espaloian. Aurretik, 20:00etan, argazki erakusketa zabalduko du Eider Iturriagak antzokian. Bihar, berriz, Su Ta Gar taldea izango da Espaloian. Eta domekan, Debagoieneko I. Kantu eta Dantza Eguna egingo dute herrian —ikus 28. orria.

Gaztetxearen etorkizunaz hitz egiteko batzar berezia deitu dute zapaturako, hilak 16, 17:00etan

Gauzak nondik nora bideratu izango dute hizpide bihar Elgetako gaztetxean. Gazte Asanbladak batzar irekia deitu du, eta herritar guztiak daude bertan parte hartzera gonbidatuta. Batzarrarekin batera kantu afaria ere antolatu dute, 22:00etarako.

Eguaztenean telebista saio berezia Elgetako alkategai Iraitz Lazkanorekin eta Nerea Villarekin

Nork bere taldearen hauteskunde programa aurkeztuko du Goiena telebistak eguaztenean, 21:30ean, emango duen saio berezian. Hirigintza, ingurumena, kultura, euskara, gizarte ongizatea eta kirola dira Goienak proposatu dizkien atalak. Elias de Castro alkategai sozialistak uko egin dio saioan parte hartzeari.

Ozkarbi elkarteak 50. urteurreneko ospakizunak iragarri ditu ekaineko lehenengo aste bukaerarako

Ekainaren 5erako herri mailako pilota partiduak iragarri dituzte, eta ekainaren 7rako, mendi irteera, herriko gazteen dantza saioa eta bazkaria. Maiatzaren 19a da bazkarirako izena emateko azken eguna. Prezioa da 25 euro, eta Kutxabanken egin behar da ordainketa. Kontu korrontea hau da: 2095 5037 15 1060020772.

OHARRAK

ASENTZIO EGUNA

Domekan, hilak 17, Asentzio Eguna da, baina urteroko meza bezperan egingo dute. Zapatuan, hilak 16, 12:00etan, ermitan.

PODOLOGOA

Eguenerako, hilak 21, txanda hartzeko deitu 943 76 80 77 telefono zenbakira (Nati).

INTXORTAKO LEHOIAK

Athleticeko lagunarteak Kopako finalerako bi sarrera zozketatuko ditu bazkideen artean bihar, 19:00etan, Bolatokian.

GU GEU ELGETA

Domekan, 12:00etan, ekitaldi politikoa eta talde argazkia herriko plazan.

TXIRRINDULARITZA

Erlojuaren kontrako borroka estua gaur Bergaran

Gipuzkoako Emakumeen Itzuliko bigarren edizioa hasiko dute Bergaran, bi kilometroko erlojupekoaz

XABIER URZELAI | ARRASATE

Bihotzak estutzeko tarte txikia izango dute gaur, egubakoitza, Gipuzkoako Emakumeen Itzulian parte hartu behar duten ziklistek –17:00etan aurkezpenak San Martin plazan, 18:30ean lasterketa hasiera–. Itzuliak hiru etapa izango ditu, eta atariko proba erlojupekoa izango da: motza, azkarra eta teknikoa. Hala, ondo berotu ostean ziklistek ia bi kilometro izango dituzte daukaten onena emateko, Agorrosinen hasi eta San Martin plazan amaituko den zirkuituan. Eta hori guztia bergararren txalo artean: "Iaz oso gustura geratu ginen erlojupekoaz, eta aurten gauza bera egitea erabaki dugu", adierazi du aste barruan Jon Unamunok, Lokatza Ziklismo Eskolako presidenteak.

Hala, distantzia horretan zaila da sailkapenean alde handiak lortzea: "Baina, askotan, erabakigarriak izaten dira, Bergaran lortzen diren segundoak defendatzen ahaleginduko direlako txirrindulariak zapatuko eta domekako etapetan. Hain zuzen, iaz Leire Olaberria irabazleak egin zuen moduan".

Iazko erlojupekokoan, txirrindulari bat irteera puntuan. | IMANOL SORIANO

Hiru etapa guztira

Bergarako etaparen ostean txirrindulariek Tolosan jokatuko dute bigarren etapa, zapatuan, 83 kilometroko lasterketarekin –kadeteek 33 kilometro egingo dituzte–. Eta domekan erabakiko da Itzulia, Villabona eta Zizurkil artean antolatu duten 82 kilometroko etaparekin –kadeteendako 30 kilometro izango dira.

Iaz azpimarratzekoa izan zen ziklista euskaldunek erakutsitako maila ona. Elitean Leire Olaberria ikaztegietarra izan zen onena, gazte mailan Eider Unanue zumaiarra eta kadeteetan Maddi Amondarain bigarren izan zen.

Zirkulazioan aldaketak

Erlojupekoa ondo antolatu ahal izateko hainbat aldaketa izango dira gaur Bergarako kaleetan. Artekale kalea zirkulaziora zabalik egongo da, baina Matxiategiko irteera itxi egingo dute eta automobilek Zurraderotik irten beharko dute.

Lasterketa Leizaria, Madura, Subiera, Fraizkozuri, Herrilagunak, Domingo Irala, Irizar eta Barrenkaletik igaroko da.

ESANAK

"Erlojupekoaz gustura geratu ginen iaz, eta errepikatu egingo dugu"

"Erlojupekoan lortzen diren denbora tarte txikiak erabakigarriak izan daitezke Itzulirako"

JON UNAMUNO | LOKATZA

Rezusta, joan den egubakoitzeko partiduan. | IMANOL SORIANOO

PILOTA

Rezusta: "Irujori gerra apur bat emateko asmoz noa; ondo egin beharko dut dena"

Xala kanpoan utzi eta gero, Bergarakoak domekan jokatuko du txapeldunaren kontra, Eibarren

XABIER URZELAI | ARRASATE

"Xala kanpoan utzi izana kristorena izan da, eta hurrengo partidua Irujoren kontra jokatzea ere kristorena da". Beñat Rezustaren adierazpenak dira, egubakoitzeko kanporaketaren ostean oraindik harmailetatik txaloak jasotzen zebilela.

Partidu aurretik etxeko zaleen aurrean huts egiteko beldur zen Bergarakoa, baina partidu ostera arte ez zuen halakorik aitortu. Izan ere, Aspek partidua Bergaran antolatzeak ez zion grazia handirik egin: "Bergaran jokatu nuen azken partiduan kale egin nuen, eta ostera ere horrelako zerbait gertatzeko beldur nintzen".

Kontrara, baina, inoiz baino patxada handiagoa erakutsi zuen kantxan, horrenbesteko garrantzia ematen zion beroketa saioan sentsazio onak izan zituen, eta botileroari ere horixe aitortu zion, ondo sentitzen zela. Minutu gutxi batzuk geroago kantxan berretsi zuen hori, Ives Salaberrik ezer gutxi egin ahal izan zuen-eta (22-14).

Irujo estutzeko asmoz

Iberoko aurrelariak dagoeneko tente izango ditu belarriak. Pilotari moduan gaur egun ezin dira alderatu Xala eta Irujo, baina Bergarakoa "gerra" apur bat emateko asmoz kantxaratuko da domekan, Astelena pilotalekuan (17:00): "Dagoeneko entrenatu naiz Irujorekin, eta sentsazio onak izan nituen, gustura ibili nintzen. Irujo, baina, beste maila bateko pilotaria da, eta Xalaren kontrakoa baino partidu hobea egin beharko dut hura ezustean harrapatzeko".

Etxanizek berak aitortu zuen Irujorendako kontrario deserosoa dela Rezusta, pilotari ematen dion abiaduragatik, jotzen dion moduagatik. Buruz burukoan debuta egin berri, baina, Rezustak egin ditu etxeko lanak, eta domekakoa oparia izango da.

TRI XER TAK
Buatxabal
berria
2015/05/T11

FUTBOLA

Derbia Aretxabaletak eta Aloñak eta finalak Bergara eta Antzuolarendako

Valleren mutilek igoera fasean dute burua; Serranok minutuak banatuko ditu taldeko gazteen artean

XABIER URZELAI | ARRASATE

Sailkapenari begira uste baino gutxiago egongo da jokoan domekan (16:30, Ibarra) Aretxabaletak eta Aloña Mendik jokatuko duten derbian. Oñatiarrak lasaitasun postuetan daude, eta horrek aukera emango dio Igor Serranori gazteei minutuak ematen joateko. Eta bestetik, joan den astean Agorrosinen puntu bakarra eskuratuta (1-1), Aretxabaletak liga irabazteko –eta Hirugarren Mailara zuzen igotzeko– aukerak galdu ditu, Aurreraren mesedetan. Hala, Gorka Valleren mutilek dagoeneko *play-off*-ean dute burua, eta ligako azken bi jardunaldietan ere minutuak banatzen ahaleginduko da, jokalari garrantzitsuei atseden emateko asmoz.

Etxabe baloia astintzeko gertu 2012ko derbian. | GOIENA

Kategoriari eusteko lehian

Antzuola aspaldi ohitu zen jaitsiera postuetan egotera, eta goiz sartu zen kategoria galtzeko kiniela guztietan. Eurak izan ziren mailari eusteko kapaz zirela sinistu zutenak, eta atzetik aurrera datoz. Bergarak gorabeheratsu jarraitzen du, eta Juanina Garairen etorrerarekin erreakzioa egon bazen ere, azken asteotako emaitzek zigortu egin dute taldea.

Besteen emaitzen zain

Hala, geratzen diren bi partiduak irabaztera behartuta daude Antzuola (29 puntu) eta Bergara (30), eta lehia horretan sartuta dauden Zarautzen (30), Usurbilen (31) eta Hondarribiaren (33) emaitzen zain egon behar dute.

Ezohiko ordutegian, domekan, Antzuolak liderra hartuko du Estalan (16:30), Aurrera. Eta, ikusteko dago liga txapeldunak ze jarrera erakusten duen, dagoeneko liga irabazita daukate-eta.

Beste horrenbeste gertatzen da Bergararekin, haren kontrario Touringek ere ez du-eta ezer jokoan, seigarren daude-eta (zapatua, 16:30, Fanderia).

Mondra sari gabe geratu da

Bigarren itzuli oso ona egin badute ere, erregional preferentean Mondrak (54 puntu) bigarren sailkatu Mutriku (60) harrapatzeko aukerak galdu ditu, eta mailaz igotzeko aukera ia guztiak galdu. Hain zuzen, mutrikuarren kontra jokatuko dute bihar, zapatua, ligako azken partidua, (16:30, Mojategi). Getariako da zuzen igoko den taldea.

PILOTA

Asteburuan jokatuko dute Arrasatek eta Oñatik Herri Arteko Txapelketako itzulerakoa

X.U. / J.D. | ARRASATE

Asteburuan erabakiko dute Arrasatek eta Oñatik Herri Artekoan aurrera egingo duten edo ez. Mondragoetarrek 2-1 irabazi zuten joanekoan, Andoainen, baina han egindako lan ona etxean, Uarkapen, errematatu behar dute zapatuan (18:15). Hala, pilota sailetik herritarrak animatu gura dituzte etxeko hiru bikoteak animatzera joateko.

Oñatitik autobusa

Aloña Mendikoek, ostera, ez dute halako abantailarik Bidania Goiatzekoen kontra, etxean 1-2 galdu zuten-eta. Gaur (20:30) etxeko zaleak gertu izango dituzte pilotari txantxikuarrek, Oñatitik autobusa antolatu dute-eta. Jarraitzaileen animoekin eta astean zehar egindako lan gogorrari esker, kanporaketari buelta ematen saiatuko dira.

ATLETISMOA

Dena prest domekan Aretxabaletan jokatuko den Otala Zelai herri-kroserako

J. D. | ARETXABALETA

Domekan jokatuko da 37. Otala Zelai herri-krosa, eta, goiz osoan, korrikalariek Aretxabaletako Urkulu urtegia hartuko dute. 10:00etatik 11:00etara benjaminen, alebinen eta infantilen txanda izango da, eta, 11:00etatik aurrera, nagusiek emango diote Urkuluri buelta.

Duela bi urte hil zen Joseba *Mardo*-ren oroimenezko proba izango da aurtengoa ere, eta izena egunean bertan ere eman ahal izango da.

Gero, erromeria

Krosaren osterako, erromeria antolatu dute Aretxabaletako Udalekoek.

TXIRRINDULARITZA

Tinkoff Saxo taldeko zuzendari Patxi Vilak berbaldia emango du

Patxi Vila txirrindulari ohi eta gaur egun Tinkoff Saxo taldeko prestatzailearen hitzaldia antolatu du Arizmendi Ikastolak maiatzaren 21erako. Entrenamenduen joera berriez, profesionalen elikaduraz eta bizikletez jardungo du, Ferixalekuan, 18:00etan hasita. Izena ematea beharrezkoa da.

MENDI LASTERKETA

Debagoieneko hamaika korrikalari domekan, Zegama Aizkorrin

Domekan jokatuko da Zegama Aizkorri mendi lasterketa. Aratz eta Aizkorri mendilerroetan zehar, EAEko tontorrik garaienetatik igaroko dira korrikalariak; 42,195 kilometrotan, 5.472 metroko gorabeherak metatuta. 09:00etan hasiko da proba, Zegaman.

BORROKA ARTEA

Atama kenpo taldekoek emaitza onak eta Laida Ramos Estoniara

Eskoriatzako Atama kenpo taldeko borrokalariek Las Rozasen jokatu zuten Espainiako txapelketa, eta pasa den astean "disfrutatzera" zihoazela esan zuten arren, emaitza onak ekarri dituzte etxera. Horrez gain, Laida Ramos arrasatearrak Espainiako kyokushin karate txapelketa irabazi zuen eta Europako txapelketarako txartela lortu du; asteburuan Estonian lehiatuko da.

SASKIBALOIA

40 minutuan denboraldi osoa jokoan izango dute Soraluze Bergarako mutilek

Mailaz igotzeko aukera paregabea dute Bergarako saskibaloi taldeko mutilek bihar, zapatua, Zarautzen, 16:00etan. *Play-off*-aren lehen partidua etxean 53na berdindu ostean, Oriokoren aurka azken partiduan dute dena erabakitzeko. Denboraldiari amaiera paregabea emateko aukera duten arren, oso partidu gogorra izango dela ongi dakite bergararrek; hala ere, gogotsu kantxaratuko dira.

ULMA — ULMA C y E, S. Coop. — Oñati

OHIKO BATZAR NAGUSIA
D E I ALDIA

Eguna: 2015eko maiatzaren 22a.
Ordua: 09:00etan lehen deialdia eta 09:30ean bigarrena
Tokia: Zubikoa kiroldegiko frontoia – Oñati (Gipuzkoa)

GAI ZERRENDA

1. Aurreko aktaren onarpenari buruzko informazioa eta bazkideak izendatzea Batzar honetako akta onartzeko
2. 2014ko ekitaldiko gestio soziala aztertzea eta, badagokio, onartzea, eta 2015eko gestio plana berrestea
3. ULMA Taldeari buruzko txostena
4. 2014ko ekitaldiko urteko kontuak aztertzea eta, badagokio, onartzea
5. Auditorea izendatzea edo berrautatzea
6. 2014ko ekitaldiko emaitzak banatzea
7. Heziketa eta Kooperatiba Sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako kontribuzioa aplikatzea (IPDK)
8. Supraegiturako entitateei buruzko gaiak
9. Ekonomia araubideko estatutu-xedapenak
10. Menpeko Ekarpen Finantzarioen jaulkipena
11. Kontseilu Errektoreko kideak berritzea
12. Zaintza Batzordeko kideak berritzea
13. Ahalmenak eskuordetzea
14. Galde-eskeak

OHARRAK: Bazkideei gogorarazten zaie sozietatearen egoitzan eskuragarri dituztela urteko kontuak, emaitzak aplikatzeko proposamena eta kontuen kanpo ikuskaritzak egindako gestio txostena, Batzar Nagusiaren deialdiaren epean zehar aztertu ahal izan ditzaten.

KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA
Oñati, 2015eko maiatzaren 5a

ULMA — ULMA Packaging, S. Coop. — Oñati

OHIKO BATZAR NAGUSIA
D E I ALDIA

Eguna: 2015eko maiatzaren 21a.
Ordua: 14:30ean lehen deialdia eta 15:00etan bigarrena
Tokia: Zubikoa kiroldegiko frontoia – Oñati (Gipuzkoa)

GAI ZERRENDA

1. Aurreko aktaren onarpenari buruzko informazioa eta bazkideak izendatzea Batzar honetako akta onartzeko
2. 2014ko ekitaldiko gestio soziala aztertzea eta, badagokio, onartzea, eta 2015eko gestio plana berrestea
3. ULMA Taldeari buruzko txostena
4. 2014ko ekitaldiko urteko kontuak aztertzea eta, badagokio, onartzea
5. Auditorea izendatzea
6. 2014ko ekitaldiko emaitzak banatzea
7. 2014ko ekitaldiari dagozkion interesak sortzea
8. Heziketa eta Kooperatiba Sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako kontribuzioa aplikatzea (IPDK)
9. Supraegiturako entitateei buruzko gaiak
10. Ekonomia araubideko estatutu-xedapenak
11. Menpeko Ekarpen Finantzarioen jaulkipena
12. Kontseilu Errektoreko kideak berritzea
13. Zaintza Batzordeko kideak berritzea
14. Kontseilu Sozialeko kideak berritzea
15. Ahalmenak eskuordetzea
16. Galde-eskeak

OHARRAK: Bazkideei gogorarazten zaie sozietatearen egoitzan eskuragarri dituztela urteko kontuak, emaitzak aplikatzeko proposamena eta kontuen kanpo ikuskaritzak egindako gestio txostena, Batzar Nagusiaren deialdiaren epean zehar aztertu ahal izan ditzaten.

KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA
Oñati, 2015eko maiatzaren 6a

Iaz egin zuten *Elgeta kantuan* ekimeneko parte-hartzaileak. | GOIENA

Debagoieneko Kantu eta Dantza Eguna Elgetan

Debagoieneko eta Euskal Herriko hainbat txokotatik etorritako kantuzaleak batuko dira etzi, domekan

A. ARANBURUZABALA | ELGETA

Entsegu lokalean ikasitako kantuak herritarrekin partekatu eta, bide batez, kalea girotzeko asmoarekin ekin zioten orain dela bi urte *Elgeta kantuan* ekimenari. Harrezkero, urtean bina ekitaldi egin dituzte, eta lagun asko batu dira horietan guztietan, kantu herrikoiak abesteko aitzakian.

Domekan egingo dute hurrengoa; oraingoan, baina, herrikoez gainera, askotariko herrietatik datozen kantuzaleak gonbidatu dituzte; dagoeneko 130 lagunek eman dute baiezkoa. Debagoieneko parte-hartzaileak izango dira: Arrasateko Portaloi elkartekoak eta Aretxabaletako Basotxo elkartekoak, hain justu. Horiez gainera, Eibartik ere bi talde izango dira –aurrez ere izandakoak–, eta baita Bizkaitik ere: Bilbotik eta Balmasedatik talde bana, hain zuzen ere. Azken horiek, abeslariez gainera, musikariak ere ekarriko dituzte.

Egun osoko egitaraua

12:00etan herriko plazan elkartuko dira, elkar ezagutu eta mokadutxo bat egiteko, anfitrioiek prestatutako salda eta txorizo -pintxoa izango dute-eta parte-hartzaileek.

Kantu-liburuak eskuetan hartuta, 13:00etan abiatuko dira plazatik, aurrekoetan egindako dinamika bera jarraituaz, erdigunetako kaleetan zehar, taberna inguruetan geldialdia eginda. Lorea Larrañagak eta Jose Antonio Retolatzak prestatu dute kantu zerrenda. Espaloia antzokian bazkalduko dute ondoren 120 lagunek, eta, bazkalostean, Jose Gardokirekin eta Beñat Leanizbarrutiarekin dantzaldia egingo dute. Eguna bukatzeko, Jainaga eta Narbaitza trikitilariekin Patxi Monterok gidatutako Herrixa Dantzan saioa egingo dute; Espaloian izango da hori, 18:00etan.

PATXI BASAURI | ANTOLATZAILEA

"Polita izango da 130 lagunetik gora Elgetako kaleetan kantuan entzutea"

GOIENA

Gabonetan prestatzen hasita, ilusioarekin daude domekako ekitaldirako.

Debagoienera zabaldu duzue. Zer dela eta?

Arrasateko Portaloi elkartetik heldu zitzaigun kantatzeko eta dantzan egiteko eguna antolatzeko proposamena. Ideia ona iruditu zitzaigun, eta horrela hasi ginen taldeak biltzen.

Gustura emaitzarekin?

Bai, horixe; denbora luzeagoarekin talde gehiagorengana helduko ginatekeen arren, pozik gaude, bai, 130 lagunetik gora batuko gara-eta.

Domekan Elgetan; datorren urtean beste herriren baten egiteko asmorik baduzue?

Hori da, bai, hasiera bateko asmoa, Debagoieneko beste herriren batek hartzea lekukoa, eta ekitaldi ibiltari bilakatzea. Hala ere, herrirako prestatutako ekitaldiekin ere jarraituko dugu, Elgetan sekulako harrera izan dute-eta.

Gormutuen eskubideak aldarrikatzeko ikuskizuna

A. A | BERGARA

Gorrak dauden pertsonak batzen dituen elkartea da Donostiako Manos K Rien kultura elkartea. Ezintasun horiek dituztenen eskubideen alde lan egiten du 2009. urtea geroztik, besteak beste, Zeinu hizkuntzaren hedapena sustatuz eta askotariko ekimen artistikoak bultzatuz.

Bergarako Zabalotegi aretoan izango dira bihar, zapatua, 20:00etan. Zortzi eurotan eskura daitezke leihatilan sarrerak.

Osagai askotako ikuskizuna

Taularen gainean hogei lagun izango dira, gorrak dira guztiak.

Askotariko piezekin osatutakoa da bihar Zabalotegin erakutsiko duten ikuskizuna. Lau taldetan banatuta, bata bestearen segidan, poesia, *clown*, antzerki eta mimo saio bana egingo dute. Aipatutakoez gainera, Manos K Rien taldekoek egindako bi film labur ere eskainiko dituzte ikuskizuna borobiltzeko: *Mafia* eta *Nunca te olvidaré*. Azken horrek aktore onenaren saria eskuratu zuen iazko Badalonako film laburren jaialdian. Iaz izan ziren lehenekoz Bergaran, eta izan zuten harrera ona gogoan, gogotsu datozela diote donostiarrek.

Bihar, zapatuan, Bergaran egingo duten ikuskizunaren kartela. | MANOS K RIEN

Zea Mays eta Pasajero taldeek joko dute Oñatin

A. A | OÑATI

Datorren egubakoitzean, maiatzaren 22an (22:30), egingo du Zea Mays taldeak otsailean bertan behera utzi zuten kontzertua. Gustuko duten Madrilgo Pasajero taldearekin partekatuko dute agertokia: "Estatuan izen handia duen taldea da; oso abesti onak egiten dituzte. Kontzertu indartsua eskaintzeko gogotsu gaude gu ere, *Da* diskoa oinarri hartuta, kantu zaharragoei ere lekua eginez", dio abeslariak.

Sarrerak zortzi eurotan eskura daitezke: Oñatin, Boga eta Pako tabernetan; Arrasaten, Amaiur tabernan; eta Bergaran, Deportibo tabernan. Leihatilan, berriz, hamar eurotan.

Kantu berriak egiten ere bai

"Oso gustura gaude *Da* birarekin, eta horregatik ez dugu amaiera noiz izango duen finkatu. Kontzertuekin batera, lokalean buru-belarri ari gara, kantu berriak sortzen. Aurtengo Ibilaldiaren kantua egin genuen, eta orain, beste proiektu baterako ari gara lanean. Horrez gainera, hainbat bertsio ere egin ditugu, eta baita hainbat kantu berreskuratu ere", dio Aiora Renteriak.

Zea Mays 2012an Oñatiko gaztelekuan egin zuten kontzertuan. | GOIENA

'Hiri asko bere baitan' ikuskizuna eta film laburrak kartzela zaharrean

A. ARANBURUZABALA | BERGARA

Argazki eta bideo proiekzioak, musika eta antzerkia batzen dituen diziplina askotariko ikuskizuna da *Hiri asko bere baitan*. "Ikusleei unibertso bisual, literario eta soinudun berezian murgiltzeko aukera eskaintzen diegu, herrietan eta hirietan ezkutuan dauden askotariko istorioak elkarrekin josita", adierazi du Asier Olabarrietak, egitasmoaren bultzatzaileak.

Gaur, egubakoitza, Bergarako gaztetxean eskainiko dute, 22:00etan, *Egubakoitzak teilatupian* egitarauaren barruan. Euria eginez gero, kartzelako patioan beharrean gaztetxe barruan izango da saioa. Sarrerak hiru euroren truke eskura daitezke.

Lehiaketa baterako sortua

Bilboko Udalak antolatzen duen *Ideiak martxan* lehiaketan du ikuskizunak abiapuntua: "Abesti, erakusketa eta bestelakoekin irabazi genuen lehiaketa, eta martxoan estreinatu genuen horien guztien batura den 50 minutuko zuzeneko ikuskizuna".

Lau lagun dira taularen gainean, horien artean bi debagoiendar: Kepa Errasti aktore aretxabaletarra eta Aitzol Muxika musikari bergararra: "Kepak bakardadeari, maitasunari eta hirien eraldaketari buruzko istorioak kontatuko ditu, eta baita abestu ere; eta Aitzolek baxua eta tronboia joko du".

Ikuskizunaren ondoren, film laburren emanaldia egingo dute gaztetxeko Asanbladakoek.

Salgai daude Elgetako Magia Mostrako sarrerak

Hainbat ikuskizun izango dira maiatzeko azkenengo aste bukaeran

GOIATZ ARANA | ELGETA

Elgetako herria prest dago maiatzeko azken asteburuan kalitatezko magia eta ilusionismoa gustuko duten pertsonak hartzeko. Orduantxe egingo da Magia Mostraren 11. edizioa: zoragarri funtzionatuko duen kartel batekin, antolatzaileen esanetan, eta orain arteko formatu berarekin. Sarrerak eguaztenean bertan jarri dituzte salgai, eta, ohi bezala, prezio bereziak daude Espaloiko bazkideendako.

Magia Mostraren antolatzaileak, aurkezpenean. | G.A.

Magialdiarekin batera

Urtero bezala, Gasteizko Magialdia magia jaialdiaren laguntzarekin antolatu dute Elgetako mostra, eta Magialdiko antolatzaile Jose Angel Suarezek honakoa esan zuen Elgetako aurkezpenean: "Zoragarri funtzionatuko duen kartel batekin egingo da aurtengoa, aurreko urteetako formatu berdinarekin. Beti bezala, artistarik onenen eskutik iritsiko da magia Elgetara".

Adrian Conde argentinarrarekin hasiko da aurtengo edizioa, *Piccolo Camerino* ikuskizunarekin; magia eta antzerkia uztartzen dituen ikuskizuna da, adin tarte askotako jendeari zuzenduta. Ikuskizun horretarako sarrerak 15 eurotan salduko dituzte; bazkideendako, 10 eurotan.

Lau mago eta aurkezle bat

Conde bera arduratuko da hurrengo egunean egingo den aurtengo edizioko jaialdi izarra aurkezteaz. Lau artistak parte hartuko dute, oso aukeratuak eta sarituak laurak: Nuel Galan valentziarrak manipulazio magia egingo du; Madrilgo Los Taps bikoteak komedia magikoa egingo du; Bartzelonako Mag Marin-ek, *Grandes Ilusiones* ikuskizuna; eta Lautaro madrildarrak, klasiko bat: usoekin egindako magia. Magia galako sarrera 18 euro kostatuko da; bazkideendako, 15.

Horiez gain, zapatu arratsaldean (16:30etik aurrera) eta domeka goizean (11:00etatik aurrera) umeentzako magia tailerrak izango dira, eta domeka eguerdian tabernetan egingo dute magia. Sarrera doan da hiruretan.

MAGIA MOSTRA, EGITARAUA

29, EGUBAKOITZA

22:30 *Piccolo Camerino*, Adrian Conde (Argentina)

30, ZAPATUA

16:30 Familia osoarendako tailerrak Udal Aretoan.

19:00 Magia gala: *Grandes Ilusiones*, Mag Marin (Bartzelona); komedia magikoa, Los Taps (Madril); manipulazio magia, Nuel Galan (Valentzia); usoekin egindako magia, Lautaro (Madril).

31, DOMEKA

11:00 Magia tailerrak ume eta gazteei zuzenduta.

12:00 Eguerdiko Magia tabernetan zehar.

SARRERAK SALGAI

Espaloia antzokian
Pikupen (*www.pikupe.com*).

Twitter eta bertsoak uztartu ditu Bertxioak

KOMUNITATEA GOIENA | JOSU ZUBIA
HUHEZI | ESKORIATZA

Aurten ere berriz antolatu du Huheziko euskara batzordeak Bertxioa, sare sozialak eta bertsolaritza uztartzen dituen saioa. Eskoriatzako fakultateko Kaperan izan zen saioa martitzen arratsaldean, eta hogeita hamar bat pertsona bildu ziren bertan, saioaz gozatzeko asmoz.

Twitterreko gaiak

Arazo tekniko batzuk egon baziren ere, giro atsegina sortzea lortu zuten bertsolariek: Alaia Martinek, Miren Amuritzak eta Oihana Bartrak. Gai-jartzaile Iñigo Otaegi aritu zen, Twitter kontuko gaiak aukeratu eta proposatzen.

Giro goxoa

Gaiak denetarikoak izan ziren. Barrerako eta hausnarketarako tartea izan zen bertan. Giroa hasieran berotzea kosta bazen ere, saioa aurrera joan ahala giro goxoa sortu zen. Bertsolariak ere gustura geratu ziren egindako lanarekin.

Debagoieneko
GREMIOAK

AROZTEGIAK
AZKARATE AROZTEGIA
BERGARA
• Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak.
• K-21
Telleria 19 B02-B03
Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
blogak.goiena.net/azkarate

ERAIKUNTZAK
ARRASATE ERAIKUNTZAK SL
ARRASATE
Meatzerreka auzoa
Tel.: 943 77 12 26 / 659 67 17 59
e.arrasate@euskalnet.net

HONDEAKETAK
EXCAVACIONES Y CONTRATAS ARRASATE SL
ARRASATE
Meatzerreka 30
Tel.: 943 77 12 26/ 646 29 59 87
e.arrasate@gmail.com

ITURGINTZA
EGIA ITURGINTZA
ARRASATE
Gipuzkoa etorbidea 39, behea
Tel.: 943 77 01 85

OYANGUREN ITURGINTZA
ESKORIATZA
• Iturgintza eta gasa
• Berogailuak eta petrolio-produktuak
• Klimatizazioa
Aranburuzabala 15
Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69
f.oyanguren@ctv.es

URKO MANTENIMIENTO SL
ARETXABALETA
• Instalazioen mantentze-lan guztiak
• Berokuntza eta gasa
• Aire girotua eta haizeztatzea
Basabe industrialdea B-3
Tel.: 943 77 19 88
Faxa: 943 79 59 97

LEIHOAK
ARGI-PLASTIK
ARRASATE
Zigarrola kalea 1, 8 pab
Tel.: 943 77 11 30

LOREZAINTZA
MAKAI KOOP. ELKARTEA
ARETXABALETA
• Barruko zein kanpoko lorezaintza
• Ureztatzeko sistemak
• Loreontzi-euskarriak eta balkonerak
Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
Faxa: 943 79 78 45

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 25 05 05** zenbakira.

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.eus | www.goiena.eus/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA: **PREZIO BEREZIAK** GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.

Astebeteko prezioa: 17 euro / 15 euro Goiena Klubeko bazkideentzat (BEZ barne).
Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
Iragarkiak Goiena paperean eta Goiena.eus-en argitaratuko dira.

- Profesionalen moduluak.

Modulo bakarra: 22 euro (+BEZ).

1. ETXEBIZITZAK
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

2. GARAJEAK
201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

3. LOKALAK
301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

4. LANA
401. Eskaintzak
402. Eskaerak
403. Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA
501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

6. MOTORRA
601. Saldu
602. Erosi
603. Errentan eman
604. Bestelakoak

7. ANIMALIAK
701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

8. DENETARIK
801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805.Trukatu
806.Galdu
807.Aurkitu
808. Bestelakoak

9. HARREMANAK
901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Aramaio. Arraga auzoan baserria salgai, lursailarekin. 615 71 02 07 edo 615 70 59 96

Barrundian etxea salgai. Heredian etxea salgai, Garaiotik 5 minutura. Bi logela, egongela, komuna, sukalde-egongela, garajea eta lorategi txikia. Berokuntza gasarekin eta tximiniarekin (berogailuetara konektatuta). 190.000 euro. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 616 24 77 83

Bergara. Etxebizitza salgai erdigunean, Burdinaten. Hiru logela, egongela, sukaldea eta bi komun, trastelekua eta igogailua. Garajea aukeran. Guztiz jantzita eta bizitzera sartzeko moduan. Argitsua. 93 metro koadro. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 696 99 25 01

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Ferrerias kalean logela bateko etxebizitza ematen da errentan. 619 34 88 52

Conil de la Frontera (Cadiz). Bi etxebizitza ematen dira errentan opor sasoirako. Bata bi logelakoa eta bestea hirukoa. Hondartza ondoan. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 653 73 34 57. Rosa Mari

Oñati. Etxebizitza ematen da errentan erdigunean. Lau logela eta bi komun. Guztiz berritua eta berokuntzarekin. Hilean 600 euro. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 650 60 12 14

Pineda (Tarragona). 65 metro koadroko etxebizitza ematen da errentan. Terraza handia eta altzariz hornitua. Hondartzatik 200 metrora. Urte osorako edo uda sasoirako. Asteko, hamabost eguneko eta hilabeteko tarifak. Harremanetarako, deitu 634 42 13 70 zenbakira edota idatzi posta elektronikoa honako helbidera: oskar.carrascal@gmail.com.

Santo Domingo de la Calzada. Etxebizitza ematen da errentan, udarako edo ikasturterako. San Inazio konplexuan, eraikin berdean. Hiru logela. Berritua. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 645 71 68 47 edo urrubiz@hotmail.com

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Etxebizitza behar dugu errentan. Erdigunean eta bi logelakoa bada, hobeto. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 634 84 41 94

Arrasate. Etxebizitza errentan hartuko genuke Arrasaten. Hiru logela eta igogailua behar ditugu. 638 05 89 13

Arrasate. Pertsona arduratsua naiz eta lanean ari naiz. Bi logelako etxebizitza txikia hartuko nuke errentan. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 722 45 33 59

Bergara. Etxebizitza errentan hartu nahi dut. Presazkoa da eta gehienez 400 euro ordain ditzaket. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 689 69 79 86

Bergara. Etxebizitza errentan hartu nahi dut. Interesatuak deitu ezazue telefono hauetara: 602 17 02 51 edo 602 03 33 56

Bergara. Etxebizitza behar dut errentan. Urgentea da. 696 84 19 51

Bergara. Igogailua duen etxebizitza behar dut errentan. Logela bat edo bikoa. Hilean 400-500 euro ordain ditzaket. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 697 86 48 91

105. ETXEAK OSATU

Arrasate edo Bergara. Neska euskalduna logela bila, Arrasaten edo Bergaran. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 688 82 69 68

Arrasate. Logela ematen da errentan erdigunean. Ikasle edo langileendako. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 619 88 60 30

Bergara. Mutil arduratsuak logela edo apartamentu txikia behar du errentan. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 610 34 97 88

Logela bila Oñatin. Oñatin logela bila nabilen neska arduratsua naiz. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 688 64 19 25

2. GARAJEAK

204. ERRENTAN HARTU

Santa Marina. Santa Marina auzoan garaje txia hartuko nuke errentan. Zure garajea errentan eman gura baduzu, mesedez, jarri nirekin harremanetan. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 686 62 66 24

Ibargoiti 3 • BERGARA
Tel./ Faxa: 943 76 07 97
www.inmokoroati.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA:
- Matxiategi 80 m², 3 logela. Berriztuta. Terrazarekin. 200.000 €.
- Madura 57 m², 2 logela. Oso egoera oneen. PREZIO JEITSIERAREKIN. 110.000 €.
- Bolun 135 m²ko Elkartea salgai. Ekipatua. 123.600 €.
- Angiozarren Erretegia alokagai. Erretegi bezala erabiltzeko dena ekipatua eta martxan.
- San Antón Abad 71 m², 3 logela. 2 aparkaleku eta txokoarekin. 85.000 €.
- San Lorenzo 85 m², 3 logela, garaje aeta trastelekuarekin. 150.000 €.
- Espoloia 95 m², 3 logela. Trastelekuarekin. Garajea aukeran. 235.000 €.
- Irizar poseelekua. 3 logela, igogailuarekin. 200.000 €.
- Simon Arrieta 68 m², 2 logela, 80 m2ko terrazarekin. 132.600 €.
- Simon Arrieta 69 m², 3 logela. 20 m2ko terrazarekin. 107.100 €.
- Ibargoai 73 m², 3 logela. 235.000 €.
- Zubieta 110 m², 3 logela. Hortua, lokala eta trastelekuarekin. 95.000 €.
- Fraizkozuri 162 m², 4 logela. Trastelekuarekin.
- San Pedro 73 m², 3 logela. 13 m2ko terrazarekin. 115.000 €.
- San Antonio 86 m². 3 logela, trastelekua eta garajearekin. Igogailua. 204.000 €.
- Angiozar 170 m², duplexa. Garajea, txokoa eta 180 m2ko lur sailarekin.
- Artekale 47 m², 2 logela. Berriztua. Trastelekuarekin. 100.000 €.
- Barrenkale 113 m², 3 logela, duplex berria. Igogailuarekin.
- Masterreka 72 m², 2 logela, duplexa. Trastelekuarekin. Berria estrenatzeko. 150.000 €.
- Zubiaurre 70 m², 2 logela. Erabat berriztua 180.000 €.
- Simon Arrieta 82 m², 3 logela. Igogailuarekin. 160.000 €.
- Ibargoai 57 m², 2 logela, oso ondo. Garajearekin. 215.000 €.
- Bidekurutzeta 71 m², 2 logela, erabat berriztua. Igogailua eta terraza haundiarekin. 204.344 €.
- Angiozar 60 m², 2 logela, erabat berriztua. Trastelekuarekin. 92.000 €.
- Zubiaurre 104 m², 2 logela. Berria. Igogailua. Trastelekua, Terrazarekin.
- Martoko 60 m², 2 logela, berogailua eta igogailua. 60.000 €.
- Aranerreka 79 m², 3 logela, berogailua, trastelekua. Garajea aukeran. 164.850 €.
- Bidekurutzeta 65 m². 2 logela. Trastelekua. 85.000 € PREZIO JEITSIERAREKIN
- Matxiategi, 115 m², 3 logela, trastelekua eta balkoia. Berriztua. Oso ondo.

ANTZUOLA:
Sagasti 140 m², duplexa. 250.000 €.
Beheko Auzoa 60 m². 2 logela. Oso ondo. Prezio jeitsierarekin.
Errekalde 94 m². 3 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 120.202 €.
Sagasti 90 m². 3 logela. Oso ondo. Prezio jaitsierarekin.
Aiherra 83 m². 3 logela. Igogailua eta balkoia.Oso ondo. Prezio ona.
Kale Goi. Oso ondo. AUKERA BIKAINA. 125.000 €.

SORALUZE:
- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri, Loralde eta Rekalde. Etxe onak..

ELGETA:
- Torrealdea 77 m². 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Domingo Iturbe, odosatua 150 m² + 45 m² garajea + 90 m² lursaila.

OSINTXU:
- Osintxu 85m². 3 logela. Igogailua. Berriztua. 130.000 €. AUKERA BIKAINA.
- Osintxu 75m². 3 logela. PREZIO JEITSIERAREKIN. 80.000€

4. LANA

401. ESKAINTZAK

ARETXABALETA
Zerbitzari eta sukaldari esperientziadunak behar dira tabernarako.
sukaldaribila@hotmail.com

BERGARA
Zerbitzaria behar da ostiral eta zapatu iluntzetarako, Bergaran
infobergarakojatetxea@gmail.com

SUKALDARIA
Sukaldaria behar da jatetxerako, Bergaran
infobergarakojatetxea@gmail.com

Aretxabaleta. Esperientzia duen mutil euskalduna behar dugu pertsona nagusi bati laguntzeko. Gidabaimenarekin. 627 34 92 27

Arrasate. Gizon jator eta euskalduna behar da, etxean bertan bizi izaten, pertsona adindun bat zaintzeko domeka arratsaldetik egubakoitz goizera arte. 619 18 12 81 edo 676 64 10 22

Bergara. Pertsona euskalduna behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 08:00etatik 14:00etara. Kontratuarekin. 652 73 12 56

Zaintzailea. Legazpin pertsona nagusien zaintzaile bat, etxeko lanak egin eta menpekotasuna duen pertsonekin esperientzia duen emakume bat, behar da. 35-55 urte bitartekoa. 606 26 71 53

Zaintzailea. Pertsona bat behar da goizetan ordu batez eta iluntzeetan beste ordu batez, emakume heldu bat zaintzeko. Interesatuok deitu telefono honetara:. 696 12 46 40

402. ESKAERAK

Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza. Neska lan bila. Nagusi eta umeak zaintzen, ostalaritzako garbiketan, sukalde laguntzaile edota tailerrean lan egindakoa naiz. 647 10 58 72 edo 943 79 96 25

Arrasate. Nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Berdin zait orduka, egun erdiz, gauez zein asteburuetan bada ere. 622 05 30 57

Bergara eta Arrasate. Neska lanetako gertu: umeak zaintzen edota fruta-denda eta arropa-dendan. 659 34 31 43

Bergara, Antzuola edo Arrasate. Neska gertu arratsaldetan ume eta nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. 696 84 19 51

Bergara. Emakume bergararra gertu ume eta nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta informe onak ditut. 610 34 97 88

Debagoiena. Erizain laguntzailea den esperientziadun emakumea pertsona nagusiak zaintzeko prest. Etxean bizi izaten, egun osoz edo orduka. 618 93 59 29

Debagoiena. Asteburuetan edo arratsaldetan lan egingo nuke. Nagusiak eta umeak zaindu eta garbiketan. 610 99 70 46

Debagoiena. Banaketa lanak egiteko gertu. Baita atari eta abarren garbiketak ere. Autoa daukat. 645 72 92 87

Debagoiena. Emakume arduratsu eta esperientziadunak etxean bertan bizi izaten lan egingo luke, nagusien zaintzan. Lege paperak eguneratuta dauzkat. 631 90 22 07

Debagoiena. Emakumea garbiketa lanak egiteko gertu: etxe, atari eta abarrak. Ordutegi malgua. 632 77 35 38

Debagoiena. Emakumea lanerako gertu. Etxean bertan bizi izanda, egun osoz edo orduka. 632 46 17 94

Debagoiena. Erizain laguntzaile titulua duen neska gertu orduka zaintza lanak egiteko. Zazpi urteko esperientzia daukat. 620 23 58 15

Debagoiena. Erizain laguntzailea gertu nagusi edota ezinduak zaintzeko. Baserrietara joateko arazo barik, autoa daukat-eta. 678 37 32 43

Debagoiena. Esperientzia handiko mutila nagusiak zaintzeko gertu. Sukalde laguntzaile ere aritukо nintzateke. 658 74 94 63

Debagoiena. Etxean bertan bizi izanda edo bestela, nagusiak zaintzeko gertu nago. 603 65 88 95

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke, pertsona nagusien zaintzan. Erreferentzia onak ditut. 600 21 25 16

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten, egunez edo orduka lan egingo nuke zaintza lanetan. Zazpi urteko esperientzia eta erreferentzia onak ditut. 631 14 27 02

Debagoiena. Geriatria laguntzailea gertu orduka nagusiak zaintzeko, etxean zein ospitalean. 943 25 05 72 edo 658 70 56 94

Debagoiena. Gizona edozein lanetarako prest 10:00etatik 17:00etara: etxeko lanetan, neka-zaritzan, lorezaintzan. . Pertsona nagusiak zaintzen esperientzia handia dut. Paperak eta erreferentzi onak ditut. 688 33 34 03

Debagoiena. Gizona lanerako gertu. Etxe, atari eta abarren garbiketan edo bestelako edozein lan egingo nuke. Autoa daukat. 632 77 35 38

Debagoiena. Mutila gertu nagusiak zaintzeko edo elkarte eta abarren garbiketak egiteko. Etxean bertan bizi izanda edo bestela. 603 63 21 99

Debagoiena. Mutila lanerako gertu. Bai etxeko laguntzan eta baita soldatzaile edota lantegian ere. 632 29 17 58

Debagoiena. Mutila lanerako gertu. Eraikuntzan, gidari, sukalde laguntzaile, nagusiak zaintzen eta abar. 636 60 48 51

Debagoiena. Nagusiak zaintzen lan egingo nuke etxean bertan bizi izaten edo orduka. Baita garbitasunean ere. Lege paperak eguneratuta dauzkat. 606 64 16 09

Debagoiena. Neska arduratsua lanerako gertu: tabernan, sukaldean, garbiketan, ume eta nagusiak zaintzen eta abar. Baita baserrietan ere. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Autoa daukat. 697 20 00 86

Debagoiena. Neska espaniarra, esperientziaduna, nagusiak zaindu eta etxe garbiketak egiteko gertu. Egun osoan zehar lan egin dezaket: egunez edo gauez. 633 84 65 30

Debagoiena. Neska gertu nagusiak etxean zaindu edota orduka paseoan laguntzeko. Baita garbitasun lanetarako ere. 629 80 77 73

Debagoiena. Neska gertu nagusiak etxean zaindu edota orduka paseoan laguntzeko. Baita garbitasun lanetarako ere. 648 46 90 51

Debagoiena. Neska gertu zaintza lanetan aritzeko. Gauez edo egunez. 645 58 71 61

Debagoiena. Neska lan bila: ume eta nagusiak zaintzen edo garbitasunean. Orduka, asteburuetan edo etxean bertan bizi izanda. 631 28 22 03

Debagoiena. Orduka lan egingo nuke. 689 95 12 83

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaindu edo garbiketa lanetan aritukо nintzateke. 686 44 70 38

Debagoiena. Pertsona nagusiak zainduko nituzke, hoteletan lan egin, sukaldari laguntzaile gisa lan egin, garbiketa lanak eta abar. Autoa daukat. 636 11 23 40

Debagoiena. Pertsona nagusiak zainduko nituzke. Berdin zait ospitalean edo etxean bertan. Ruben. 632 08 57 69

Debagoiena. Pertsonak zaintzen edo garbiketan lan egingo nuke. Auto daukat. Sandra. 602 12 18 27

Haurrak zaindu. Emakume euskalduna haurrak zaintzeko prest. Euskaraz, gazteleraz edo alemanez hitz egingo diet (jolasak, abestiak, ipuinak). Esperientziaduna. Autoa daukat. 605 72 64 43

Lorezaina. Lorezaintzan eta eraikinen mantenu lanetan jardungo nuke. Gidabaimena daukat eta erabateko prestutasuna. 943 79 82 43

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Elektromekanika. Autoen elektromekanika moduloko Fluido eta Zirkuitu elektrikoen ikasgaietan eskolak emango dizkigun norbait behar dugu. 609 94 90 01

7. ANIMALIAK

703. EMAN

Katakumeak opari. Katakumeak ematen dira opari.. 943 76 38 58

8. DENETARIK

802. EROSI

Bizikleta estatikoa. Bizikleta estatikoa erosiko nuke. 943 79 60 89

Erremolkea. Toldodun erremolkea erosiko nuke autoarentzat. 656 75 76 98

804. HARTU

Bizikletak. Botatzeko dagoen edo erabiltzen ez duzun bizikleta baduzu, nik jasoko nuke. Berdin da zein egoeratan dagoen. Inaki. 699 06 23 95

806. GALDU

Argazki kamerako SD txartela. Argazki kamerako SD txartela galdu dut Bergaran, Poligono inguruan, apirilaren 17an. Inork aurkitu badu, deitu, mesedez, zenbaki hauetara:. 680 20 57 24 edo 943 76 05 54

Audifonoa Arrasaten. Audifono beltza galdu nuen apirileko lehen astean Arrasaten. Aurkitu baduzu, deitu.: 630 13 31 55

PAZKOAK 2015

Jaietako egitaraua
Txosnagunea
Erraldoien konpartsa
Zezenak
Kirolak
Umeen Eguna
Ezagunak Bergarako jaietan
Bakailao lehiaketa
Simon Arrieta Plastika Sariketa
Musika



ARGAZKIAK: IMANOL GALLEGO, JOSETXO ARANTZABAL ETA IMANOL SORIANO

IMB ESTUDIOA

%30 eko

deskontua sukaldeko altzari berrietan!

ibargarai 4, 20570 bergara - TEL./FAXA: 943 76 37 37 - imb_estudioa@hotmail.com

PAZKOAK 2015

GOIENA TELEBISTA | DEBAGOIENA ZUZENEAN | JAIAK: PAZKOAK 2015, BERGARAKO JAIAK
MAIATZAK 25, 20:00, 21:00 ETA 22:30 | MAIATZAK 26, 20:00, 21:00 ETA 22:30 | TXOMIN MADINAK AURKEZTUA

GOIENA TELEBISTA | JAIAK: PAZKOAK 2015, BERGARAKO JAIAK
MAIATZAK 29, 22:00

25 URTE
HERRITELEBISTAGINTZAN
DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena

AGURRA

JAIONE ISAZELAIA
Bergarako alkatea

Alkatearen agurra

Bilera asko eginik irudimenari tiraka Jai batzordeak dakarkigu berriz programa aparta: kirol, musika ta saltsa ekintzarik ez da falta. Irten kalera, une batez, kezkak albora lagata, jaiaren protagonistak gu herritarrok gara ta

Aurten dator berezia domekan botazioa. Herritarron parte-hartzea da gure anbizioa, berdin da zein koloreko, jarraitu intuizioa ta auzolana harturik bizitzan bokazioa etorriko zaretenoi onginahizko desioa

Txapi, Sali eta Ane: ongi etorri, hirukote! Baditugu hainbat lagun gure herritik aparte; ez dugu etsiko guztiok etxera ekarri arte. Zuek ta Pazko jaiotan dena delakoa bitarte izaterik ez dutenak gure gogoan zarete.

San Martin plaza jendez lepo Bitorianatxo noiz jaitsiko zain. | IMANOL SORIANO

JAIETAKO EGITARAUA

DOMEKA
17

Pentekosteetako XAKE TXAPELKETA Agorrosinen.

EGUBAKOITZA
22

15:30 Pentekosteetako TXIRRINDULARI LASTERKETA. Antolatzailea: Lokatza ZE.

18:00– 20:30 AROZTEGI ARETOAN Juan Luis Goikolearen pintura erakusketa.

20:00 Jaiei hasiera emateko TXUPINAZOA eta Bitorianatxoren jaitsiera, San Martin plazan.

Segidan, UDAL MUSIKA BANDAREN KALEJIRA, herriguneko kaleetan, San Martin plazatik irtenda.

Iluntzean Matxiategin BARRAKEN IREKITZEA eta 21:00etan TXOSNEN IREKITZEA Bideberrin.

20:30 UMEENTZAKO PARRILLADA Oxirondon.

21:00 Sardina Freskue UMEENTZAKO ERROMERIA, Oxirondon.

23:00 DANTZALDIA Hesian taldearekin San Martin plazan.

ZAPATUA: ERRALDOIEN EGUNA
23

09:00 BIGANTXAK zezen-plazan. Sarrera: 2 euro.

10:00 35. HAUR ETA GAZTEEN "SIMON ARRIETA PLASTIKA SARIKETA" Beart Bergarako Arte Elkartearen laguntzarekin, San Martin plazan.

10:00 DIANA. Bolutik Udal Txistulari Banda, Labegaraietatik Bergarako trikitilariak eta Oxirondotik Elgoibarko dultzaineroak. Ondoren, herriko plazan elkartuko dira guztiak eta Mizpirualdera egingo dute bisita.

11:00 Herriko elkarteen arteko BAKAILAO LEHIAKETA San Martin plazan. Sukaldarientzako lapiko eta amantalak: Lacor-ek emandakoak. Herritarrentzako mokadua, etxe hauei eskerrak: Konde, Mizpildi, Ogizun, Ogiberri Elkoarti eta Olabe okindegiak; Comercial Miner, Lopez-Ojeda (Atxega), Manso Hermanos eta Txomin Zubeldia edari banatzaileak; Antia, Igartza, Joseba, Sebastian Imaz eta Urzelai harategiak.

11:00 ERRALDOIEN GUNEA Munibe plazan. Herriko eta kanpoko erraldoien erakusketa, erraldoiak egiteko tailerra, erraldoien txokolatezko piruletak.

J. Alberto Gorosabel Mendizabal doktorea

RPS: 266/13

GOROSABEL DOKTOREA

- Ortodontzia.
- Odontologia Orokorra.
- Aho eta inplanteen zirugia punta puntako teknologiarekin.
- Hortz eta aurpegiko estetika.
- Estetika eta hortzen zuritzea TEKNIKA BEREZIAREKIN.
- PRGF (PLASMA).
- SEDAZIOarekin, nahi baduzu, zirugia eta gainontzeko tratamenduak

Ondo pasa jaietan!

Tel.: 943 76 56 88
Fraiskozuri 5A, 1-D. BERGARA

25 URTE ZUEKIN BERGARAN. ESKERRIK ASKO DENOI!

Neska-mutil kuadrilla herri bazkarian | IMANOL GALLEGO

11:30 Pentekosteetara ONGIETORRIA emateko ekitaldia, Iazko Pentekosteetatik hona mundura etorri diren bergarar txikitxoei, Udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Ondoren, argazki bateratua ateratzea Udalaren kanpoaldean, artxibo aldeko eskaileretan.

12:00– 14:00 AROZTEGI ARETOAN Juan Luis Goikolearen pintura erakusketa.

13:30 Bakailao lehiaketako SARI BANAKETA San Martin plazan.

13:45 Haur eta gazteen Simon Arrieta plastika lehiaketako SARI BANAKETA, San Martin plazan.

17:30 DIRT JUMP eta TRIALSIN ERAKUSTALDIA epaitegi aurrean.

18:00 Bergarako, Kataluniako (Sant Andreu de Palomar) eta Txantreako ERRALDOIEN KONPARTSAKO KALEJIRA Elgoibarko dultzainero eta Udal Txistulari Bandaren laguntzarekin San Martin plazatik hasita.

19:00 ERREKORTADORE GAZTETXOEN TXAPELKETA (10 eta 15 urtera artekoak). Ondoren, bi errekortadoreren arteko desafioa. Sarrera: 3 euro.

23:00 Kalakan eta La Jodedera taldeen KONTZERTUA San Martin plazan.

DOMEKA 24

09:00 BIGANTXAK zezen-plazan. Sarrera: 2 euro.

11:00 – 14:30 PUZGARRI ETA JOLASAK San Martin plazan.

12:00– 14:00 AROZTEGI ARETOAN Juan Luis Goikolearen pintura erakusketa.

12:30 Udal Musika Bandaren KONTZERTUA Espoloian.

Egitaraua:

'MARIA LA PORTUGUESA' (fadoa), C. Cano. Moldaketa: A. G. Chirlaque

'POETA Y ALDEANO' (obertura), F. von Suppé

'EZPATA DANTZA', M. G. Bastida

'CATS' (musikala), A. L. Webber

'FIREWORK', T. Doss

'ERRALDOIEN MARTXA', Bergarako erraldoi taldearen 15. urteurrenean, Moldaketa: A. G. Chirlaque

'BERGARAKO ERESERKIA', A. G. Chirlaque

Zuzendaria: Alfredo G. Chirlaque

16:00 GOITIBEHERA TXAPELKETA San Martzialgo bidean.

17:00 APAR FESTA Muniben.

18:00 *Ongi etorri, Amaieramundi!* Trapu Zaharra ANTZERKI taldearen EMANALDIA San Martin plazan.

19:00 Errekortadore gazteen eta helduen arteko DESAFIOA, hainbat modalitatetan, zezen-plazan. Sarrera: 3 euro.

20:00 HERRIXA DANTZAN Jainaga eta Narbaiza trikitilariekin San Martin plazan.

ASTELEHENA: KUADRILLEN EGUNA 25

11:30 TABERNEN ETA KUADRILLEN ARTEKO HERRI KIROLEN TXAPELKETA zezen-plazan, Zaldibiako trikitilariekin eta Incansables txarangak animatuta.

Errekortadorea quad eta guzti zezen-plazan. | GOIENA

iBARRALDE
Administrazio zerbitzuak SL
• Fiskalak
• Laboralak
• Kontableak
• Finken administrazio zerbitzua
Ondo pasa jaiak!
25.068 kolegiatu zenbakia
Ibargarai 30 BERGARA
Tel.: 943 76 52 88 - Faxa: 943 76 25 64

ibili
Behar dituzun sukaldeko tresna guztiak eta gehiago
Hilero gure produktuen zozketa Facebook-en
Ondo pasa jaietan!
ibilimenaje.com

Herri kirol erakustaldia San Martin plazan. | IMANOL GALLEGO

12:30 DANTZALDIA Nuevo Talisman orkestrarekin Espoloian.

14:30 HERRI BAZKARIA San Martin plazan (euria egiten badu, Labegaraietako kiroldegian).

Adingabeei ez diete alkoholdun edaririk banatuko bazkarian. Kuadrillan jarri nahi duzuenok denok taldean agertu beharko duzue bazkaltzera, mahaien antolaketa ez oztopatzeko.

18:30 GAZTETXOENTZAKO ETA GAZTEENTZAKO ZEZENTXOAK ETA BIGANTXAK zezen-plazan. Sarrera: 2 euro.

19:00 BERGARA HIRIA PILOTA TXAPELKETAKO FINALAK Udal Pilotalekuan. Antolatzailea: Bergara Kirol Elkarteko pilota saila.

22:30 Imuntzo eta Belokirekin ERROMERIA San Martin plazan.

23:00 DANTZALDIA Nuevo Talisman taldearekin Espoloian.

MARTITZENA: UMEEN ETA HELDUEN EGUNA

26

09:00 BIGANTXAK zezen-plazan. Sarrera: 2 euro.

11:00-14:00 HAURRENTZAKO JOLASPARKEA Ipintza II-ko patioan. Puzgarriak, *jumping*-a, bolen igerilekua, zezen mekanikoa, giza mahai-futbola...

12:00 HERRI KIROL ERAKUSTALDIA San Martin plazan: Jose Mari Olasagasti, Donato Larretxea, Felix Zubizarreta, Ernesto Ezpeleta *Bihurri,* Hodei Ezpeleta eta Alex Txikon aizkoran eta Joseba Ostolaza eta Idoia Etxeberria harri jasotzen.

12:00 – 14:00 AROZTEGI ARETOAN Juan Luis Goikolearen pintura erakusketa.

12:30 – 14:00 Los Bocheros taldearekin BILBAINADAK. Lehenengo, kalejira: Bidekurutzeta, Barrenkalea eta Simon Arrietatik. Bukaeran, kontzertua, Domingo Martinez de Irala kalean.

17:00 – 20:00 HAURRENTZAKO JOLASPARKEA Ipintza II-ko patioan.

17:00 PILOTA PARTIDU PROFESIONALAK Bergarako Udal Pilotalekuan.

18:30 ERREKORTADORE ESKOLA IBILTARIA ZEZENTXOEKIN zezen-plazan. Sarrera: 2 euro.

20:00 – 21:00 eta 22:30-24:00 DJ FESTA DJ Oihan Vegarekin San Martin plazan.

24:00 Jaia agurtzeko BITORIANATXOREN IGOERA San Martin plazan.

24:15 – 00:30 DJ FESTA DJ Oihan Vegarekin San Martin plazan.

Gaztetxoak saltoka Ipintza II-ko jolasparkean. | IMANOL GALLEGO

autopullmans Araba
Ondo pasa jaiak!
Angiozar 3-1 BERGARA • Tel.: 943 76 55 70 - 686 47 68 52
www.arababusbergara.com • info@arababusbergara.com

PESCADERIA JOXAN ARRAINDEGIA
Orain, Super Amaran ere bai!
Ondo pasa Pazkoetan!
Ibargarai 24 Bergara
Tel.: 943 76 70 29

Unai Arantzabal | Txosna batzordeko kidea

"Eragileek eta herritarrek antolatutako egitaraua da"

Txosna batzordeko kideek lana izaten dute guztia antolatzen

NAROA ODRIOZOLA | BERGARA

Txosnagunea gune alternatibo garrantzitsua izaten da Pazkoetan. Hala ere, gunearen antolakuntza guztiz ezezaguna da gehienontzat. Horregatik, Txosna batzordeko kide Unai Arantzabalekin izan da GOIENA. Arantzabalek sei urte daramatza txosnagunea antolatzeko batzordean: Xaxau konpartsan.

Nork antolatzen du txosnagunea?

Xaxau konpartsa deitzen dugun horrek antolatzen du. Duela zazpi urte sortu zen Xaxau *birusa,* eta bertan, herriko hainbat eragile barnebiltzen dira. Gainera, norbanako moduan ere etortzen da jendea. Ateak beti zabalik daude edozein herritarrentzat.

Zer ekarpen egiten die txosnagunean Bergarako jaiei?

Unai Aranzabal Errotalden | N. ODRIOZOLA

Udalak antolatzen duen egitarautik aparte beste egitarau alternatibo bat, gune aske bat. Bergarako eragile eta herritarrek antolatzen duten egitaraua. Izan ere, egitarau hori herritarrek parte hartuz eta bakoitzak nahi duen ekarpenak eginez antolatzen da.

Zenbatek hartzen duzue parte antolaketan?

Urtearen arabera kopurua aldatu egiten da. Aurten, sei pertsona inguru gaude.

Eta nola antolatzen zarete?

Jaiak gerturatzen ari direla gogoratzen garenean elkartzen hasten gara, bilerak egiten ditugu. Gauza batzuk oso mekanikoak dira, txosnen eskariak edo edariak, adibidez. Normalean, ardura batzuk banatuta egoten dira. Batzuk taldeei deitzeaz arduratzen gara. Gainera, batzordetik kanpo dagoen jendearekin ere kontrastatu egiten dugu, ea zer komeniko litzatekeen ekartzea edo zer ez. Bilerak asteartero egiten ditugu, 18:00etan, kultur etxean, eta, lehenengo, gauza mekaniko guztiak lotzen ditugu eta ideia edo ekarpen berriak azken unerako lagatzen ditugu.

Zein berrikuntza dago aurten?

Aurten, Martxanterak izeneko eragile berria sortu da Bergaran. Hori Txosna batzordean sartu da, eta, Pazkoetan, eraso sexistak izaten baldin badira, protokolo bat plazaratuko dute eta txosnagunean protokolo hori beteko da. Beste eragile batek ere, Bertso Eskolak, tartetxo bat edukiko du txosnagunean.

Aurrera begira zein helburu dituzue?

Xaxau konpartsa urtean zehar ez da aktiboa, jaietarako bakarrik elkartzen da. Gure nahia da Xaxau konpartsa urtean zehar eragile aktiboa izatea. Hau da, dauden eragile guztiak elkartzea eta Xaxauri konpartsa izaera benetan ematea.

Jendea animatzen da txosnagunean txandak egin eta lan egitera?

Jendea apuntatuko den beldur gaude beti, baina jendeak nahiko ondo erantzuten du. Aurten, sarean egon da txandetan apuntatzeko taula. Orain, Pol-Pol, Arrano eta Kortazar tabernetan dago.

Aurreko urtean txosnetan egindako bazkaria. | IMANOL SORIANO

Askotariko aukerak txosnagunean

MAIATZAK 22 EGUBAKOITZA

21:30 Requiem

23:00 Revolta Permanent, Eskean Kristo eta Habeas Corpus taldeen kontzertua.

Ordu txikitan, Guateke morea; emakumeekin lotura duten abestiak.

MAIATZAK 23 ZAPATUA

14:30 Elkartasun bazkaria, presoen aldeko bazkaria.

16:00 Fermin Valencia

19:00 Elektrotxaranga (Bideberritik)

20:00 Anger, Serdmos eta Iskanbila taldeen kontzertua.

Ordu txikitan Kopla barik, bertso eskola.

MAIATZAK 24 DOMEKA

17:00 Guraso eta haurrendako GINKANA erraldoia.

19:00 Lurra

22:30 The Hot Sprockets (IRE) eta Rumbalbar (CAT) taldeen kontzertua.

MAIATZAK 25 ASTELEHENA

20:00 Laket

23:00 Zopilotes Txirriaus taldearen emanaldia eta ondoren DJ Loro (reggaea eta hip-hopa).

MAIATZAK 26 MARTITZENA

20:00 Kontzertua Petti eta Joseba B. Lenoir bakarlariekin.

ELUSU
CONSTRUCCIONESERAIKUNTZAK S.A.
K21
Tel.: 943 76 45 50 - 679 00 40 89
Arruriaga 5
20570 **BERGARA** (Gipuzkoa)
elusueraikuntzak@telefonica.net
www.construccioneselusu.com

Zorionak, bergarar guztioi!

- **Era guztietako eraikuntzak**
- **Erreformak**
  - Lokal komertzialak
  - Teilatuak
  - Sukaldeak
  - Bainuak
  - Fatxadak
- **Baserri eta jauretxeen erreformetan eta txaleten eraikuntzan espezializatuak**
- **Gremioen koordinazioa**
- **Proiektuak**

% 10 eko DESKONTUAK!

alet
BERGARA
www.alet-taldea.com
Tel.: 620 56 13 16
669 36 69 53

Ingenieritza eta Instalakuntza

Energia fotovoltaikoa • Energia Termikoa • Geotermia
Biomasa • Zoru Erradiatzailea • **Biomasa galdaratan aukera zabala**

BERRIA: Pellet eta egurrezko galdara mistoak jartzen ditugu.

Bezeroaren beharretara egokitzen gara.

Ondo pasau jaixetan!

Inork ez daki zaintzen zerbait, sortu duenak baino hobeto

Kontrata itzazu gure Mantentze Zerbitzuak:

- **Gas-galdararen urteko azterketa.**
- **Joan-etorri eta esku-lan guztiak sartuta.**
- Eta hemendik aurrera, **zure galdarak 15 urte bete arte, jatorrizko pieza guztiak barne.**

Sematec Guipúzcoa
Zerbitzu Tekniko Ofiziala
943 76 06 61
www.guipuzcoa.saunierduval.es

ERABATEKO estaldura 15 urtetan

Saunier Duval

IRURAK MARGOAK

DISEINUAK, S.L. **MARGO LANAK OROKORREAN**

Ondo pasau jaixak!

Era guztietako lanak — **Paper pintatuak**
Moketa eta sintasola — **Harea zorrotada**
Iztuku esponjatua — **Iztuku faltsua**

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 25 99 83 / 667 54 89 16
Faxa: 943 76 09 32

Erraldoi konpartsaren 15. urteurrena

Ordiziako, Nafarroako eta Kataluniako erraldoiak izango ditu lagun Bergarako konpartsak kalejiran

NAROA ODRIOZOLA | BERGARA

Erraldoi konpartsa momentu gorena bizi izaten ari da, hamabost urteren ostean inoiz baino jende gehiagok osatzen du eta: hogeita sei nagusi eta hamabost gaztetxok. Hala ere, kaleetan zehar dantzatzen ikustea ez ezik, agerian ez dagoen lana ere ezagutzera eman nahi dute Pazkoetan.

Erraldoiak ezagutzen

Maiatzaren 23an, zapatua, 11:00etan, Munibe plaza erraldoiz jantziko da; izan ere, Bergarako erraldoiek Txantreako (Nafarroa), Sant Andreu de Palomarko (Katalunia) eta Ordiziako erraldoiak izango dituzte lagun. Talde guztiek bertaratutakoen aurrean muntatuko dituzte erraldoiak. Gainera, Kataluniako *trabukeiro* talde bat ere bertan izango da.

Bergarako erraldoien egileak, Mikel Ibartzabalek, erraldoiak egiteko prozesuari buruzko erakusketa egingo du eta informazio-triptikoak eskuragarri egongo dira. Etxeko gaztetxoak, erraldoiez gozatzeaz gain, bertan egongo den puzgarrian gora eta behera ibili ahal izango dira.

Salmenta-gunea egongo da baita ere. Bartzelonatik ekarritako erraldoi itxurako txokolatezko piruletak egongo dira salgai, eta gozozaleak ez direnek palomita makina izango dute.

Horrez gain, Guti eta Felisin ipotxei ez zaie protagonismorik faltako. Izan ere, bien erreplika txikiak salduko dituzte etxeko apalak apaindu nahi dituztenentzat. Gainera, zozketa batean parte hartzeko txartelak ere eskuragarri egongo dira.

Arratsaldean kalejira

18:00etan, berriz, Bergarako konpartsak Kataluniako (Sant Andreu de Palomar), Txantreako eta Ordiziako erraldoiekin batera erraldoien konpartsako kalejira egingo du herriko kaleetan zehar, betiere Elgoibarko dultzaineroen eta Udal Txistulari Bandaren laguntzarekin.

San Martin plazan hasi eta bukatuko da ibilbidea, Bidekurutzeta, Ramon M. Lili, Ibargarai, Irizar, Kruz Gallastegi, Bideberri, Fraiskozuri, Herri Lagunak, Domingo Martinez de Irala eta Barrenkale igaro ondoren.

Partituraren entrega

Bergarako erraldoi konpartsaren 15. urteurrena dela eta, Alfredo Gonzalez Chirlaquek *Erraldoien martxa*-ren moldaketa egin du eta partitura entregatuko dio Bergarako konpartsari.

Txantreako konpartsako erraldoiak. | TXANTREAKO KONPARTSA

TXANTREAKO KONPARTSA

Nafarroatik datorren konpartsa

1984an jaio zen Txantreako konpartsa. 13 erraldoi dituzte. Lau erraldoi handi (Tartalo, Sorgine, Basajaun eta Mari), bost kiliki (Piripi, Kotilla, Japi, Profe eta Aker) eta lau erraldoi txiki (Garcia Ximenez, Amaia, Teodosio de Goñi eta Amagoia).

Pazkoetara lau erraldoi ekarriko dituzte eta 15-20 lagun inguru etorriko dira kaleak girotzera.

SANT ANDREU DE PALOMARKO KONPARTSA

Kataluniatik hona

Bartzelonako auzo bateko konpartsa da Sant Andreu de Palomar.
1982an jaio zen eta zazpi erraldoiz osatuta dago: Andreu eta Colometa, Colom eta Coloma, Galtetes, L'Avi d'Orient eta L'Avia Orfila. Konpartsa Bergarako Pazkoetara etortzen den lehenengo urtea da. Gainera, ez dira bakarrik etorriko, bolborazko tiroak botatzen dituzten *trabukeiroak* izango dituzte adiskide. Guztira, Kataluniako hogeita hamar bat lagun inguru izango dira Bergaran.

Uso buru eta hegalak dituzten erraldoiak. | SANT ANDREU DE PALOMAR

EuroTaller

Murillo Garajea
Auto konponketak orokorrean

Ondo pasau jaietan!

Leizeaga, 4 - BERGARA
Tel.: 943 76 13 84

GOKI ERREFORMAK, S.L.

Teilatuak, fatxadak, igogailuak, sukaldeak, bainugelak.

Ondo ibili jaixetan!

Irizar Ibilbidea 1 behea
BERGARA
Tel.: 943 76 53 42
Faxa: 943 76 52 16
bergara@gokierreformak.es
www.gokierreformak.net

Iñigo Almortza | Bergarako Zezenak ganadutegikoa

"Berritasun nagusia zapatuko zezena da "

Pazkoetan lau egunez izango dira zezen eta bigantxak

Iñigo Almortza abere artean. | UNAI ARANA

NAROA ODRIOZOLA | BERGARA

Pazkoetako errekortadoreen ikuskizunak urtero ikusle asko biltzen ditu zezen-plazan. Baina errekortadoreak ez ezik, zezen eta bigantxek ere protagonismo handia dute; hala, Iñigo Almortza Bergarako Zezenak ganadutegiko arduradunarekin izan da GOIENA.

Nola hasi zinen zezenen munduan?

Betidanik gustatu zait, baina zezenen munduan 1992an hasi nintzen eta 2005ean gure ganadutegia muntatu genuen.

Gero, errekortadore eskola ipini genuen martxan. Orain, ganadutegi bezala Euskal Herritik kanpo hasi gara irteten; Errioxara, Kantabriara... eta geroz eta ezagunagoak gara.

Lau egunez izango dira zezen eta bigantxak Pazkoetan. Zezenzaleak dira bergararrak?

Bai, orokorrean euskaldun guztiak gara zezenzaleak; gehienbat, hemendik datorren kontua delako. Dauden herririk zaharrenak zezen kontuetan Euskal Herrikoak dira. Beste gauza bat izango litzake dauden sentsibilitate desberdinen arabera alde edo kontra agertzea. Horretaz aparte, Bergara errekorte munduan erreferente bihurtu da.

Zenbat zezen eta bigantxa irtengo dira, guztira, Pazkoetan?

Herri bakoitzerako ezaugarri desberdinetako ganadua behar da; Bergarak ganadu mota bat eskatzen du, Azpeitiak beste bat... Baina 50 zezen eta bigantxa irtengo dira zezen-plazara Pazkoetan.

Nola prestatzen dira bigantxak eta zezenak?

Prestakuntza berezirik ez da egiten. Animalia ona den edo ez jakiteko herririk herri ibili behar da. Ondoren, batzuk suhartu egiten dira eta beste batzuek, ordea, mantsotu eta jotzeari uzten diote. Hor desberdintzen dugu animalia bat gogorragoa den edo ez. Orduan, ganaduzaleak duen beharraren arabera, aukeraketa egiten du.

> **"Animaliak prestatzeko ez da ezer berezirik egiten"**

Beste urteekin alderatuta berritasunik badago aurten?

Berritasun nagusia zapatuko zezena izango litzateke. Jendeak telebistan ikusten dituen errekortadore edo zezen saioetan zezen izugarriak agertzen dira, baina horiek ez dira sekula plazara irten, eta ezjakintasun handia dute; horregatik, engainatzeko errazak dira. Larunbatean irtengo den zezena engainatzeko eskola handia eduki behar da. Oso zezen zaila da. 6 urte egin behar ditu eta urtebete zeukanetik plazarik plaza dabil.

Beraz, zezenek ikasi egiten dute?

Bai; horregatik, errekorteetan edo toreatzeko irteten diren zezenak ez dira aurretik inoiz irten.

Errekortadoreen arteko desafioa bi egunean

Maiatzaren 23an, zapatua, 10-15 urte bitarteko errekortadore gaztetxoen txapelketa izango da. Bertan, hamabi gaztek hartuko dute parte. Gero, Aitzol Azula bergararraren eta Iban Arregi azkoitiarraren arteko desafioa egongo da. Lehenengo, bakoitzari behi bat botako zaio, errekorteak egin ditzan. Ondoren, momentuan Euskal Herri mailan dagoen zezen gogorrenetako bat botako zaie, errekorteak egiteko baita ere.

Domekan, berriz, errekortadore gazteen eta helduen arteko desafioa egongo da. Helduen taldea, besteak, beste honako hauek osatuko dute: Unai Arana *Zurra*, Mikel Agirre *Txili*, Blas Cruz, Aitor Jaso, Iker Romero, Oier Gaztañuzak... Guztira, 10-12 izango dira.

Horrez gain, motor batez eta quad batez baliatuko dira.

Domekako desafioaren irabazleak ikusleek aukeratuko dituzte, baina, larunbateko kasuan, epaimahaia egongo da.

Errekortadoreek hiru prestakuntza mota dituzte: fisikoa, psikologikoa eta praktikoa. Prestakuntza fisikoa astero egiten dute, baina praktikoa ez dute astero egiten, kostu handia duelako.

Bergarako Udala
Ondo pasau jaixak!
San Martin plaza
www.bergara.eus • bergara@bergara.eus
Tel.: 943 77 91 00 – Faxa: 943 77 91 63

Embalan3
Enbalaje Sistemak
San Juan Auzoa. Larramendi Industrialdea, Partzela I-1
Posta Kutxa, 5
20570 Bergara
Tel.: 943 82 94 83 - Faxa: 943 76 41 85
embalan3@embalan3.com
www.embalan3.com

Bizikleta gainean salto eta bira

Funbox Factory taldearen eskutik 'dirt jump' eta trialsin erakustaldia maiatzaren 23an

Trialsineko proba. | MARTXEL ARRIBILLAGA

NAROA ODRIOZOLA | BERGARA

Bizikleta gainean egiten diren kirolen artean daude *dirt jump* eta trialsin modalitateak. Gehienontzat entzutez nahiko ezezagunak badira ere, edonork ikusi ditu nonbait modalitate horietako probak behin edo behin.

Bada, Bergarako jaietan, zuzenean ikusteko aukera izango da; izan ere, Funbox Factory talde euskaldunak ikuskizuna eskainiko du maiatzaren 23an, 17:30ean, epaitegi aurreko plazan.

'Dirt jump'-a eta trialsina

Bietan bizikleta erabiltzen da, baina bakoitzean gauza desberdinak egiten dira.

Dirt jump modalitatea bizikleta gainean saltoak egin bitartean airean irudi akrobatikoak eta itzulipurdiak egitean datza. Noski, ez du edozein bizikletak balio; propio kirol horretarako prestatutako mendiko bizikleta behar da.

Trialsin modalitatean, aldiz, bizikleta gainean mota askotako oztopoak gainditzea da helburua. Bizikletaren gurpila izan ezik, inolako beste osagarririk ukitu gabe ibili behar da.

Oso kirol gogorrak dira. "Batez ere, akatsen bat eginez gero mina hartzen dugulako. Horregatik, oso argi izan behar dugu zer egiten ari garen", dio Martxel Arribillagak, birritan *dirt jump*-eko Espainiako txapelduna izandakoak. Arribillagak 10 urte daramatza *dirt jump* munduan eta sei urte profesional moduan.

Funbox Factory taldea

Duela bi urte sortu zuten taldea eta pixkanaka handitzen doa. Bergarako erakustaldia egiteko taldeko bost partaide etorriko dira. "Euskal Herriko txirrindulari onenetakoak", dio Arribillagak. Gainera, Espainia mailan lehenengo hamar txirrindularien artean daude.

Arribillaga bera mundu mailan lehiatzen ari da eta aurten, gainera, Ameriketan ibili da horrelako probetan parte hartzen. Bergaran izango diren trialsineko txirrindulariak ere Euskal Herriko txapeldunak izandakoak dira. Erakustaldian, saltoak, jauziak, akrobaziak, itzulipurdiak... izango dira.

Dirt jump-eko txirrindularia akrobazia egiten. | MARTXEL ARRIBILLAGA

Entrenamendu gogorrak

Astean lau aldiz aritzen dira saltoka modalitate horietako kirolariak, eta gimnasioan ere ordu batzuk egiten dituzte. Arribillagaren ustez: "Ariketarik onena behin eta berriz saiatzea da, nahi duzun saltoa lortu arte".

Kontzentrazio handia behar dela dio; izan ere, ezusteko asko izan dituzte *dirt jump* nahiz trialsineko kirolariek. "Denok daukagu gorputza aurreko erorketen markaz beteta, baina hau da gustuko duguna".

Entrenatzeko lekuari dagokionez, "Beran Indarri izeneko pabiloi batean" egoten dira neguan, eta udan, aldiz, Irrisarri Land Nafarroako abentura parkean aritzen dira bizikletekin salto eta jauziak egiten.

Nork irabazi

Txapelketetan gehien arriskatzen duenak irabazten du. Hain zuzen, ikusleek jauziak ikustean duten erreakzioaz galdetuta, argi dauka Arribillagak: "Erakustaldi on bat egiten dugunean, jendearen lilura aurpegia ikusteak ez du preziorik guretzako". Horrenbestez, ikuskizuna ziurtatuta dago.

Raizabal gozotegia

1908tik zuekin

eskerrik asko guztioi

eta ondo pasau jaixak!

Artekale 9 Tel.: 943 76 11 83

URTEBETE BERGARAN

Bergarar guztioi jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

Amillaga 5. BERGARA. 670 82 71 86

Saioa Etxabarri Mujika
Kol. Zenb. 1500
RPS: 297/13

Felsinee

FISIOTERAPIA eta ERREHABILITAZIOA:

- Fisioterapia orokorra
- Drainatze linfatikoa
- Kirol fisioterapia
- Tekarterapia
- Fisioterapia perineala
- Fisioterapia obstetrikoa
  (Haurdunaldiko minak - Erditze aurreko eta ostekoa)
- Metodo Hipopresiboa
- R.P.G-S.G.A.
- Elikadura eta Nutrizioa

PODOLOGIA
NUTRIZIO-HEZKUNTZA. PROGRAMA PERTSONALIZATUAK
NATUROPATIA eta BIOMAGNETISMO MEDIKOA

Ondo pasau Pentekoste jaixak!!

ASEGURUEKIN ERE LAN EGITEN DUGU

Ibargarai Etorbidea 17, behea • 20570 BERGARA (Gipuzkoa) • Tel.: 943 53 44 53

Argazkia: Goiena Komunikazio taldea

Etxeko txikienek Pazkoez gozatzeko proposamen ugari

Parrillada, Sardina Freskue erromeria, jolasparkea... etxeko txikiendako

NAROA ODRIOZOLA |BERGARA

Potolo dator aurtengo Pazkoetako egitaraua, eta etxeko txikienak asper ez daitezen aukera zabala dago: barrakak, jolasparkea, puzgarriak, apar festa... Baina aurten, gainera, egitarauak pare bat berritasun dakartza: umeendako parrillada eta erromeria.

Txupinazoak eta Bitorianatxoren jaitsierak egundoko giroa jarriko dute. Guztiok pozik ibiliko dira Pazkoetako blusekin gora eta behera eta alde batetik bestera.

Oxirondo, ekintzez blai

Jaiei ongietorria eman ondoren, etxeko txikienek zein gurasoek, 20:30ean, Oxirondon parrillada goxoa izango dute aukeran.

Oxirondo Aisialdi Guneko gurasoek antolatutako parrillada izango da, eta guztion artean, auzolanean, egindakoa. Hau da, eginkizunaren arabera –mahaiak zerbitzatu, jaso, hondakinak batu...– kolore desberdineko txartelak egongo dira salgai. Txartelak 6 eurotan daude salgai azokako postuetan gaur arte.

Sardina Freskue erromeria

Guztia jaso ondoren eta sabela ondo beteta dutela, haur eta gaztetxoek Sardina Freskue erromeriaz gozatzeko aukera izango dute Oxirondon bertan.

Sardina Freskue ikuskizuneko aktoreak emanaldiaren momentu batean. | EIDABE

21:00etan hasiko da Eidabe talde bilbotarraren ikuskizuna eta ordu eta laurdeneko iraupena izango du.

Sardina Freskue jolasa, parranda eta dantza da, eta, itsasoko antzinako euskal kantak erabilita, gaztetxoen parte hartzea du helburu.

Antzerki dinamiko horrek kolore ugariz betetako sardina baten istorioa kontatzen du. Kostaldeko herri batean azaldutako sardinaren istorioa, hain zuzen ere. Sardinak alaitasuna, aniztasuna eta zoriontasuna ekartzen ditu herrira, eta, horregatik, herriko haurrak sardinaren bila hasiko dira. Topatuko dute?

Eguraldiak laguntzen ez badu

Atzamarrak gurutzatu beharko dira eguraldiak lagun dezan Pazkoetan, baina, guardasola atera behar izanez gero, parrilladak eta erromeriak leku aldaketa izango dute.

Parrillada Oxirondoko azoka barruan egingo da eta Sardina Freskue erromeria, ostera, Seminarioko karpan.

Umeen Eguna: jolasparkea eta barrakak

Parrilladaz eta erromeriaz gain, gaztetxoek badituzte hitzordu gehiago. Besteak beste, maiatzaren 24an, 11:00etatik 14:30era, gora eta behera ibiltzeko puzgarri eta jolasak izango dituzte San Martin plazan.

Gainera, maiatzaren 26an, umeen eta helduen eguna ospatuko da, eta, jolasparkea izateaz gain, barrakek prezio murriztua izango dute.

JOLASPARKEA

Goizean eta arratsaldean izango dute haurrek saltoka eta jiraka ibiltzeko aukera. Ipintza II-ko patioan egongo da kokatuta jolasparkea eta puzgarriak, *jumping*-a, bolen igerilekua, zezen mekanikoa eta giza mahai-futbola izango dira bertan.

Ordutegia honako hau izango da: 11:00-14:00 eta 17:00-20:00.

BARRAKEN PREZIOA

Urtero bezala, barrakak Poligonoko aparkalekuan egongo dira. Bidaia bakoitza 2 euro kostatuko da.

Barrakek deskontu berezia izango dute umeen eta helduen egunean, 25ean goizean eta 27an eta 31n, berriz, egun osoz. Egun horietan erdi prezioan egongo dira. Hau da, euro bat kostatuko dira.

AGIRRE HORTZ KLINIKA
RPS: 327/13
ONDO PASAU JAIXAK!
Finantzazio era ezberdinak INFORMA ZAITEZ!
• Odontologia orokorra
• Periodontzia
• Ortodontzia
• Endodontzia
• Kirurgia
• Protesiak
• Inplanteak
• Estetika
• Hortzen zuritzea
AEGON aseguroak
Ibargarai 9, 1-B. Bergara Tel.: 943 76 00 23 - 665 72 36 28 Ordutegia: 08:00-21:00 (Eguerdian ere zabalik).

LAGUN GARAJEA ad®
Tailer profesionala
Mekanika orokorra
Ondo pasau jaixak!
Santalaitz 3. BERGARA. Tel.: 943 76 11 20

TELAETXE

Oihalen neurketatik etxean
ipintzera arte dena gure esku
Fabrikako preziotan

Elgeta bidea,
gasolindegitik
300 metrora
• BERGARA•

Tel.: 943 76 39 40 / 41
Astelehenetik
larunbatera
10:00etatik 13:00etara
eta
16:00etatik 20:00etara
zabalik

- Kortinak
- Kortinoiak
- Estoreak
- Fundak
- Mantelak
- Nordikoak
- Izarak
- Oihalen neguko kolekzio berria ikusgai eta orain ALFONBRAK

Pazkoak, hiru bergarar ezagunen ikuspuntutik

Pentekoste jaiak lehen eta orain: oroitzapenak, istorioak, ohiturak...

NAROA ODRIOZOLA | BERGARA

Aspalditik ospatzen dira Pentekoste jaiak Bergaran. Urteek aurrera egin ahala, ohitura batzuk mantendu eta beste hainbat desagertzen joan dira.

Gizartearekin batera, Pazkoetako egitarauak ere aldaketak izan ditu denboran zehar, eta bergarar askok, atzera begiratzean, nostalgia apur batekin gogoraraziko dituzte Pazkoak. Baina zertan aldatu dira Pentekoste jaiak?

Ezagunekin, Pazkoez

Bada, nagusienek bizi izandako garaiak gogora ekartzeko eta gazteenei Pazkoak nolakoak ziren azaltzeko, hiru bergarar ezagunek –Mikel Laskurain aktorea, Mari Carmen Gallastegi ekonomialaria eta Miguel Lazpiur enpresaria– Pazko jaien inguruan dituzten oroitzapenak azalduko dituzte.

Hirurok dituzte Pentekoste jaietako istorio asko kontatzeko, eta, gainera, garaiaren arabera-ko gizarte-egoeraren ondorioz, bakoitzak modu desberdinean bizi izan ditu Pazkoak.

Edozelan ere, aktoreak, ekonomialariak eta enpresariak bat egiten dute: Pazkoak aldatu egin dira.

MIKEL LASKURAIN | AKTOREA

"Gauza asko aldatu diren moduan, jaiak ere aldatu egin dira"

Oso jaizalea izan da beti Mikel Laskurain aktorea, eta "topera" bizi izan ditu Pazkoak. Bada, kontatzeko abenturak ez zaizkio falta, eta, horien artean: "Sekula ahaztuko ez dudan bat. Gaupasa egin, eta, goizean Felix Beitia mangerarekin kalea garbitzen zegoela, gu hura zirikatzen hasi ginen eta hark mangera jaso eta goitik behera busti gintuen".

Martitzenean Kuadrillen Eguna ospatzen zen, eta, Espoloian bazkaldu ondoren, beheko estaziora joaten ziren, "barraketara, autotxokeetan ibiltzera". Gustura ibiltzen ziren, eta, hain zuzen ere, Laskurainek horren "oroitzapen ona" dauka.

Pazkoetan ezagun diren brusengatik galdetuta, kuadrillan asko eduki dituztela dio aktoreak. Lehenengoak praka arrosak zituen: "Beste oihalik lortzerik ez genuen izan, eta arrosak dohainik eskuratu genituen".

Mikel Laskurain (makurtuta) lagunekin 90eko hamarkadan. | ENEKO AZKARATE

Egan taldearekin dantzan

"Jaiak herri guztietan aldatu dira, gauza asko aldatu diren moduan". Izan ere, Laskurainen ustez, komertzioa eta taberna giroa ere aldatu dira. "Lehen, jaietan, ordu batzuetan ezin izaten zen Bidekurutzeta kaletik jendez kontra ibili"; izan ere, "inguruko herrietatik jende asko" etortzen zen.

Domeka gauean ere jende ugari ibiltzen zen Egan taldearen kontzertua ikusten: "Egan taldearekin egin genituen guk gure lehenengo dantza lotuak".

Aurten, Pazkoetan lanera

Urte askotan egubakoitzetik martitzenera etorri izan da Laskurain, eta "aurten lanera ere" etorriko da, domekan antzerkia egingo du-eta. Orain egunez gehiago irteten dela dio, eta "ez hain luze".

M. Carmen Gallastegi. | GOIENA

M. CARMEN GALLASTEGI
EKONOMIALARIA

"Bi hilabete lehenago, urduritasunez, jaiekin amesten genuen"

Garai haietan "bizitza latzagoa zen"; izan ere, zapatu eta domeketan ere etxetik eskolara eta eskolatik etxera ibiltzen zirela dio Mari Carmen Gallastegik. Ez zeuden aukera asko musika entzun, uniformea erantzi eta beste era batera jantzi edota lagunekin egoteko. "Horregatik, bi hilabete lehenago jaiekin amesten genuen jada".

Gozatzeko aukera

"Egungo Pazkoak beste mundu bat dira, eta, gure garaikoekin alderatuta, gureak estimatzen ditut, asko disfrutatzen genuelako; izan ere, ongi pasatzeko genuen aukera bakarra zen".

Orain ere etortzen da jaietan, eta gustuko du "jendea pozik ikustea".

MIGUEL LAZPIUR | ENPRESARIA

"Pazkoetan egiten ziren gauza asko desagertu egin dira, eta pena da"

Pazkoak ilusio handiz bizi izaten zituztela dio Miguel Lazpiurrek, "urteko jairik onenak" ziren-eta. Umetan zapatua oso egun polita izaten zen enpresariarentzat. "Erraldoi eta buruhandiekin hasten zen eguna. Orduko erraldoiak Mari Katalin eta Joxe Bixente ziren, eta haiekin irteten ginen kalera". Txistularien laguntzarekin kalejira egiten zuten, eta, ondoren, barrakak hasten ziren martxan. Zapatu gaueko euskal dantzen jaialdia ere gogoan dauka Lazpiurrek.

Gero, gazte denborara egin du salto: "Kirolak asko gustatzen zitzaizkigun eta guk ere jaietan gehiago parte hartzen genuen". Sokamuturra bukatzen zenean, kalejiran joaten ziren elizara, alkate, zinegotzi eta udal banda eta guzti, eta horrek "giro ederra sortzen zuen herrian".

Arratsaldean oso pilota partidu onak egoten ziren. "Gaueko dantzaldira ere joaten ginen, baina ez ginen oso berandu etxeratzen".

Pazkoez desberdin gozatzen

Orain, guztiz desberdina da Lazpiurrendako. "Jaialdiren bat edo kirol ikuskizunen bat baldin badago disfrutatzen dut, baina lehen egiten ziren gauza asko desagertu egin dira".

Gainera, duela urte batzuk Pazkoetan Bergarako kaleak "ibili ezin" egoten zirela dio Lazpiurrek. Orain, kanpora joaten da jende asko.

Pazkoetako argazkia

Lagun taldeak Pazkoetan ateratako argazkian, atzetik hasita, ezkerretik eskuinera: Jose Luis Gallastegi, Luis Elortza, Francisco Leturia eta Tomas Barrena. Aurrean: Miguel Lazpiur bera, Javier Lizarralde eta Luis Belastegi.

Miguel Lazpiur lagunekin 1960ko Pazkoetan. | M.LAZPIUR

Teles Carracedo, Pedro Garitano, Zus Bernaers, Inaxio Garitano eta Miguel Larrañaga iaz Pazkoetan. | PEDRO GARITANO

ZUS BERNAERS

KOMUNITATEA GOIENA | PEDRO GARITANO | BERGARA

Aurtengo Pazkoak –eta sanmartinak– ez dira azken 55 urteetakoak bezalakoak izango. Bergararron artean ez da egongo Zus Bernaers *La Belga*.

Izarren ostean dagoen leku hartara joan da, akaso, hilaren 21erako erosita zeukan Loiurako hegazkin-txartela poltsikoan zuela. Gainean ditugun jaietako txupinera joan da.

13 urterekin gure herrira etorri zenean ezagutu genuen. Bergarako nesken *ezberdina* zen, belgikarra zen, Anberesko alkate izandakoaren alaba. Aita flamenkoa, *gerrako umeak* deiturikoak hartu eta babestutakoa zen, horietako batzuk Bergarakoak. Umetxooi Mari Oianguren irakasleak lagundu zien exodoan, eta hori izan zen gaur egunera arte mantendu den harremanaren abiapuntua.

Parte-hartzailea

Zeukan lanbideagatik bidaiari nekaezina zen, mundu osoan barrena ibiltzen zen, baina beti gordetzen zituen hark esaten zuen moduan bere bigarren jaioterriko jai nagusietara etortzeko egunak; ez bakarrik etortzeko, parte hartzeko eta lagun guztiak agurtzeko ere bai.

Parte hartu diot; izan ere, 1960. urte inguruan, Umore Ona elkarteko kantinera izan zen, sanmartinetako danborrada irekiz. Zaldi gainean egin zuen, ekitazioan aritua zelako. Gure enbaxadore izan zen Anberesen eta bere etxeko goxotasuna ezagutzeko zortea izan dugunok bertatik bertara ikusi ahal izan dugu ze txukun eta nolako mimoarekin gordetzen zituen jaietako zapiak. Izan ere, jaietara iritsi eta egiten zuen lehenengo gauza zapia lepoan ipintzea izaten zen, goiko argazkian ikusten den moduan.

Argazki horri begiratuta, pentsa liteke ospakizuna *petit comité*-n egiten genuela, eta ezta gutxiagorik ere. Baina zituen kuadrilletako –Umore Ona nabarmentzen zen horien artean– kideak hiltzen joan dira, eta iaz, broman esan izan nion ikusitakoak ikusita beste kuadrilla baten pentsatzen joateko...

Haren *bergaratasunak* hainbeste esparru hartzen zituen, San Pedro parrokiarekin ere kolaboratzen zuen. Miguel Gonzalez Bastidaren oso lagun, organoa jotzen ari zenean partituretako orrialdeak pasatzen zizkion. San Pedroko Stoltz-Freres organoaren egoera kaskarraren berri ere bazuen, eta badakit ez dela haserretuko esaten badut bera izan zela, hain zuzen, diru laguntza eman zuen lehena organoa konpontzeko asmoz egiten ari garen diru batzean.

Bergarar petoa joan zaigu. Emakume aparta.

Goian bego.



Lapikoak gertu pil-pil saltsa egiteko

Dagoeneko Pazkoetako ohitura bilakatu da Bergarako gastronomia elkarteen arteko bakailao lehiaketa

NAROA ODRIOZOLA | BERGARA

Maiatzaren 23an, zapatua, San Martin plazako arkupeak lapikoz beteko dituzte parte-hartzaileek. Elkarte bakoitzetik bi pertsonaz osatutako talde bakarrak eman ahal izango du izena lehiaketan.

110 euroko dieta

Taldeek maiatzaren 13tik 20ra hartu ahal izango dituzte lurrezko kazuelak eta 110 euroko dieta udaletxean. Diru kopuru horrekin, bakailaoa eta hori prestatzeko behar dituzten osagaiak erosi beharko dituzte.

Bakailaoa 12:45ean entregatu beharko dute taldeek, eta, epaimahaiak guztiak probatu ondoren, 13:30ean sariak banatzera ekingo diote. Iaz, Aizpe, Gorla eta Pertxako taldeek irabazi zuten.

Gonzalez eta Higueras iaz alkatearen eskutik saria jasotzen. | GOIENA

AIZPE ELKARTEA

Bakailao, olio eta berakatz onak

Iaz irabazleak izan ziren Toño Gonzalez eta Jenny Higueras, baina irabaztera ez doazela deritzo Gonzalezek. Hiru urtez hartu dute parte lehiaketan. Bakailaoa prestatzeko, bakailaoa bera, olioa eta berakatza onak izan behar direla uste du Gonzalezek. Gainera, bakailao on baten sekretua epaimahaiaren araberakoa dela pentsatzen du, bakoitzaren gustuak desberdinak dira-eta.

Igor Larrañaga eta Ander Aretxaga, saria jasotzen. | GOIENA

GORLA ELKARTEA

Kuadrillatik sortutako partaideak

Duela zazpi urte kuadrillan sortutako erronka bezala hasi ziren bakailao lehiaketan parte hartzen Igor Larrañaga eta Ander Aretxaga. Aurreko urtean bigarren postua lortu zuten Gorla elkarteko kideek.

Larrañagaren ustez, bakailao on baten sekretua, bakailaoa bera ona izateaz gain, sutan denbora justua edukitzea da.

PERTXA ELKARTEA

Herria girotzea helburu

Pertxa elkarteko Josune Perezek eta Joxe Mari Perezek azkeneko hiru urteetan hartu dute parte elkarrekin lehiaketan. Herrian egiten diren ekintzetan parte hartzea gustuko du Joxe Mari Perezek, jendea entretenitu eta herrian giroa egon dadin. Txapela behin lortu dute aita-alabek. Iaz hirugarren gelditu ziren.

Bakailao on baten sekretuaz galdetuta, argi du Joxe Mari Perezek: bakailaoak berak ona behar du izan; baina olioak ere garrantzia dauka.

Aurten aita-alabak ez dira aurkeztuko lehiaketara.

Joxe Mari Perez eta Josune Perez alkatearekin iazko sari banaketan. | GOIENA

UGARTE
AROZTEGIA - ALTZARIAK

Ondo pasa jaietan!

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

AROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com

Proiektuak · Koltxoiak
Horma-Armairuak
Altzariak neurrira
Ateak · Eskailerak · Leihoak ·
Tarimak · Egur lanak



Pintzel eta amantalekin plazara

Maiatzaren 23an haur eta gazteen 35. Simon Arrieta Plastika Sariketa jokatuko da

Duela bi urteko parte-hartzaileak euren lanekin esku artean. | GOIENA

NAROA ODRIOZOLA | BERGARA

Bergaran margotzeko zaletasun handia dago. Hogeita hamabost urte pasatu dira lehendabiziko Simon Arrieta Plastika Sariketa egin zenetik, eta, denbora luzea bada ere, urtero haur eta gazteak plazara hurbiltzen dira pintatzeko prest.

Aurten ere, ohitura ez galtzeko, pintzel eta amantalak gertu edukiko dituzte herriko artista gaztetxoek; haur eta gazteen Simon Arrieta Plastika Sariketa egingo dute Pazkoetako zapatuan. Sariketak Beart Bergarako arte elkartearen laguntza izango du, eta, esan bezala, aurtengoa 35. edizioa izango da.

Hiru taldetan banatuta

9 eta 14 urte bitarteko gaztetxoek hiru taldetan banaturik hartuko dute parte lehiaketan: batetik, 9 urtez azpikoak; bestetik, bigarren taldea 9, 10 eta 11 urtekoek osatuko dute; eta, azkenik, 12, 13 eta 14 urtekoak hirugarren taldean egongo dira.

Parte hartu nahi duten artistek marrazkian, pinturan edo moldeatuan (plastilinarekin) egin ahalko dituzte euren lanak.

Lanen gaiek Pazkoekin zerikusia izan beharko dute: Bitorianatxo, erraldoi konpartsak, barrakak, kalejira, sukaldaritza, zezen edo bigantxen ekitaldiak, eta abar.

Mihiseko lanak, baloratuak

Lanak mihise edo lientzoan egitea baloratuko dute. Gainera, Beartek parte hartzaileak mihisean marraztera animatzen ditu.

9 eta 14 urte bitarteko gaztetxoendako lehiaketa

Horretarako, elkarteko kaballeteak erabili ahal izango dituzte, eta pinturak eta mihiseak ere haur eta gazteentzako eskuragarri egongo dira.

Marrazki-espezialitateko partaideei bertan emango dizkiete laminak eta arkatzak. Hori bai, antolatzaileek parte-hartzaileei amantala eramatea gomendatzen diete.

Goizean goizetik, plazan

10:00etatik 11:00etara mihise eta laminen zigilatzea egingo dute herriko plazan. Gainera, haur eta gazteek bertan (San Martin plazan) egin beharko dituzte lanak eta 12:30ak baino lehen aurkeztu beharko dituzte.

Epaimahaiari dagokionez, antolatzaileek izendatuko dute, baina Beart Bergarako artisten elkarteko kideek osatuko dute. Aurkeztutako lanen teknika eta sormena baloratuko dute. Honela, epaimahaiak sariak eman gabe utz ditzake eta sari horiek beste talde batera pasa.

Sari banaketa egunean bertan

13:30ean egingo dute sari banaketa, San Martin plazan, eta irabazleek Bergarako komertzioetan gastatzeko bonuak jasoko dituzte. Talde bakoitzeko bost sari egongo dira eta taldearen arabera bonuaren balioa desberdina izango da. Horrela, lehenengo taldeko irabazleek 10 euroko balioa duten bonuak jasoko dituzte, bigarren taldekoek 20 euroko bonuak eta hirugarren taldekoek 30 eurokoak.

Bergarako komertzioetan gastatzeko bonuak irabaziko dituzte

Urtero parte-hartzaile asko

Simon Arrieta Plastika Sariketa hasi zenetik, asko izan dira parte hartu duten haur eta gazteak, eta esperientzia urtero errepikatzen dutenak ere badira batzuk.

Aurreko urtean, adibidez, guztira, 71 haur eta gaztek hartu zuten parte Simon Arrieta plastika sariketan.

Musikazaleek gozatzeko aukera asko

Askotariko estiloak entzungai Pazkoetan: pop-rocka, euskal musika, doinu kubatarrak...

Hesian musika taldea kontzertu batean. | HESIAN

HESIAN | MUSIKA TALDEA

"Bergarako jaiek oso ospe ona daukate eta ziur kontzertu polita aterako dela"

Bederatzi urte pasatu dira Hesian talde nafarra sortu zenetik. Zortzi taldekidez osatuta, denbora horretan sei disko kaleratu ditu taldeak eta hirurehun kontzertu inguru eskaini ditu Euskal Herriko hainbat plazatan.

Orain, *Hegalak astinduz* biran bete-betean murgilduta, Pazkoak bisitatuko ditu taldeak. Neska-mutil ahotsekin jositako pop-rock edota punk-rock melodiko doinuz beteko da Bergarako San Martin plaza. Pentekoste jaiei hasiera bikaina emateko, egubakoitzean, maiatzak 22, 23:00etan eskainiko du kontzertua Hesian taldeak.

Bergaran kontzertua eskaini ondoren, talde nafarraren hurrengo saioa Eibar izango da, maiatzaren 29an. Bertan, Espaloian eta Emepebost taldeak ere egongo dira.

Duela hilabete inguru Oñatin izan zineten; beraz, bailara bisitatu duzue dagoeneko. Hala ere, lehenengo aldia izango da Bergaran?

Hirugarren aldia da Bergaran joko duguna. Lehen aldia 2008an izan zen, txosnagunean. Bigarrena, aldiz, urtebete geroago izan zen, 2009an, alegia, Korrikaren jaialdi batean.

Beti izan dugu lotura berezia Debagoieneko eskualdearekin, askotan jo baitugu bertan.

Gainera, oraingoan, herriko plazan izango zarete. Urduri?

Urduritasuna beti dago presente. Egiten duguna maite dugu eta ilusio horrek beti dakar urduritasun apur bat.

Gogotsu zatozte Pazkoetara?

Gogotsu, beti, leku guztietara. Bergarako jaiek oso ospe ona daukate eta ziur kontzertu polita aterako dela!

Nolako kontzertua eskainiko duzue? Zerbait berezia prestatu duzue?

Beti prestatzen dugu zerbait berezia kontzertuetarako, eta hau ez da salbuespena izango.

Daukagun guztia emango dugu gerturatzen denak goza dezan eta San Martin plaza beteta egon dadin.

***Hegalak astinduz* disko berriko kantuez gain, aurreko diskoetako kantuak ere entzungo ditugu?**

Bai, noski! Disko guztietako abestiak joko ditugu, baina egia da azkeneko diskoari garrantzi berezia emango diogula.

Kontzertua bukatzean, Pazkoez gozatzen geldituko zarete?

Litekeena da, bai... batzuk jada apur bat zahartuta gaude, baina taldeko gazteenak geldituko dira hor nonbait.

Bizkari, Errotabehere eta Bereauk osatzen dute Kalakan. | KALAKAN

Euskal kantagintzako doinuak

Pazkoetan Bergaran izango diren musika taldeen artean, azkenaldian gogor dabilen talde baten aldeko apustua egin du jai batzordeak: Kalakan da. Iparraldeko taldeak eta La Jodederak maiatzaren 23an, zapatua, 23:00etan eskainiko dute kontzertua San Martin plazan. Kalakanek euskara du hizkuntza, eta, euskal kantagintza oinarri hartuz, moldaketa garaikideak egiten ditu.

Lehen urratsak

2009an sortu zen Kalakan taldea eta hiru taldekidez osatuta dago: Thierry Bizkari *Ttirritt*, Xan Errotabehere eta Jamixel Bereau. Katia eta Marielle Labeque piano-jotzaileekin kolaboratu eta Europan zehar kontzertuak eskaini ondoren, hirukotea publiko zabalago batera ezagutzera eman zen Madonnarekin; The MDNA Tour mundu-birarekin, hain zuzen ere.

'Elementuak', azken diskoa

Apirilean Sarako koban eta San Telmo museoan aurkeztu zuen taldeak *Elementuak* izeneko bigarren diskoa.

NUEVO TALISMAN | ORKESTRA

"Bergarako ikus-entzuleek dantzaldiaz asko disfrutatzen dute"

Errioxa eta Nafarroako partaidez osatutako orkestra da Nuevo Talisman. Guztira, hamalau dira taldean: bederatzi musikari eta bost teknikari. Hainbatetan izan da Bergaran taldea; beraz, ez da herria bisitatzen duen lehen aldia izango.

Pazkoak girotzeko, ikuskizun zabala eskainiko du maiatzaren 25ean.Orkestrak bi saio izango ditu Pazkoetan: bata 12:30ean eta bestea 23:00etan. Biak Espoloian izango dira.

Zer moduzkoak dira ikus-entzule bergararrak?

Bergarako ikus-entzuleek ondo pasatzen dakite. Disfrutatzea oso gustuko dute. Dantzaldiaz gozatzen duen publikoa da. Bergaran eskainiko dugun emanaldiko goizeko saioan, nagusiagoak izango dira ikus-entzuleak, baina asko gozatzen dute eta asko gustatzen zaie dantzaz gozatzea. Gaueko saioan, aldiz, gazteagoa izaten da publikoa, eta ondo pasatzen dute haiek ere.

Nolako ikuskizuna prestatu duzue?

Adin tarte guztietara zuzendutako ikuskizuna prestatu dugu Pazkoetarako. Ez dugu abestien errepertorio finkorik eta daukagun ikus-entzuleen arabera jolasten joaten gara. Adin jakin bateko ikus-entzuleak baldin baditugu, udako hiru-lau kantu jo ditzakegu, baina baita ere balsa, txa-txa-txa...

Gaueko saioa nolakoa izango da?

Gaueko saioko publikoa gazteagoa izaten denez, askotariko ikuskizun bisuala eta entretenigarria izango da. Ikus-entzuleek, dantzatu eta gozatzeaz gain, begiratzeaz disfrutatu ahal izango dute, guk ere dantzan egingo dugulako.

Zer dute gustukoago bergararrek, abestea ala dantzatzea?

Orokorrean, Bergarako ikus-entzuleei abestea asko gustatzen zaie. Abesti ezagunak entzuten dituztenean, ahapetik kantatzen dituzte. Abestea eta disfrutatzea gustuko duten ikus-entzuleak direla esango genuke guk.

Jakina, beti egongo da norbait abesteaz gain dantzatzea ere gustuko duena.

Abesteaz gain, dantzatu ere egiten dute taldekideek. | NUEVO TALISMAN

Euskal Herriko eta Kubako musikariz osatuta dago taldea. | LA JODEDERA

Dantza eta gozamena helburu

Kalakan hirukotearen euskal doinuez gain, La Jodedera taldearen erritmo kubatarrak ere entzun ahal izango dira maiatzaren 23an, 23:00etan, San Martin Plazan.

Euskal Herriko eta Kubako musikariak

La Jodedera taldea 2009an osatu zuten Kubako eta Euskal Herriko lau musikarik: Jon Casares *Txorromorro* gitarra-jotzaile eta kantariak, Jon Oiartzun *Jomes Bap* baxu-jotzaileak, Armando Figueroa *Mandi Cienfuegos* perkusionista eta kantariak eta Oscar La Habana *tres* kubatarraren arduradunak.

Kasualitatez sortutako taldea

Leitzako taberna batean *Mandi Cienfuegos* eta lagunak ogitartekoak erosten zeudela, ogirik gabe gelditu ziren tabernariak eta *Txorromorro*-k etxera gonbidatu zuen lagun-taldea. Bazkaldu ondoren, musika jotzen eta abesten hasi ziren, eta, horrela, La Jodedera sortu zen.

Alderdi errebindikatiboa baztertu gabe, musika sortzeko eta jendeak dantza egiteko eta ondo pasatzeko helburuarekin sortu zuten taldea.

Jean Louis David
Ile Apain

Astelehen, astearte eta azteazkenetan

%20ko
deskontua ile-apaindegian*

...eta mutilek ere %20ko deskontua ostegunetan

Ibargarai 43 - Bergara • 943 76 22 48
www.jeanlouisdavid.com

Astelehenetik Ostegunera:
09:30 - 12:00 / 15:30 - 18:30
Ostirala: 09:30 - 18:30
Larunbata: 08:30 - 12:30

*Deskontuak ez ditu produktuak barne hartzen.
Jai bezperatan ez da aplikagarrria.

Ondo pasau Pazkoetan!



HAUTESKUNDEAK GOIENA TELEBISTAN

MAHAI-INGURUAK HERRIRIK HERRI:

22:00ETAN HASITA

ENEKO AZKARATEK AURKEZTUTA

MAIATZAK 19, MARTITZENA: ARRASATE
ENEKO BARBERENA, EH BILDU
MARIA UBARRETXENA, EAJ
OSCAR GARTZIA, PSE-EE
SALVA GONZALEZ, IRABAZI
IGOR URIZAR, BALEIKE ARRASATE

MAIATZAK 20, EGUAZTENA: BERGARA
AGURNE BARRUSO, EH BILDU
JUANJE ALBERDI, EAJ
AIERT LIZARRALDE, IRABAZI

MAIATZAK 21, EGUENA: OÑATI
MIKEL BIAIN, EH BILDU
MIREN ELGARRESTA, EAJ

PARTE HARTU ETA EGIN GALDERA ZEUK ERE*:
Posta-elektronikoa: berriak@goiena.com | **Whatsapp:** 688 69 00 17
Twitter: @goiena (mezu zuzena) | **Facebook:** Goiena Albisteak (mezua)

* Epea: alkategaiekin egingo dugun mahai-ingururako galderak bidaltzeko astelehen eguerdira arte

GIPUZKOAKO AHALDUNGAI NAGUSIEKIN ELKARRIZKETAK:

21:00ETAN HASITA

AINHOA IBAÑEZEK AURKEZTUTA

MAIATZAK 16, ZAPATUA: IKER ZUBIZARRETA, AHAL DUGU
MAIATZAK 17, DOMEKA: MANU AGIRRE, UPD
MAIATZAK 18, ASTELEHENA: ARANTZA GONZALEZ, IRABAZI
MAIATZAK 19, MARTITZENA: DENIS ITXASO, PSE-EE
MAIATZAK 20, EGUAZTENA: MARKEL OLANO, EAJ
MAIATZAK 21, EGUENA: XABIER OLANO, EH BILDU

ALKATEGAIEN PROPOSAMENAK, HERRIRIK HERRI:

21:00ETAN HASITA.

MAIATZAK 15, EGUBAKOITZA: ESKORIATZA
MAIATZAK 18, ASTELEHENA: ANTZUOLA
MAIATZAK 19, MARTITZENA: ARAMAIO
MAIATZAK 20, EGUAZTENA: ELGETA

#m24goiena

UDAL ETA FORU HAUTESKUNDEAK 2015

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena

ZORION AGURRAK

ARRASATE
Jokin Guzman Orobengoa
Maiatzaren 21ean, 4 urte. Zorionak gure superheroiari! Patxo handi bat etxeko guztien partetik.

BERGARA
Iker Elgero Gambra
Maiatzaren 21ean, urtebete. Zorionak, Iker! Oso ondo pasatu zure lehenengo urtebetetzean! Muxu potolo bat aitatxo, amatxo eta, bereziki Ane, Aitor, Unai eta Unaxen partetik! Pa!

ARRASATE
Unax Gartzia
Maiatzaren 20an, 6 urte. Zorionak, *figura*! Ikasi ondo batuketak burutzen formulak asmatu behar ditugu eta altxor bila! Muxu potolo bat etxekoen partetik, bereziki Shaneren izenean.

ARETXABALETA
Erik Oribe
Maiatzaren 18an, 24 urte. Zorionak eta urte askotarako, tio Erik! Egun politxa pasatzia espero dou. Patxo handi bat, bereziki Kenar eta Alaine!

ARRASATE
Jone Axpe
Maiatzaren 18an, 12 urte. Zorionak, maitti! Xarmangarria zara. Asko maite zaitugu. Familiaren partetik muxu pila bat eta muxu goxo-goxo bat bereziki Haizearen eta Alexen partetik.

ELGETA
Karim eta Abdurahim Labaien Toledo
Maiatzaren 18an, 10 urte. Zorionak eta muxu handi-handi bat munduko bi mutiko jatorrenei, aitatxoren eta amatxoren partetik.

BERGARA
Joel Murillo
Maiatzaren 17an, 4 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu zure eguna eta muxu handi bat etxeko guztien eta, bereziki, Erika Yueren partetik.

OÑATI
Nora Madina eta Aitor Zubia
Maiatzaren 17an, Aitorrek 2 urte eta maiatzaren 20an, Norak 5 urte. Zorionak, bikote! Ondo pasatu eguna familixa danaren partetik!

BERGARA
Martin Plazaola
Maiatzaren 16an, urtebete. Zorionak, *xinpatiko*! Egun eder-ederra pasatu, zure laguntxoen partetik! Belarri tirakada bat!

OÑATI
Unai Askasibar
Maiatzaren 16an, 5 urte. Zorionak, Unai! Ondo-ondo pasatu eta muxu handi-handi bat etxeko danan partetik! Muxuak!

ESKORIATZA
Alazne Urkia Agirregabiria
Maiatzaren 16an, 8 urte. Zorionak, printzesa! Ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Zortzi musu handi etxeko guztien partetik.

ARRASATE
Sergio Canales Arribas
Maiatzaren 16an, 36 urte. Zorionak, aitatxo! Munduko hoberena zara eta segi horrela izaten! Zaindu gu eta amatxo. Oso ondo pasatu zure egunean Zigarrolan. Patxo Aitorren eta Alazneren partetik eta amatxoren partetik, musu asko, merezi duzulako.

OÑATI
Aimar Osa Jimenez
Maiatzaren 16an, 6 urte. Zorionak, Aimar! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Besarkada handi bat eta patxo asko Bergarako familiaren partetik.



BERGARA
Veronika Fortuna Rubia
Maiatzaren 16an, 32 urte. Zorionak Bergarako koadrilakoen partetik. Ondo pasatu eguna eta urte askotarako.

ARETXABALETA
Ane Calzon Perea
Maiatzaren 15ean, 6 urte. Zorionak, sorgintxo! Muxu bat etxeko danon partetik.

ANTZUOLA
Maren Atxa Irizar
Maiatzaren 15ean, 9 urte. Zorionak, maittia, etxeko danon partetik! Muxu potolo bana eta ondo pasatu zure urtebetze egunian.

BERGARA
Jare Ruiz Jimenez
Maiatzaren 15ean, urtebete. Zorionak gure parkeko printzesatxoa-rentzat! Besarkada potolo bat zure lau mosketeroen partetik!

OÑATI
Galder Lopez
Maiatzaren 15ean, 2 urte. Zorionak, txapeldun! Konturatu orduko bi urtetxo! Egun zoragarrixa pasatu eta patxo potolo bat danon partetik!

BERGARA
Enara Gisasola
Maiatzaren 14an, 5 urte. Zorionak, Enara, zure bosgarren urtebetetzean! Ondo-ondo pasatu eguna eta patxo handi bat etxeko danen partetik.

BERGARA
Harkaitz Ilarduia Arteaga
Maiatzaren 14an, 6 urte. Zorionak, txapeldun! Hainbeste kandela, ezetz putzada baten emendau!

ARRASATE
Izar Saizar Cazalis
Maiatzaren 14an, 2 urte. Zorionak, printzesa! Patxo potolo bat aitaren, Aneren, Itxasoren eta amaren partetik!

ARRASATE
Paule eta Oihan Ramirez
Paulek 2 urte, maiatzaren 14an eta Oihanek 4 urte, 21ean. Zorionak, maittiak! Ondo-ondo pasatu zuen egunetan eta patxo potoloa familia guztixaren partetik.

OÑATI
Lur Biain Aranburuzabala
Maiatzaren 14an, 7 urte. Zorionak, potxola! Ondo-ondo pasatu merendolan! Etxekuen eta laguntxo danen partetik.

ARRASATE
Aitor Auzmendi Berezibar
Maiatzaren 14an, 5 urte. Zorionak, pirata! Ondo pasatu eguna eta baita Zigarrolako jaiak! Patxo handi bat etxekoen partetik!

OÑATI
Nahia Aramburu
Maiatzaren 12an, urtebete. Zorionak, polit hori! Gure txikitxoak kandela amatatu dezan ikusteko irrikaz gaude. Maite zaitugu. Haizea, Uxue, aita eta amatxo.

ARAMAIO
Garazi Kortabarria Larrañaga
Maiatzaren 11n, 6 urte. Zorionak etxeko denon partetik!

ANTZUOLA
Irati Sudupe Larrea
Maiatzaren 11n, 4 urte. Zorionak, Izadi, aitatxoren eta amatxoren partetik! Patxo potolo bat, txiki!

ARETXABALETA
Laida Eraña Larrea
Maiatzaren 11n, 4 urte. Zorionak, printzesa! Dagoeneko lau urte. Ze handi ein zaren! Muxu erraldoi bat danon partetik!

ARRASATE
Malen Ugarte Salaberri eta Danel Garcia Salaberri
Maiatzaren 11n, Malenek 10 urte eta maiatzaren 12an, Danelek urtebete. Zorionak eta marrubizko musu handi bana familiako guztion partetik!

ARRASATE
Nahia Fernandez
Maiatzaren 9an, 2 urte. Zorionak, printzesi! Bi urte jada! Primeran pasatu eguna. Daviden, Anaren eta, batez ere, Mararen partetik, marrubizko muxu pila!

ARETXABALETA
Xabier Carbajo Alvarez
Maiatzaren 8an, 2 urte. Zorionak, maitia, zure bigarren urtebetetzean! Ondo-ondo pasatu zure eguna. Muxu handi bat etxeko danon partetik.

ARRASATE
Egoitz Bergaretxe Gastañaga
Maiatzaren 8an, 9 urte. Zorionak etxeko danon partetik eta patxo mordoa Zihararen partetik!

OTXANDIO
Aimar Arejolaleiba Carrasco
Apirilaren 26, urtebete. Zorionak eta holako potxolo eta sinpatiko jarraitu! Aitaita eta amamaren eta etxeko danen partetik.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak.
Hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet
Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta *http://goiena.eus/zorionagurrak* helbidean sartu zorion agurra.
Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.
Posta elektronikoa
Mezua bidali *zorionagurrak@goiena.eus* helbidera, eta idatzi:
izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.
Ordezkaritzak
Etor zaitez Goienaren ordezkaritzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

ASTEA GOIENAN

JAGOBA DOMINGO

Mahai-inguruak alkategaiekin

Herriz herri alkategaiekin egindako mahai-inguruak eskainiko ditu Goiena telebistak martitzenetik aurrera. Hilaren 19an, martitzena, Arrasateko alkategaiak ikusi ahal izango dira; eguaztenean, berriz, Bergarakoak; eta eguenean, Oñatikoak.
'Mahai-ingurua'
Martitzena, 22:00

GOIENA

Debagoieneko alkategaiak

Gaur, egubakoitza, Eskoriatzako alkategaiak ezagutzeko aukera izango da Goiena telebistan. Astelehenean, hilak 18, Antzuolakoak izango dira; martitzenean, ostera, Aramaiokoak ezagutzeko aukera izango da; eta eguaztenean, berriz, Elgetakoak.
'Hauteskundeak 2015'
Egubakoitza, 21:30

GOIENA TELEBISTA

EGUBAKOITZA, 15
12:00 Debagoiena zuzenean
12:30 Galdegazte
13:25 Hauteskundeak 2015: Aretxabaletako alkategaiak
13:55 Zorion Agurrak
14:00 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak
15:00 Amaia DJ
15:30 Onein
16:00 Debagoiena zuzenean
16:30 Berriak
17:00 Aizank!
17:30 Ikusi irratia
18:25 Zorion Agurrak
18:30 Berriak
19:00 Amaia DJ
19:30 Hauteskundeak 2015: Aretxabaletako alkategaiak
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Hauteskundeak 2015: Eskoriatzako alkategaiak
22:15 Berriak
22:45 Debagoiena zuzenean
23:15 Ahotsenea
23:30 Aizank!
00:45 Debagoiena zuzenean
01:15 Berriak

ZAPATUA, 16
10:00 Amaia DJ
10:30 Sasoi betean
11:00 Debagoiena zuzenean
12:00 Onein
12:30 Ur eta lur
13:00 Hauteskundeak 2015: Debagoieneko alkategaiak
16:00 Aizank!
16:30 Ikusi irratia
17:30 Amaia DJ
18:00 Debagoiena zuzenean
19:00 Ahotsenea
19:30 Harmailatik
20:00 Debagoiena zuzenean
21:00 Ahaldungai nagusiak: Podemos
21:30 Hauteskundeak 2015: Debagoieneko alkategaiak
00:30 Debagoiena zuzenean
01:30 Ahotsenea
02:00 Amaia DJ

DOMEKA, 17
10:00 Debagoiena zuzenean
11:00 Ur eta lur
11:30 Hauteskundeak 2015: Debagoieneko alkategaiak
14:30 Debagoiena zuzenean
15:00 Ahaldungai nagusiak: Podemos
15:30 Zorion Agurrak
15:30 Aizank!
16:00 Amaia DJ
16:30 Debagoiena zuzenean
17:30 Sasoi betean
18:00 Ahaldungai nagusiak: Podemos
18:00 Hauteskundeak 2015: Debagoieneko alkategaiak
21:00 Ahaldungai nagusiak: UPD
21:45 Amaia DJ
22:15 Debagoiena zuzenean
23:15 Amaia DJ
23:45 Debagoiena zuzenean
00:45 Ahotsenea

ASTELEHENA, 18
12:00 Debagoiena zuzenean
13:00 Hauteskundeak 2015: Eskoriatzako alkategaiak
13:45 Zorion Agurrak
13:45 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak
15:00 Ahaldungai nagusiak: UPD
15:45 Onein
16:00 Debagoiena zuzenean
16:30 Berriak
17:00 Aizank!
17:30 Sasoi betean
17:45 Ahaldungai nagusiak: UPD
18:25 Zorion Agurrak
18:30 Berriak
19:15 Hauteskundeak 2015: Eskoriatzako alkategaiak
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Ahaldungai nagusiak: Irabazi
21:30 Hauteskundeak 2015: Antzuolako alkategaiak
22:00 Harmailatik
22:30 Berriak
23:00 Debagoiena zuzenean
23:30 Ahotsenea
00:00 Debagoiena zuzenean
00:30 Berriak

MARTITZENA, 19
12:00 Debagoiena zuzenean
12:30 Harmailatik
12:55 Zorion Agurrak
13:00 Hauteskundeak 2015: Antzuolako alkategaiak
13:30 Harmailatik
14:00 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak
15:00 Ahaldungai nagusiak: Irabazi
15:25 Zorion Agurrak
15:30 Onein
16:00 Debagoiena zuzenean
16:30 Berriak
17:00 Aizank!
17:30 Harmailatik
18:00 Ahaldungai nagusiak: Irabazi
18:25 Zorion Agurrak
18:30 Berriak
19:00 Harmailatik
19:30 Hauteskundeak 2015: Antzuolako alkategaiak
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Ahaldungai nagusiak: PSE
21:30 Hauteskundeak 2015: Aramaioko alkategaiak
22:00 Mahai-inguruak herriz herri
23:00 Berriak
23:30 Harmailatik
00:00 Mahai-inguruak herriz herri
01:00 Berriak

EGUAZTENA, 20
12:00 Mahai-inguruak herriz herri
13:00 Hauteskundeak 2015: Aramaioko alkategaiak
13:30 Sasoi betean
13:55 Zorion Agurrak
14:00 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak
15:00 Ahaldungai nagusiak: PSE
15:30 Onein
16:00 Aizank!
16:30 Berriak
17:00 Mahai-inguruak herriz herri
18:00 Ahaldungai nagusiak: PSE
18:30 Berriak
18:55 Zorion Agurrak
19:00 Amaia DJ
19:30 Hauteskundeak 2015: Aramaioko alkategaiak
19:55 Zorion Agurrak
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Ahaldungai nagusiak: EAJ
21:30 Hauteskundeak 2015: Elgetako alkategaiak
22:00 Mahai-inguruak herriz herri
23:00 Berriak
23:30 Harmailatik
01:00 Berriak

EGUENA, 21
12:00 Mahai-inguruak herriz herri
13:00 Hauteskundeak 2015: Elgetako alkategaiak
13:30 Amaia DJ
14:00 Harmailatik
14:30 Berriak
15:00 Ahaldungai nagusiak: EAJ
15:30 Onein
16:00 Ur eta lur
16:30 Berriak
17:00 Mahai-inguruak herriz herri
18:00 Ahaldungai nagusiak: EAJ
18:25 Zorion Agurrak
18:30 Berriak
19:30 Hauteskundeak 2015: Elgetako alkategaiak
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Ahaldungai nagusiak: EH Bildu
21:30 Amaia DJ
22:00 Mahai-inguruak herriz herri
23:00 Berriak
00:00 Mahai-inguruak herriz herri
00:30 Berriak
23:30 Amaia DJ

ARRASATE IRRATIA

'Altxorraren uhartea' musikalerako sarrerak zozketan

Oñatiko Ganbara Txiki abesbatzaren eskutik, hilaren 23an, zapatua, 18:00etan, Amaia antzokian, *Altxorraren uhartea* ikuskizunaz gozatu ahal izango da. Bertara joateko sarrerak irabazi nahi izanez gero, deitu 943 25 05 05 telefonora edo idatzi *irratia@goiena.eus* helbidera.

Arrasateko alkategaien mahai-ingurua

Eguaztenean, hilak 20, 19:00etan, Arrasate Irratian entzun ahal izango da, oso-osorik, Arrasateko alkategaiekin egindako mahai-ingurua. Bertan parte hartuko dute EH Bildu, EAJ, PSE-EE, Irabazi-Ganemos eta Baleikeko alkategaiek. Eneko Azkaratek gidatutako saioa izango da.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE			
Egubakoitza, 15	M.FCA. AZKOAGA	Iturriotz 17	943 79 79 99
Zapatua, 16	FERNANDEZ	Maisu Aranbarri kalea 1	943 79 22 26
Domeka, 17	IRIZAR	Erguin 11	943 79 12 39
Astelehena, 18	AMEZUA	Sta. Marina 32	943 79 09 74
Martitzena, 19	ESPAÑOL MORALES	Araba Etorb., 14	943 79 18 65
Eguaztena, 20	RUIZ	Nafarroa Etorb., 1	943 79 14 09
Eguena, 21	ETXEBERRIA	Zarugalde kalea, 38	943 77 16 30
BERGARA			
Egubakoitza, 15	ESTELLA	Matxiategi 5	943 76 19 63
Zapatua, 16	MOZOS	Iparragirre 2	943 76 12 15
Domeka, 17	MOZOS	Iparragirre 2	943 76 12 15
Astelehena, 18	URRUTIKOETXEA	Orixondo plaza 4	943 76 11 74
Martitzena, 19	ZABALA	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Eguaztena, 20	ESTELLA	Matxiategi 5	943 76 19 63
Eguena, 21	URRUTIKOETXEA	Orixondo plaza 4	943 76 11 74
OÑATI			
Egubakoitza, 15	ANDUAGA	San Lorentzo 3	943 78 21 16
Zapatua, 16	ANDUAGA	San Lorentzo 3	943 78 21 16
Domeka, 17	ANDUAGA	San Lorentzo 3	943 78 21 16
Astelehena, 18	ANDUAGA	San Lorentzo 3	943 78 21 16
Martitzena, 19	ANDUAGA	San Lorentzo 3	943 78 21 16
Eguaztena, 20	IGARTUA	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Eguena, 21	IGARTUA	Kale Zaharra 1	943 78 01 22

Gipuzkoako farmaziak eskuko telefonoan izateko, bidali FARMA 215800 zenbakira.
Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, (www.cofgipuzkoa.com).

EGURALDIA ASTEBURUAN

DEBAGOIENA

Max. 17º
Min. 12º

ZAPATUA, 16
Hodei asko izango dira zeruan, baina apur bat hobera egingo du eguraldiak. Tenperaturak zertxobait igoko dira.



Max. 17º
Min. 12º

DOMEKA, 17
Tenperatura mantendu egingo da, baina eguraldia nahasiago egongo da. Euria egiteko arriskua egongo da.

EUSKAL HERRIA



GAZTE INFORMAZIOA

TXALAPARTA IKASTAROA

Arrasateko Udaleko Gazteria Saila. Astelehenetan, maiatzaren 18tik ekainaren 15era, 18:30-20:30, Ttakun taldearekin elkarlanean. Prezioa 25 euro; ikasle eta langabeentzat, 15 euro.

UDAKO IKASTAROAK

EHU. Donostiako Miramarren eta Bilbon ekainetik irailera izango diren ikastaro, mintegi, ziklo... hainbat gai jorratzeko: informazio zientziak, zuzenbidea, historia eta kultura, irakasteko ikasten, gizarte gaiak, osasun zientziak, linguistika eta literatura, psikologia... Epea: maiatzak 31. *www.ehu.es/cursosverano.*

UEU. Eibarren, Baionan eta Iruñean, ekainaren 29tik uztailaren 22ra bitartean, jardunaldiak, artea eta musika, giza zientziak, gizarte zientziak, ingeniaritza eta teknologia, zientziak... Epea: maiatzaren 25etik aurrera. *www.ueu.org.*

HIK HASI. Udako Topaketak. 47 ikastaro Donostian eta Leioan, uztailaren 1etik 8ra. Hezkuntza eta pedagogiaren gaineko ikastaroak. Epea: maiatzak 31. *www.hikhasi.eus.*

UDAON UDALEKU ARTISTIKOAK

GaraiOn Natur Gunea. Sormen egonaldiak uztailean, 13 urtetik gorakoentzat. Aste bakoitzean, diziplina bat: akrobazia, zinema, antzerkia, musika... Epea: maiatzak 31.

GAZTEBIZHITZA

Eusko Jaurlaritzaren ataria. Informazio ugari jaso daiteke helbide honetan: *www.gaztebizhitza.eus.*

INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO:
Arrasateko Gazte bulegoa: Biteri etorbidea 3 | 943 25 20 65 | gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net
Oñatiko Gazteendako Informazio Gunea: Foruen plaza 4 | 943 71 82 57 | gazteinformazioa@oinati.net

EZKONTZAK ETA EZTEI OSPAKIZUNAK

Ainhize eta Koldo

Maiatzaren 16an ezkonduko dira. "Zorionak, bikote! Ziur gaude ederto pasatuko dugula denok elkarrekin egun zoriontsu eta berezi honetan. Asko maite zaituztegun familia guztiaren eta, bereziki, Izarren eta Unaxen partetik! Ondo-ondo pasatu eztei-bidaian!".

Maria eta Alfredo

Maria eta Alfredo maiatzaren 12an ezkondu ziren, orain 25 urte. Zapatuan, familia artean ospatuko dituzte zilarrezko ezteiak. Senide guztien partetik, "egun ederra pasatu eta segi zoriontsu, bikote!".

HILDAKOAK

Andres Umerez Oianguren. Oñatin, maiatzaren 8an. 89 urte.
Manuel Badiola Sein. Arrasaten, maiatzaren 8an. 77 urte.
Jesus Gartzia-Etxabe Ugarte. Aretxabaletan, maiatzaren 9an. 79 urte.
Juana Flores Murillo. Arrasaten, maiatzaren 10ean. 99 urte.
Braulia Eizagirre Odriozola. Arrasaten, maiatzaren 11n. 83 urte.
Jose Maria Uribarri Salas. Oñatin, maiatzaren 12an. 85 urte.
Arantxa Zuazua Gartzia de Kortazar. Uharten, maiatzaren 12an.
Adolfo Egizabal Lafuente. Arrasaten, maiatzaren 13an. 78 urte.
Martzelino Goenaga Goenaga. Bergaran, maiatzaren 13an. 85 urte.
Maria Urtzelai Lasa. Eskoriatzan, maiatzaren 13an. 90 urte.

URTEURRENA

Ramon Belar Gorosabel
Angiozarren hil zen 2014ko maiatzaren 10ean, 88 urte zituela.

Juliana Iturricastillo Sarraoa
Angiozarren hil zen 2014ko maiatzaren 29an, 87 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, maiatzaren 17an, 11:00etan, Angiozarko Mikel Goiaingeruaren elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Bergaran (Angiozar), 2015eko maiatzaren 15ean.

URTEURRENA

Marcelina Agirre Ugalde
Pako Larrañagaren alarguna

Osintxun hil zen 2014ko maiatzaren 17an, 84 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, maiatzaren 17an, 12:00etan, Osintxuko parrokian.
—
Ez zaitugu inoiz ahaztuko.

Zure sendia

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Bergaran, (Osintxu), 2015eko maiatzaren 15ean.

URTEURRENA

Ion Errasti Alzelai

Tolosan hil zen 2014ko maiatzaren 15ean.

Datorren domekan, maiatzaren 17an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian, Ionen aldeko otoitza egiteko bilduko gara.
—
Gure bihotzetan betiko.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Bergaran, 2015eko maiatzaren 15ean.

URTEURRENA

Iñaki Bereziartua Odriozola

Arrasaten hil zen 2008ko maiatzaren 17an.

Denbora aurrera doa, aita;
zazpi urte zu gabe, jada.
Baina urteak joan ahala,
aldatzen ez den zerbait bada:
zure lezioek aurrera egiteko ematen diguten indarra.

Arrasaten, 2015eko maiatzaren 15ean.

URTEURRENA

Nerea Altube Arrese

2013ko maiatzaren 17an hil zen, 34 urte zituela.

Beti izango zara gure bihotzetan.

Aretxabaletan, 2015eko maiatzaren 15ean.

MEZA

Arantxa Zuazua Garcia de Cortazar

Uharten (Nafarroa) hil zen 2015eko maiatzaren 12an.

Haren arimaren aldeko meza domekan izango da, maiatzaren 17an, 11:30ean, Aretxabaletako Jasokundeko amaren parrokian.
—
Familixa danaren partetik, muxu bat.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Aretxabaletan, 2015eko maiatzaren 15ean.

ESKER ONA

Andres Umerez Oianguren

Oñatin hil zen 2015eko maiatzaren 8an, 89 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.

Oñatin, 2015eko maiatzaren 15ean.

ESKER ONA

Maria Urzelai Lasa
Mateo Landaren Alarguna

Eskoriatzan hil zen 2015eko maiatzaren 13an, 90 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.

Eskoriatzan, 2015eko maiatzaren 15ean.

OROILORE
Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arreta eta ardura handienarekin, nire asmoa da familiari ahalik eta traturik beroena eta hurbilekoena ematea

Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu: NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.

maribi 617 44 21 55
BERGARA

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05
edo *eskelak@goiena.eus*
Eskelaren prezioa: 130 euro.
Goiena Klubeko bazkideendako 118 euro.
Goiena: irakurriena Debagoienean.

ZINEMA

ARRASATE

AMAIA ANTZOKIA

La dama de oro
Zapatua: 19:30, 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

La oveja Shaun
Zapatua eta domeka:
17:00.

OÑATI

KULTURA ETXEA

El viaje mas largo
Egubakoitza eta zapatua:
22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

EIBAR

COLISEO

Minusculos
Zapatua: 17:00.

Mad Max
Zapatua: 19:45.
Domeka: 17:00.

El ultimo lobo
Zapatua: 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

Felices 140
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

ANTZOKIA

Mad Max
Zapatua: 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

GASTEIZ

FLORIDA

Mandarinas
Egubakoitzetik domekara:
18:30, 20:15, 22:30.
Astelehenetik eguenera:
17:00, 18:45, 20:30.

La oveja Shaun
Egubakoitza: 16:45.
Zapatua eta domeka:
12:00, 16:45.

Sicarius
Egubakoitzetik domekara:
16:30, 20:20, 22:30.
Astelehenetik eguenera:
17:00, 20:45.

A esmorga
Egubakoitzetik domekara:
18:15.
Astelehenetik eguenera:
18:45.

De Echebarria a Etxeberria
Egubakoitzetik domekara:
16:30, 20:20, 22:30.
Astelehenetik eguenera:
17:00, 20:45.

Hipocrates
Egubakoitzetik domekara:
18:15.
Astelehenetik eguenera:
18:45.

Mad Max
Egubakoitzetik domekara:
17:30, 20:00, 22:30.
Astelehenetik eguenera:
17:30, 20:00.

Por eso
Egubakoitzetik eguenera:
16:30.
Zapatua eta domeka:
12:00, 16:30.
Astelehenetik eguenera:
17:00.

La familia Belier
Egubakoitzetik domekara:
18:05, 22:30.
Astelehenetik eguenera:
18:35.

Suite francesa
Egubakoitzetik domekara:
18:30, 20:15, 22:30.
Astelehenetik eguenera:
17:00, 20:45.

Vengadores: la era Ultron
Egubakoitzetik eguenera:
17:00.
Zapatua eta domeka:
12:00, 17:00.

El maestro del agua
Egubakoitzetik domekara:
19:45.
Astelehenetik eguenera:
17:00.

La profesora de historia
Egubakoitzetik domekara:
16:30, 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera:
17:00, 21:00.

Asterix (euskaraz)
Zapatua eta domeka:
12:00.

Tom txiki (euskaraz)
Zapatua eta domeka:
12:00.

Minusculo
Zapatua eta domeka:
12:00

BOULEVARD

Mad Max
Egubakoitza eta zapatua:
23:45.
Egubakoitzetik eguenera:
17:30, 18:45, 20:00,
22:30.
Zapatua eta domeka:
16:15.

Mad Max: furia en la carretera 3D
Egubakoitzetik eguenera:
21:15.

Vengadores: la era del Ultron
Egubakoitza eta zapatua:
23:00, 00:00.
Egubakoitzetik eguenera:
18:00, 19:00, 20:00,
21:00, 22:00.
Zapatua eta domeka:
16:00.

Vengadores: la era del Ultron 3D
Egubakoitzetik eguenera:
20:00.

El guru de las bodas
Egubakoitzetik domekara:
19:55.
Astelehenetik eguenera:
18:00, 22:45.

Como sobrevivir a una despedida
Egubakoitza eta zapatua:
00:45.

Superpoli en Las Vegas
Egubakoitzetik domekara:
17:50.
Zapatua eta domeka:
15:45.

El maestro del agua
Zapatua eta domeka:
00:35.
Egubakoitzetik domekara:
20:05, 22:20.
Astelehenetik eguenera:
20:15, 22:35.

La familia Belier
Egubakoitzetik domekara:
20:15.
Astelehenetik eguenera:
18:00, 20:00.

Sweet home
Egubakoitza eta zapatua:
00:20.
Egubakoitzetik domekara:
22:30.
Astelehenetik eguenera:
18:10, 22:15.

Lo mejor de mi
Egubakoitzetik domekara:
22:05.
Egubakoitza eta zapatua:
00:30.
Astelehenetik eguenera:
20:10, 22:30.

Asterix: la residencia de los dioses
Egubakoitzetik domekara:
18:05.
Zapatua eta domeka:
16:15.

El viaje mas largo
Egubakoitza eta zapatua:
00:15.
Egubakoitzetik eguenera:
18:45, 21:30.
Zapatua eta domeka:
16:00.

Home: hogar dulce hogar
Zapatua eta domeka:
15:45.

La oveja Shaun
Egubakoitzetik eguenera:
17:35.
Zapatua eta domeka:
15:40.

Fast & furius
Egubakoitzetik eguenera:
19:30, 22:15.

Disney junior party
Zapatua eta domeka:
15:30.

Cenicienta
Egubakoitzetik domekara:
17:50.
Zapatua eta domeka:
15:30.

Perdiendo el norte
Egubakoitza. eta
astelehenetik eguenera:
17:45.

Una nueva amiga
Astelehenetik eguenera:
18:10, 20:20.

KRITIKA

Kondairak eta mitologia

LA CANCIÓN DEL MAR ★★★☆☆
Zuzendaria: Tomm Moore
Herrialdea: Irlanda.
Generoa: Marrazki bizidunak.

Behin baino gehiagotan tarte bat egin diegu animazio filmeei. Disney, Dreamwoorks eta Pixar izan daitezke arlo honetan mugitzen diren estudio ezagunenak. Era berean, ospe handia dute japoniarrek egiten dituzten lanak. Dena den, ia mundu osoan, baliabide gehiagorekin edo gutxiagorekin, sortzen ari dira genero horretako filmak. Gaur komentatuko duguna Irlandatik datorkigu. *La canción del mar* pelikulan herrialde horretako folklorea, abestiak eta kondairak erabiltzen dira oso lan polita burutzeko.

Istorioaren hasieran itsasargi baten bizi den bikote bat eta bere semea agertuko dira. Semeak liluratuta entzuten ditu amak kantatzen dizkion abestiak eta kontatzen dizkion istorio magikoak. Ama haurdun dago, eta erditzearen ostean desagertu egingo da. Hortik aurrera familiaren bizitza zeharo aldatuko da: aita beti triste, eta semea amaren falta sumatzen eta arrebarenganako portaera nahiko muturbeltza azaltzen. Gertaera berezi baten ostean, haurrak amamaren etxera bizi izatera joango dira, eta hortik aurrera amak kontatzen zituen istorioek eta horietan agertutako pertsonaia magikoek eta mitologikoek haurren bizitzan parte hartuko dute. Tomm Mooreren animazioa nahiko desberdina da. Ikustera ohituta garen animazio irudietara baino gehiago, liburuen ilustrazioetara hurbiltzen da. Irudiak planoagoak dira, ez du errealista izan nahi: pertsonaiak trazu gutxiagotan egiten ditu. Neurriak bereziak dira, eta irudiek *naif* kutsua dute.

La canción del mar filmak beste mota bateko animazio filmetara hurbiltzeko aukera ematen digu. Alde batetik, marrazteko beste era bat ikusten dugulako, eta beste alde batetik, gutxi ezagutzen dugun kultura bateko istorioak, mitoak eta folkloreak gerturatzen dizkigulako. *Selkie*-ak (pertsona eta itsasoko animalien arteko nahasketa), sorginak, aztikeriak, harrian bihurtutako erraldoia eta hainbat pertsonaia magiko biltzen dira film polit honetan.

ANTONIO ZABALA

NON-ZER

MAIATZA 15
MAIATZA 21

Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.
Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

MUSIKA

ELGETA Metalmania
Metallica omentzeko kontzertua. Sarrerak salgai Espaloian, Bergarako Pol-Pol tabernan eta *www.musikaze.com* atarian.
Gaur, egubakoitza, Espaloian, 21:30ean.

OÑATI Izeberg, Hydra eta Lokuria! taldeak
San Isidro jaiak girotuko dituzte. Sarrera, doan.
Gaur, egubakoitza, Kasablankan, 22:00etan.

BERGARA 'Hiri asko bere baitan'
Argazkigintza, literatura eta musika bateratzen dituen ikus-entzunezkoa: zuzeneko musika, bakarrizketa, errezitaldia, bideo eta argazki proiekzioak. Sarrerak, hiru euro.
Gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:30ean.

ARRASATE Los Galerna eta The Cavernarios taldeak
Elkarrekin grabatutako *Sangre en el Atlántico* diskoa aurkeztuko dute. Los Galernak bakarrik joko du zuzenean.
Bihar, zapatua, Taupa tabernan, 19:00etan.

ARETXABALETA Musika eskolako txirula-jotzaileen emanaldia
Leizarra musika eskolako kideek kontzertua egingo dute.
Maiatzaren 19an, Arkupen, 18:00etan.

ARETXABALETA Kantaldia
Josu Zubia eta Argitzal taldeak eta Larrun taldeak egingo dute kontzertua.
Maiatzaren 20an, Aretxabaletako fakultatean, 18:00etan.

GAZTELEKUAK

ARRASATE Konkis probak
Abilezia eta talde estrategia erabilita gainditu beharreko hainbat proba izango dituzte gazteek.
Gaur, egubakoitza, Musakolako gazte txokoan, 17:00etan.

ARRASATE 'Sukaldaritza eroa!'
Patata-tortillaren bertsio berriak egin beharko dituzte parte-hartzaileek.
Bihar, zapatua, Musakolako gazte txokoan, 11:00etan.

ARRASATE Aurpegi margotzea
Gazte txokoko erabiltzaile nagusienen eskutik.
Bihar, zapatua, Musakolako gazte txokoan, 11:00etan.

ARRASATE Gazte bazkaria
Bazkaltzeko elkartuko dira.
Bihar, zapatua, Musakolako gazte txokoan, 14:00etan.

ARRASATE Ginkana
Askotariko jokoak.
Bihar, zapatua, Musakolako gazte txokoan, 16:00etan.

ARRASATE 'Bat irabazteko' jolasa
Jesus Vazquezek telebistan ezagun egin zuen jolasa. Bikoteka egingo dute.
Bihar, zapatua, erdiguneko gaztegunean, 18:00etan.

BERGARA Murala margotzea
Gaztelekuko pareta batean murala egingo dute. Zapatuan gaia aukeratuko dute, eta domekan margotu.
Zapatuan eta domekan, Xabaloten.

HERRIXA DANTZAN
HERRITARRAK PLAZAN ELKARREKIN DANTZAN

Udako dantza ikastaro monografikoak

- Ikasturtean zehar ezin dutenentzat
- Gai bat asko sakondu / aberastu nahi dutenentzat

NOIZ / NON / IRAUPENA:
Ekaina edo uztaila edo iraila (ikastaro bakoitza astebetez)
Iraupena: astebete, astelehenetik ostiralera, 2 ordu/egun = 10.00 ordu
Leku, data eta ordutegi zehatzak interesatuen arabera moldatuko dira.

PREZIOA:
50,00 euro (ikastaro bakoitza)

IKASTAROAK:
1. DANTZA JAUZIAK - OINARRIZKOA
2. DANTZA LOTUAK - OINARRIZKOA
3. SOLTEKO DANTZA - OINARRIZKOA
4. INGURUTXOAK eta KONTRADANTZAK
5. MUTIL-DANTZAK - OINARRIZKOA
+ BESTEAK - ASKO SAKONTZEA
+ LARRAIN-DANTZA

INFO + INTERESA AZALDU:
www.herrixadantzan.eus ('Udako ikastaro monografikoak')
943 78 90 70

ELGETA Su Ta Gar zuzenean
Eibarko laukoteak *Bizirik gaude* lanaren kantu berriak joko ditu. Taldeak egindako ibilbidean atzera begira ipiniko dira: musikalki metal koordenadetan eraso eginez. Sarrerak salgai daude Espaloian, Taupa tabernan (Arrasate) eta Bule tabernan (Bergara) 15 eurotan. Leihatilan, 18 euro.
Bihar, zapatua, Espaloian, 22:00etan.

WWW.MUSICOPOLIS.ES

IMANOL SORIANO

ARETXABALETA Euskeriaren Eguna
Egitarau zabala osatu dute, besteak beste: umeendako jolasak eta Pantxika eta Txinparta pailazoen ikuskizuna; bertso-triki poteoa; bolo txapelketa, larrain-dantza, *Zango*-rekin dantza gidatua eta herriko musika taldeen kontzertua.
Bihar, zapatua, Aretxbaletako hainbat lekutan, 10:00etatik.

JAIAK

OÑATI Murgiako jaiak
Aste bukaeran Asentzio jaiak ospatuko dituzte. Besteak beste, auzo afaria, umeendako jolasak, kamioi-erronka, pailazo emanaldia, txakolin dastatzea, meza eta Trikimailu taldearen erromeria.
Aste bukaeran, Murgia auzoan.

OÑATI Kasablankako jaiak
San Isidro jaiak ospatuko dituzte aste bukaeran. Besteak beste, olagarro dastatzea, rock kontzertua, auzoko meza, Oñatz taldekoen dantzaldia eta herri kirolen erakustaldia egongo dira.
Aste bukaeran, Kasablankan.

ARRASATE Musakolako jaiak
San Isidro eguna ospatuko dute domekan. Besteak beste, danborrada, meza nagusia, spinning maratoia, umeendako jolasak eta auzoko abesbatzaren emanaldia egongo dira.
Aste bukaeran, Musakolan.

ERAKUSKETAK

ARRASATE Margo Taldekoen lanak
Zilarrezko ezteiak ospatzeko, taldeko kideen lanak batu dituzte: natura hilak eta erretratuak, besteak beste.
Maiatzaren 29ra arte, Kulturaten, arratsaldez.

ARRASATE 'Dinbi, danba, mailuaren hotsa'
Azken errementari Bixente Barandiaranen eta burdinaren kulturak herriaren bilakaeran izan duen eragina ikusteko.
Harresi aretoan ikusgai.

BERGARA Baionako Kortsarioak
Galerie des Corsaires delako erakusketa egin dute Baionako Kortsarioak taldekoek.
Domekara arte, Aroztegin.

ELGETA 'Izarren azpian'
Eider Iturriaga elorriarraren argazki erakusketa. Hainbat musika talderen zuzenekoekin ateratako argazkiak. Gaur, egubakoitza, inauguratuko da.
Ekainaren 21era arte, Espaloian.

OSPAKIZUNAK

BERGARA Jardunek 25 urte
Mende laurden darama jada Jardun elkarteak Bergaran euskararen alde lanean. Urtemuga berezi hori ospatzeko ekitaldia egingo dute, luntx eta guzti. Elkartearen iraganaz, egungo egoeraz eta etorkizunaz egingo dute berba ekitaldian.
Bihar, zapatua, UNEDen, 13:00etan.

ELGETA Debagoieneko I. kanta eta dantza eguna
Egitarau zabala prestatu dute, eta, besteak beste, Herrixa Dantzan egingo dute Jainaga eta Narbaiza bikotearen zuzeneko musikarekin.
Etzi, domeka, Espaloian eta herrian, egun osoan.

ANTZERKIA

OÑATI 'Novedades en Villa Titiritaina'
Ikusi Makusi erretiratu taldearen antzezlana. Sarrerekin batutako dirua Haitira bideratuko dute.
Etzi, domeka, Santa Anan, 19:00etan.

HITZALDIAK

BERGARA 'Errespetua familia harremanetan'
Etxadiko kideen hitzaldia.
Maiatzaren 19an, Oxirondoko aisialdi gunean, 18:00etan.

ARRASATE Antzerkiaz eta zinemaz berbetan
Ametsak betetzen zikloaren barruan hitzaldia egingo du Mariasun Pagoaga aktoreak.
Maiatzaren 19an, MUko Biteri ikastetxean, 18:45ean.

BERGARA 'Krisi sistemikoa eta trantsizio eko-soziala'
Joseba Azkarragaren hitzaldia.
Maiatzaren 20an, Errekalden, 18:00etan.

LITERATURA

ELGETA Ipuin kontaketa
Gurutz Garmendiak euskal mitologiaren gaineko saioa egingo du, euskaraz, herritar guztiendako.
Gaur, egubakoitza, liburutegian, 18:00etan.

ARRASATE Ipuin kontaketa
Saroa Bikandi kontalariak 3 eta 4 urteko umeendako saioa egingo du.
Maiatzaren 21ean, Kulturaten, 18:00etan.

BESTELAKOAK

OÑATI Odol-ateratzea
Txantxiku Ikastolako aretoan egingo dute.
Gaur, egubakoitza, ikastolan,17:00etan.

OÑATI Formazio saioa udalekuetako begiraleendako
Gaztelekuan egingo dute.
Bihar, zapatua, gaztelekuan, 09:00etan.

ELGETA Gaztetxearen etorkizuna
Gazte Asanbladak kantu afaria egingo du gaztetxearen etorkizunaz berba egiteko.
Bihar, zapatua, gaztetxean, 22:00etan.

IKASTAROAK

ARETXABALETA Zirku tailerra umeendako
Zirkuko jolasak ikasteko aukera izango dute neska-mutikoek adituen laguntzarekin.
Bihar, zapatua, Arkupen, 11:00etan.

ARRASATE Joskintza ikastaroa
Dunixe Royoren eskutik, oihalak erabilita, hainbat proposamen egiteko aukera: kamiseta pertsonalizatuak, erosketa poltsak, paparrekoak... Ekainaren 30etik uztailaren 21era, martitzen arratsaldeetan. Ikasleek eta langabeek 20 euro eta gainerakoek, 30 euro.
Izen-ematea, Gazte Bulegoan.

DEBAGOIENA Ortugintza ekologikoa
Garaion Sorginguneak 80 orduko ikastaroa egingo du: nola erein, landaketak, planifikazioak, landare urak, ureztatzea... Astelehenetik egubakoitzera 08:30etik 14:40ra arte. Informazio gehiago 945-06 32 45 telefonoan.
Izen-ematea eta informazioa, aipatutako telefonoan.

ARRASATE Krossfit-core ikastaroa
Krossfit-core ikastaroa hasiko dute, eta zabaldu dute izena emateko epea. Martitzenetan eta eguenetan emango dute ikastaroa, 19:30ean. Bi egunak edo egun bakarra aukera daitezke.
Izen-ematea eta informazioa, Musakolan.

ELGETA Dantza ikastaro monografikoak
Hastapeneko eta sakontzeko ikastaroak egingo ditu Patxi Monterok, urtean zehar ohiko ikastaroetan parte hartu ezin dutenekin. Informazio gehiago *www.herrixadantza.eus* helbidean.
Izen-ematea eta informazioa, Musakolan.

ARRASATE Txalaparta
Maiatzaren 18tik ekainaren 15era egingo dute: astelehenetan, 18:30etik 20:30era. Izenak Gazte Bulegoan eman behar dira: ikasleek eta langabeek 15 euro eta gainerakoek, 25.
Izen-ematea, Gazte Bulegoan.

ARRASATE Urban dantzak
Mikel Gimenezekin, uztailaren 2tik 23ra, eguenetan. Izenak Gazte Bulegoan eman behar dira: ikasleek eta langabeek 15 euro eta gainerakoek, 25.
Izen-ematea, Gazte Bulegoan.

IRTEERA

OÑATI Belar-Biozkornia
Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioak, Arantzazuko Parketxeak eta Arantzazuko Adiskideak elkarrekin antolatuta. Helduek hiru euro eta gaztetxoek (6-10 urte artekoek) bi euro. Izenak 943-78 28 94 telefonoan eman behar dira, aurrez.
Etz, domeka, Arantzazun, 09:00etan.

ARRASATEKO BASERRIKO PRODUKTUEN AZOKA
09:00-14:00 Seber Altube Plaza
HILEKO 3. ZAPATUAN
2015
maiatzak 16
ekainak 20
uztailak 18
irailak 19
urriak 17
azaroak 21
Antolatzailea: Arrasateko Udala / Ayuntamiento de Mondragón — Enplegu eta Garapen Ekonomikoaren Saila
Laguntzailea: ibai-arte — Arrasateko baserriek eta merkatariek konfiantza, hurbiltasuna eta kalitatea eskaintzen dizkizuete.

Bi lagunendako otorduen zozketa astero Puntuan. Hartu parte eta... on egin!

Arrasateko
Erreka Jatetxeko
itsaski entsalada.

puntua

'PUNTUA' ORAINDIK ETXEAN JASOTZEN EZ BADUZU:
943 25 05 05 *edo* ***Puntua.eus*** *edo Whatsapp:* ***688 69 00 07***

goienakluba

goiena

2015-05-15

BUKATZEKO

Inoiz joan ez den jostailua bueltan da

- Zibak berriz ere daude neska-mutikoen artean eta inoiz baino indartsuago heldu dira
- Euro bat baino merkeagoak, eta baita 70 eurotik gorako prezioa dutenak ere, modan daude

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

Zibaren lehen aztarnak aurkitzeko milaka urte atzera egin behar dira: K.a. 4000. urtera, hain zuzen. Ordukoak dira ziba zaharrenen lehenengo aztarnak; Eufrates errekan aurkitutakoak eta buztinez egindakoak, hain zuzen. Ordutik hona, mendeetan zehar jostailu bezala erabili izan dute haurrek, eta ez hain gazteek ere bai. Platonek mugimenduaren metafora azaltzeko inspiraziotzat hartzen zuen ziba, eta Troian zein Ponpeian egindako indusketetan hainbat ziba aurkitu izan dituzte.

Duela hamarkadak ere oso jostailu ezagun eta herrikoi bihurtu zen. Ehunka neska-mutikok mugimendu hipnotizatzailearekin disfrutatu dute; batzuek abilezia handiarekin eta beste batzuek ahal zuten moduan ziba dantzan jarrita. Itxuraz, urteetan etxeetako kutxatzarren ilunpean egon ostean, argia ikusi dute zibek; eta nola, gainera.

Punta birakaria duten zibak. | JAGOBA DOMINGO

Zibarekin jolasean. | J.D.

Centro Cien dendan dituzten ziba motak. | J.D.

Bira eta bira

Azken hilabeteetan zibek itzulera ikusgarria izan dute; neska-mutiko guztiek egurrezko, plastikozko zein metalezko tramankuluak bira eta bira jartzen dituzte. Askok lurrean, baina beste hainbestek eskuetan edo izterretan jartzen dituzte dantzan milurteko berriko zibak.

Kostatik hona

Duela urtebete inguru hasi zen berriz ere ziben moda, Donostia aldean eta kostaldeko hainbat herritan, eta dagoeneko ibarrera heldu dira.

Mota askotariko zibak daude gaur egun; betiko egurrezkoa, plastikozkoa, metalezkoa... eta oraingo izarra: punta birakaria duena. Ziba horrekin, akrobazia ikusgarriak egin daitezke erraztasun handiagoarekin; adibidez, *boomerang* delakoa: ziba bera eskuan bota eta eskuan biraka dabilen bitartean sokarekin heldu eta magia egin. Askotariko prezioak dituzte, ordea; egurrezkoak euro bat baino gutxiago balio du, puntu birakarikoek 10 eurotik gora balio dute, eta badaude 70 eurotik gorakoak ere.

AZKEN BERBA

ANDER ETXEBERRIA

Ondo errotuta

Asteburuan, egunkari digital baten hauteskunde kanpainako informazioaren artean, bideo batek atentzioa eman dit: *Euskadin zergatik ez da ligatzen* titulupean, Soziologian doktore Teresa Laespadari egindako elkarrizketatxoa. Gaia txantxetarako aproposa bada ere, hizketaldi honetan fenomenoaren klabeak aipatzen ditu.

Hasteko dio hemen neskatan/mutiletan egiten dela, baina beste latitude batzuekin konparatuta modu diferentean. Kontua da, ligatzea elementu kulturala izanik, ikasi egiten dela. Hortaz, ulertzekoa da herri bakoitzak bere sistema izatea. Esaten du beste leku batzuetako jendea gu baino errazago sartzen dela aldamenekoez berbetan, edota kanpoan samurragoa dela portaera aldatzea.

Hala ere, ahazten du elementu bereizgarriena: kuadrilla. Hor dago gure sistema geldoaren gakoa, lehen eta orain. Bi hitzetan, ligatu nahi duen lagunak lehenik kuadrillaren indar zentripetua gainditu beharra dauka. Eta pauso hori emateko energia handia behar badu, are gehiago beste aldera iristeko.

Portzierto, interesa duenarentzat, bideoan ez da ematen egoerari buelta emateko formula magikorik...